

ANTONIO ZAVALA, S. I.



ITURZAETA

BERTSOLARIA

FRANZISKO ITURZAETA
BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

86-87

COLECCION AUSPOA

Administración: **Plaza de Santa María, 2 - Tolosa**
(Guipúzcoa-España) Tel. 661612

Dirección literaria: **Rvdo. P. Antonio Zavala, S.J.**
Colegio de S. Ignacio, Ategorrieta.—San Sebastián

Ordaindu bearrak:

Urte betekoa: 380 pezeta Atzerrian: 500 pezeta
Ongilleak: 600 " Ale bakarra: 50 "

ANTONIO ZAVALA, S. I.

FRANZISKO ITURZAETA

BERTSOLARIA

AUSPOA LIBURUTEGIA

1969

*Doñuak magnetofonotik artu ta idatzi
dituana: Ambrosio Zatarain jauna.*

D. L. S. S. 496/69

**IZARRA - Peña y Goñi, 13
San Sebastián - Octubre 1969**

ARKIBIDEA

FRANZISKO MARI ITURZAETA AGIRRE ...	9
Aotik aorako bertsoak	19
(1909) Mixiyo baten oroipena	27
(1915) Bertso berriak Aita San Inazio Loiola'koaren Bizitzaren gañean Franzisko Iturzaeta'k jarriak	40
(1915) Franzisko Iturzaeta'k Azpeiti'ko Mixiyuari jarritako bertso edo itz neurtu berriak	61
(1916) Bertso berriak beren buruak aundi egin nai izan dituztenari jarriak	72
(1916) Bertso berriak Franzisko Iturzaeta'k Loiola'ko funtzioen gañian jarriak	85
(1917) Bertso berriak Franzisko Iturzaeta'k Urrestilla'ko Mixioen gañian jarriak	93
(1917) Bertso berriak Azpeiti'ko Elizalde'k larre-beian gañian jarriak	101
(1920) Bertso berriak ondo merezi duben tonto-pizkor bati jarriak	113
(1921) Bertso berriak Azpeiti'ko Mixiyuen gañian Elizalde'k jarriak	123
(1922) Bertso berriak (Nekazarien kezka)	137
(1928) Loiolatxo'n	166
(1931) Bertso berriak Jabier Sarasola'k jarriak	177
Gosetea	186
Meza Santuaren bertsoak Franzisko Iturzaeta'k jarriak	193
Kondarrak	209

ITURZAETA'REN BERTSO-IKASLEAK ...	217
Alabaren bertsoak:	
Aita zanari	220
Arantzazu'ko Amari	224
Billobaren bertsoak:	
Aitona zanari	226
Agustin Lertxundi'ren bertsoak:	
Prantxisko zanari	229
"Oraintxen pentsatzen det..."	231
"Euskerangatik..."	234
"Betizuak aldegiñ..."	237
"Euskaldun jaio nitzan..."	240

FRANZISKO MARI ITURZAETA AGIRRE

Franzisko Mari Iturzaeta Agirre bertsolaria, Azpeitia'ko Eleizalde baserrian jaio zan, 1872'gn. urteko Uztaillaren 12'an. Orregatik, Eleizalde ere deitu izan oi zioten bere denboran.

Eleizalde baserri ori Izarraitz mendia-
ren azpian, Olatz'ko Ama Birjiñaren er-
mitaren ondoan dago.

Gurasoak, Jose Manuel eta Joakina izan zituan, biak azpeitiarrak. Aitaren aldeko aiton-amonak: Jose Inazio, azpeitiarra, ta Ana Maria Arizmendi, Segura'koa; ta amaren aldekoak: Franzisko, azpeitiarra, ta Josefa Gorriti, Aizarna'koa. (1)

Lau bat urteko aurre zala, Eleizalde'tik Gorostieta baserrira aldatu zan fameli osoa.

Gorostieta, Azpeitia'ko Odria ballaran dago, Azpeitia'tik Errezil aldera kamioz

(1) Azpeitia'ko XVI'garren bataio-liburua, 325'garren orrian.

goazela, Barnola'n ezkerretara artu ta maldan gora abiatuta. Goi xamar dago. Ordekarik gutxi dago an; dana aldapa. Bean, erreka-zuloa; errekar, Ziñatz-errekaka deritzaio. Onek Azpeitia ta Errezil'ko muga egiten du.

Aita, Jose Manuel, karlistentzat arma pasatzen jardun izan zan. Arrapatu ta Donostia'ra eramán zuten liberalak. Iru edo lau lagun omen ziran. Aurrena, besteai asi zitzaizkien galdeerak egiten. Onela erantzun zuten:

—Guk eztakigu ezer; aundi orrek dakizki kontu guziak!

Iturzaeta'ren morroiak zirala esan nai zuten. Onek ala pentsatu zuan orduan bere artean:

—Emen eztago gauza onik oiekin!

Neskameak, bazkariarekin edo zerbaitekin etorri ta atea ondo itxi gabe zirrituarekin utzia zuan. Orduan, ixil-ixilik, kanpora iges egin zuan Iturzaeta'k. Baita, nolabait ere, Usurbil'ko Irisasi mendiraño iritxi ere. Emen sasi-zulo batean izkutatu zan. An zala, zaldizko bat andik barrena igaro zan. Gero, gauez, Frantzia'ra pasa zan Iturzaeta. Sei illabete egin zituan emen, *indulto*a etorri zan

arte. Bitartean ama seme-alabekin al zuan bezela...

Zazpi senide izan omen ziran: iru mutil ta lau neska. Mutillak: Jose Maria, Inazio ta Prantxisko, gure bertsolaria, anaie-tan gazteena. Ta neskak: Ageda, Maria Joxepa ta beste bat Loiola'ko Beristain'-era ezkondu ta gazterik il zana.

Inazio, kontratista izan zan. Bilbao'-ko Atxuri'ko estazioa berak egin zuan; baita tren-bideko puska bat ere. Gero, mueble-fabrika jarri zuan, bañan etzuan suerterik izan.

Aita ere, nekazaritzan ez-ezik lan oie-tan ere pixka bat saiatu zan. Tolosa'tik Azpeitia'rako kamioaren puska bat, berak egin zuan, kontratan artuta. Kuadrillan amazpi mutil omen ziran. Oietako bat, bere seme Prantxisko, bertsolaria alegia. Gorostieta'n lo egiten zuten danak.

Etixerako gelditu zana Prantxisko izan zan. Au ere, aita bezela, nekazaritzan ez-ezik, bidegintzan ere askotan jardun zan; baita ikazkintzan eta baso-lanean ere, txabolan lo eginda. Oso gizon saia-tua izan zan; etzan geldirik egoteko ja-ioa.

Bertsogintzan, berriz, aotik aora poli-ki zekiana omen zan, bañan ola oso gu-

txi kantatu zuan. Etxean da lagun artean bai, bañan plazetan jende aurrean ez. Eztarria ere etzuan onegia. Ala ere aotik aorako banaka batzuk gorde izan dira.

San Isidro-igandean bertsolariak izaten ziran Loiala'n. Jesuitak Iturzaeta'ri ematen zioten bertsolariak ekartzeko kargua. Geien-geienetan Txirrita ta Gazteluri dei egiten zien. Ala, Txirritarekin ere bertsoan jarduna zan Iturzaeta. Ta arek onela esaten zion oni:

—Prantxisko, zuk gurekin etorri bear dezu bertso tara!

Bañan etzuan nai izaten.

Uztapidek, berriz, onela esan digu:

—Lengusu txikiak giñan: aren amaren ama, ta nere amaren ama, aizpak. Areakin kantatua nago. Oso bertsolari polita zan aotik aora. Ta oso gizon atsegiña gañera.

Ta bertsoak jarri ta paperetan zabal-tzen, lan asko egin zuan. Eskuratu ditugunekin, liburu au osatu degu. Ta galdutakorik ere izango dala, dudarik ezta.

Kontuak buruz egiten, izugarri azkarrara omen zan, bañan lumazale jende orrekin kontuz ibilli bear zala esaten zuan. Berak, ordea, etzekian eskribitzen firma

egiten besterik. Orregatikan, bertsoak paperean jartzeko, besteren laguntza bear izaten zuan. Bere alaba Justak, auzoko Marzelina zeritzan neskatxa batek eta olako lagun batzuek egiten zioten lan ori.

Bertsolari jatorrak maiz izaten dituzte bertso-ateraldiak, eta Iturzaeta'k ere bazituan. Ona bildu ditugun batzuk:

Bein batean, bazkaldu ta txabolako paretaren kontra deskantsatzen jarria zegoan. Aia'ko mutil batek etorri ta esan zion:

—Egin da siesta?

Ta Iturzaeta'k:

—Bai, lanerako gogorik ezta!

Beti etsiko genduke guk jan da eran da pesta! (2)

Beste batean lanean ari zan, ta batek esan zion:

—Ari zera lanian?

Ta berak:

—Bai, al danian!

Egin bearra dagonian!

Obia litzake jan da eran da egon-
an! (3)

(2) Agustin Lertxundi, Aia'ko Olaberri'koa, gaur Errenteria'ko Zelaitxo'n.

(3) Agustin Lertxundi.

Beste egun batean, Gazume-mendi'ko artzai bat txabolan siesta egiten zegoan. Iturzaeta'k, etorri ta onela esan zion:

—Beraz, etzanean?

Ta artzaiak:

—Bai, giro dagolako kamaña zarrian!

Ta arek:

—Je! Nik ere bertsotan egiñ oi diat sasoi dedanian! (4)

Beste batean, Zepai bertsolaria Iturzaeta'ren kuadrillarekin baso-lanean ari zan, pagoa bota, egurra txikitu, ola zerratu ta abar.

Ta Erdoizta'ko zakur batek, Txitxi zeritzaionak, zulo batetik barrena sartu ta ogia jan zien. Orduan txabol berria egin zuten, ogia ez paltatzeagatik.

Bukatutakoan, onela esan zion Zepaik Iturzaeta'ri:

—Txabola egin da, Patxi!

Ta onek:

—Bañan eztizkak zuloak ondo itxi!
Etortzen bazak Erdoizta'ko Txitxi,
berriz ere izango dek ogi gutxi! (5)

(4) Artzai ori bera, Agustin Lertxundi.

(5) Tomas Iturzaeta, bertsolariaren semea.

Iturzaeta, 1900'gn. urteko Agorraren 14'an ezkondu zan, Aizarnazabal'en, bertako Esnal baserriko alaba zan Maria Josefa Iburuzketa Olarreaga'rekin. Iturzaeta'k ogei ta zortzi urte zituan; andre-gaiak, ogei ta zazpi. (7)

Bost seme-alaba izan zituzten: Justa, Juliana, Jose Mari, Bixente ta Tomas.

Juliana, 1953'gn. urteko ujoldean, Donostia'ra klinikara gizona ikustera joan da bueltan etxera zetorrela, Zestua'n galdu zan autobusean ito zan.

Jose Mari, oso mutil indartsua omen zan eta oso bertsolari polita gañera. Etxean ta tabernan kantatzen asia zan. Onako bertso au kantatu zuan egun batean:

Traje berri ederra,
lepuan gorbeta,
milla pezetakua
karteran gordeta;
nik artarako ere
artuko det beta,
egiten detanian
orrelako meta.

Bañan amazazpi urterekin il zan, 1923'-

(7) Aizarnazabal'ko bigarren ezkontz-liburuan, 156'gn. orrian.

gn. urteko Apirillaren 19'an, *bronconeumonia* gaitzarekin. (6)

Gaurko egunean iru senide bizi dira: Justa, Bixente ta Tomas. Berai zor dizkiegu emen esaten ari geran guziak, besterik gaztiazten eztanean.

Iturzaeta, oso elizkoia zan. Bertsoak ezagun dute. Mendi-lanean ari bazan ere, etzan aztuko gauero kuadrillarekin erro-sarioa erreztatzeaz. Etxean ere berak esaten zuan, da besteak erantzun. Sukaldean alde batetik bestera ibiltzen zan erro-sario-denboran, ta exeritako iñork lo artzen bazuan, kaxkateko txiki batekin esnatzen zuan.

Ta lanean ari zala, edo bidean zijoala ere, erreztatzen aritzen zan askotan. Bertsoa, errezoa ta lana, etzuan besterik.

Zarretan, munduko aurrerapenak ikusita, onela esan oi zien seme-alabai:

—Zuen denboran, gurean egin duan alde egiten badu, mundu au xelebrea izango da orregatik!

Azkenerrako prostataz gaixotu zan. Donostia'ra iru bat aldiz eraman zuten. Medikiak, operatu bear zuala esan zioten.

(6) Azpeitia'ko 12'gn. eriotz-liburuan, 13'gn. orrian.

Bañan berak etzuan nai izan. Onela esan zuan:

—Naiago det etxean il, klinikan baño!

Ta gaizkienean zegoela ere, onela esan zuan:

—Banatxiok Donosti'ko klinika zarrean añean!

Ta bertsoan ere egin oi zuan oetik. Bertso aietaz eztira seme-alabak oroitzen, ontaz izan ezik:

Elizalde'tar Prantxisko Mari,
Iturzaeta deritza,
opiziorik prinzipalena
izan det nekazaritza;
gañeruntzian luberri eiten,
baso-lan da bidegintza,
eutera aldeko bizker onetan
eman det nere bizitza.

Ezin eman zezakean obeto, itz gutxitan, bere bizitzaren berri.

Ala, berak nai zuan bezela, bere etxean il zan, Gorostieta'n alegia, 1948'gn. urteko Maiatzaren 6'an.

* * *

Ona emen aurreko bertsoaren doña, Iturzaeta'ren alaba Justak kantatu ta Donostia'ko Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik paperera itzulia:

E-li-zal-de-tar Pran-txis-ko Ma-ri I-tur-
-tza-e-ta de-ri-tza, o-pe-zi-yo-rik prin-tzi-pa-
-le-na i-zan det ne-ka-za-ri-tza; ga-ñe-
-run-tzi-an lu-be-rris-ei-ten ba-so-lan ta bi-de-gin-
tza eu-te-ra-al-de-ko biz-kar-al-da-pan e-man
det ne-re bi-zi-tza

AOTIK AORAKO BERTSOAK

Jose Azpiazu Azpeitia'ko dendari bat zan, almazen aundi bat klase guziekin zuana. Irentzallia zuan ez-izena.

Egun batean, denda orretara joan zan Iturzaeta, ta Irentzallia onela asi zitzaion:

—Bota bertsoa, Prantxisko, bota bertsoa!

Ta onek onela kantatu zion:

Erdi kaleko kantoï onetan
Jose onen almazena,
baserritarrak manejatuz
kontentu dabil gizona;
kontzientzia bere ustetan
justua eta zuzena,
Irentzallia oso ederki
dauka bigarren izena.

Ondo jan eta dotore jantzi
etziok ezerretetik;

.....

.....

askok añeko irebaziak
enplio onek bazetik,
bañan jendiak gu bajatzian
kontuak izango zetik. (1)

* * *

(1) Tomas Iturzaeta, Gorostieta, Azpeitia.

Bein batean, Iturzaeta Gazume-mendi aldera zijoan, an terreno batzuk baitzitan. Bidean zijoala, artzai bat topatu zuan bere zakur ta artaldearekin. Artzaiak esan zion:

—Patxi, bota iozu bertsoa zakurrari!
Ta onela bota zion:

Zakurra, zertan ago
birian erdiyan?
bazkaririk ez al ditek
eman eguardiyan?
berriz ê ola egoten bâiz
egunan erdiyan,
tximia izango dek
ire ipurdiyan! (2)

Bertso au Txirritarena bezela jarri zan Auspoa'ren 18-9'gn. alean, 187'gn orri-aldean, orduan ala jaso bainuan...

* * *

Joan omen ziran auzora eztaitara, ta Prantzisko zanari beste bizitzako gizonak bertsoa kantatu omen zion, artean artoak jorratzeko zeuzkala. Ta Prantzisko zanak au kantatu omen zuan:

Nekazaritzan ondo
ikasita gaure,
lurrak baniatzen ditut
bost-ortz eta are;

(2) Tomas Iturzaeta, Gorostieta, Azpeitia.

gañera ondo jarri
ximaur eta kare,
an artua izengo da
jorratu ezta're. (3)

* * *

Errepublika-denboran, jesuitak kanpo-
ra bialdu zituztenean, Iturzaeta'k onela
kantatu zuan:

Euskaldunaren batzokia da
Azpeitia'ko Loiola,
aitona pranko kendu digute
malkuak derizkiola;
zeñen deretxoz geren lurrian
oiek agintzeko ola?
euskera eta euskaldunari
Jainkuak inder deiola! (4).

* * *

«Ixtura bat egiten aritzen giñan gu,
Prantxisko zana ta biok (5), Gazume-
-mendi'n; ni beko txabolatik eta Prant-
xisko zana goikotikan, puntu batera
ateratzen giñan. Bero aundia zegoan da
ostrapean jarri giñan biok. Nik esaten

(3) Agustin Lertxundi, Aia'ko Olaberri'koa, gaur
Errenteria'ko Zelaitxo'n.

(4) Tomas Iturzaeta, Gorostieta, Azpeitia.

(5) Agustin Lertxundi, Aia'ko Olaberri'koa, gaur
Errenteria'ko Zelaitxo'n. Ondoren datozen iru doñu
oiek, Lertxundi'k kantatu ta Zatarain jaunak pa-
porean ezarria.

nion kantatzeko bertso bat edo bi, ta
neroni bi bertso bota zizkidan:

O-ri-yo-ti-kan go-ra-go da-go e-rrri
za-bal-du bat A-ya, Ga-zu-meal-de-ra e-torri
zai-gu al-di-or-ta-ko ar-tza-ya; sa-soi
o-na-kiñ ar-ki-tzen za-yo ber-tso- tan i-ka-
-si na-ya: mai-xu o-na-ren ja-bee-egin da
da ie-man nai di-ot ga-ya.

Oriyo'tikan gorago dago
erri zabaldu bat Aia,
Gazume aldera etorri zaigu
aldi ortako artzaia;
sasoi onakiñ arkitzen zaio
bertsotan ikasi-naia,
maixu onaren jabe egin da
ta eman nai diot gaia.

O-so gaz-te-ri-ke-to-rr-i zi-ñan Ga-zu-
meal-de-ko men-di-ra; ar-dik je-txi-ta gaz-take-
-gi-ñaz ber-tso-tan-i-ka-si-tze-ra; do-na-
-ri-yu-a bi-ka-ña de-zu, sa-soi e-de-rra ga-ña-
-ra zu ber-tso-la-ri laix-ter-ze-ra-de nē-kiñ
i-bil-tzen ba-ze-ra.

Oso gazterik etorri ziñan
Gazume aldeko mendira,
ardik jetzi ta gaztak egiñaz
bertsotan ikasitzera;
donariua bikaña dezu,
sasoi ederra gañera,
zu bertsolari laixter zerade
nēkiñ ibiltzen bazera.

Nik ez nion orduan bota, bañan ondo-
ren artan neronek pentsatu nituan, biok
manorik-mano ari bagiña bezela, beste
beste bi bertso erantzuteko:

Ai-zu Fran-txix-koze-reden-bo-ran be-tii-

-zan ze-ra go-zu-a ba-kin bat-al-diz on-rra e-

-de-rrik e-mane-tazeuk ja-su-a zuk ba-da-ki-

-zu no-la tra-ta-tu in-dar-tsu-ta gai-xu-

-a nun-ñai po-zi-kan ix-ti-ma-tzen da zu be-

Urrango bertsoan:
-ze-la-ko mai-xu-a.

ja-yo i-zan-a-rren A-yan kon-tra-ri-yu-a-

(12)

-ren na-yan

Aizu, Prantxisko, zere denboran
beti izan zera gozua,
bajin bat aldiz ondra ederrik
zeuk eman eta jasua;
zuk badakizu nola tratatu
indartsua ta gaixua,
nunai pozikan ixtimatzen da
zu bezelako maixua.

Gazume-mendi'n bizi naiz orain
jaio izan arren Aya'n,
bertsolaririk enun arkitzen
len bizi nintzan tokiyan;
batzuek beti ibiltzen dira
kontrariyuaren nayan,
baña ni beti arkitu izan naiz
lagun on baten premiyan.»

* * *

Azpeitia'ko Lizaso bertsolaria Iturrioz'ko pestetara zijoan bere lagun-kuadrillarekin. Gazume-mendi ondoan Iturzaeta topatu zuan, belar astintzen ari zala. Lizaso'k onela jarri zion puntua:

—Patxi, belar astintzen
makill aundiakin...

Ta Iturzaeta'k onela jarraitu zion:

—Bi anka izurratu ta
irugarrenakin;
zuek pestâ zuazte
fanfarro aundiakin,
ni ola ibiltzen niñun
zuen aitonakin. (6)

* * *

Beste onela ere jaso degu bertso au
bera:

—Aizu, Patxi, zer zabilta
makill aundiyakin?...

Len anka bi elbarri ta
irugarrenakin;
zuek oso panparroso
sasoi onarekin,
ni ere ibiltzen nitzan
zuen aitonakin. (7)

Agian ontan obeki dago, pоторik ez
baitu.

(6) Tomas Iturzaeta, Gorostieta, Azpeitia.

(7) Agustin Lertxundi, Aia'ko Olaberri'koa, gaur
Errenteria'ko Zelaitxo'n.

(1909)

MIXIYO BATEN OROIPENA

Bertso auek zeñenak diran eztu kanta-paperak esaten, ezta Mixioa zein erritakoa dan ere.

Bañan irugarrenean *San Agustin'go elizatxoa* aitatzen baita, Azpeitia'koa ote zan pentsatu genduan.

Ta ala, Iturzaeta'ren seme-alabai galde egin genien, bertso auek zeñenak ta nungoak ziran ba ote zekiten.

Baietz erantzun zidaten, Azpeitia'koak zirala, ta bere aita zanak jarriak gafiñera.

Bertso-papera «*Azpeitiyan — Martinez-tarren moldiztegiyan.*» inprentatua da; ez nuan apuntatu zeñi jaso nion.

Doñua, bost puntoko bertsoena.

- 1/ Milla beatzireun kunpliturikan
beatzigarren urtian
mixonistak izan ditugu
beatzi-urren batian; (1)
premiazkuak egongo giñan
pektarion artian,
munduan sobre engañaturik
oso itxumen puertian,
ditxa ederra etorri zaigu
aprobetxatu gaitian.
- 2/ Biba Kabildo maitagarria,
biba Ayuntamentua,
eztakit ondo egingo dedan
oien kontentamentua;
fedeko gauzai segitutzeko
oiek badute kontua,
obligazioz kunplitutzeko
orain da pentsamentua,
oien laguntzaz gorde dezaigun
Jesusen lege santua.
- 3/ San Agustin'go elizatxoan
dagon abare maitia,
mixonistak ekarritzeko
bazeukan borondatia;
gizon ona ta leiala degu
jakinduriyaz betia,
bere ardiyai zabaldu nairik
zeruetako atia,
orren biyotzak sentituko du
gu inpernura juatia.

(1) Bertso-paperan: *bederatsireun*, *bederatsi* ta *bederatsi-urren*.

- 4/ Ikusirikan gure animak
ia galtzeko zoriyan,
mixonistak sartu dirade
goiko eliza berriyan;
zenbait ez gera sujetatutzen
tokatzen zaigun neurriyan,
gorputza gaizki ibilli eta
anima dago larriyan,
orrelakua ez al zeguan
estadu penagarriyan?
- 5/ San Franziskoren semiak dira
gure predikadoriak,
orretarako eskojituak
gure redentoriak;
konfesiuan leialak dira,
kulpitotikan brebiak,
gau eta egun lana egitia
eskusa aundi gabiak,
bere erreñuan sartu ditzala
zeru ta lurren Jabiak.
- 6/ Pekatariak munduan ditu
obligazio estuak,
denbora askotan ibiltzen gera
modu oietan aztuak;
obra gaiztuak, izketa txarrak,
pentsamentuak nastuak,
bakar batzuek egongo gera
pekatuz aberastuak,
karguak zorrotz artuko ditu
gure Jaungoiko justuak.

- 7/ Mundua eta demoniua,
 aragia da bestia,
 iru gauza oek animarentzat
 mesedekuak ezta; (2)
 jaio orduko pentsatzen degu
 biziyuetan astia,
 bizitza txarrak ekarriko du
 gero ondoren tristia,
 obeko degu denbora dala
 oitura txarrari uztia.
- 8/ Urtiak pranko gaiñian dauzkat,
 sartu naiz eskarmentuan,
 ikusten diran gauza askokiñ
 bizi naiz sentimentuan;
 iñuzenterik ote dagan
 asko gabiltza kontuan,
 gusto zikiña kunplitutzeko
 gau ta egun pentsamentuan,
 anima asko ofenditzen da
 seigarren mandamentuan.
- 9/ Mixiyo oiek serbitzia du
 bakoitzak bere kaltian, (*sic*)
 misionistak deitzen digute
 iya prebeni gaitian;
 oso loturik gelditu gabe
 etsai gaiztuen katian,
 kontzientziyak jarri ditzaigun
 estadu eder batian,
 enkontru txarrik izan ez dedin
 zeruetako atian.

(2) Bertso-paperean: *ez dira*.

10/ Abisu asko artuak gaude,
obeko degu mudatu,
gero egingo degula eta
ez iñork ere dudatu;
eriturikan dauden animak
nai dizkigute kuratu,
beste munduan nai ez badira
tormentu asko probatu.
kontzientziya nola daukagun
nor berak erreparatu.

11/ Mixionistak egin dizkute
suplika izugarriyak,
mudatu biegu ez bagerade
galtzairu edo arriyak;
zenbat banaka egongo gera
gorrotuetan jarriyak,
uste ez dala beteko zaizku
pekatuaren neurriyak,
beste munduan izango dira
gero istillu gorriyak.

12/ Esamiñatu biegu ondo
bada konbenientzia,
dolore piña, proposito ona,
arturik pazientzia;
konfesio egiazkoa,
garbitu kontzientzia,
errespeto edo umildadian
kunplitu penitentzia,
anima garbi gelditu dedin
doai ederrez jantzia.

- 13/ Konfesatu ta komulgatzian
 Jaunari eman graziak,
 ez du balio obra onetan
 erozein moduz astiak;
 aurrera beti segitu dezan
 gurekin fede biziak,
 desanparatu munduko ponpa,
 lujo ta irabaziak, (3)
 bertan utzi ta juanak dira
 oraindafioko guziak.
- 14/ Jesus maitiak presente dauzka
 Kalbarioko pausuak,
 konsideratu ezkerotzitan
 dirade lastimosuak;
 Adan da Ebak pekatu egin
 zuten gure gurasuak,
 indar aundiak artu zituzten
 etsai soberbiosuak,
 bentziturikan utzi zituen
 gure Jaun amorusuak.
- 15/ Jesus ona da guregatikan
 mundu ontara jayua,
 pekatua da orain da beti
 arentzat kontrariyua;
 bere kurutze santuarekin
 pasaurik Kalbariyua,
 eriotzian igaro zuen
 guztizko martiriyua,
 zeñek juzgatu ark guregana
 dadukan amoriyua?

(3) Bertso-paperean: *irabazi ta lujoak*.

16/ Zeruko atiak itxiyak zeuden,
berak zizkigun iriki,
geroztik ere persegituak
bizi geranak badaki;
etsaiak beti kontra ditugu,
biziro gaitu erruki,
maiz konfesatu, komulgatu ta
orazio egin galanki,
saiatzen dana salbatuko da,
ez kuidadorik eduki.

17/ Dudarik ez da, obligazio
asko diogu Jesusi,
Kalbariuan odolarekin
berak giñuzen erosi;
ainbeste lotsa, neke ta pena
gugatik zuan ikusi,
obra onari segi zaiogun
gaiztuetatik igasi,
ondo egin da gaizki pagatu
apenas duen merezi.

18/ Artu ditugun proposituak
ez al ditugu ausiko,
berriz biziyo gaiztuetara
iñor ez gera asiko;
umildade ta errespetuan
obeto gera biziko,
induljentzia izugarriyak
ditugu irabaziko,
zorionekuak izan gaitezen
eternidade guziko.

19/ Egun bateko bezela dira
emengo bizimoduak,
iñuzentiak ez bagerade
aska ditzaigun buruak;
utziko dira interesa ta
aginte edo graduak,
anima garbi an biarko da,
balioko ez du diruak,
zar eta gazte gerta gaitezen
bienabenturaduak. (4)

(4) Andik amaika urtera, 1920'garrenean, Gipuzkoa'ko Gaintza'n mixio bat egin zan. Mixio oni jarritako bertsoak ere badira. 24 bertsoke jarri-aldia da. Lazkao'ko Aita Baztarrika'k bialdua degu. Antxueta baserriko Aierbe bertsolaria zanak jarria da. "Tolosan: E. Lopez'enean" inprentatu zan.

Aierbe orrek iztarra autsia edo olako zerbait zuan misioa asterakoan. Orduan asto baten gañean base-rritik plazaraño ekarri zuten, da misio-denbora guzian eliz ondoko etxe batean egon zan ostatuz, eliz-puntzio ta itzaldirik ez galtzeagatik. Ondoren, bertso auk jarri zituan. Ala esan digu beraren biloba dan Jose Aierbe'k.

Bañan Azpeitia'ko jarri-aldia ta Gaintza'koa alkarren parean jarrita, onek ari zenbait bertso kopiatu zizkala ikusten da, zenbait aldaketa erantsirik eta ordena aldaturik. Kopiatutakoak amaika bertso dira; onako auk: 1, 2, 3, 4, 8, 10, 11, 12, 16, 18 ta 19'garrena.

Aldaketak onako auk dira: 1/1: Milla beatzi-reun kunplitu eta; 1/2: ogeigarrengo urtean; 1/3: Misio on bat izandu degu; 1/6: pekatarien artean; 1/7: munduaz sobre engañatuta; 2/5: obra onari segitutzeko; 2/7: obligazioa kunpli dezagun; 2/9: dezagun; 3/1: On Nikolas Telleria da; 3/2: gure Parroko maitea; 3/3: misio on bat ekarritzeko; 3/4: izan du borondatea; 3/7: zabaldu egiñaz;

4/1: Misio on bat izandu degu; 4/2: bada Gaintza'ko errian; 4/3: konbertituta denboraz gera; 4/4: txit bizimodu berrian; 8/1: Urtea franko; 8/3: ikusten dedan gauza askorekin; 8/6: dabilta; 8/7: gusto zikiñak; 8/9: anima asko kondenatzen da;

10/ Abiso asko artuak gaude,
obeko degu mudatu,
gero egingo degula eta
ez iñor ere dudatu;
kontzientziak nola dauzkagun
nork berak erreparatu,
eriturikan dauzkun animak
naiko ditugu kuratu,
infernuetan tormentu asko
nai ez badegu sufritu.

11/1: egin dizkigu; 11/4: alzairu; 11/5: bakar batzuek egongo giñan; 11/6: gogorturikan jarriak; 11/7: uste gaberik beteko zaigu; 11/9: inpernuetan ikusi bear;

12/ Onetan ere ipiñi digu
kuidado izugarria,
esamiñatu dezagula ondo
nork bere kontzientzia;
dolorea ta propositua,
arturik pazientzia,
konfesioa egiazkoa,
kunplitu penitentzia,
gero anima gelditu dedin
doai ederrez jantzia.

16'garrenaren azkeneko bi puntuak kopiatu ditu; lenengo iruak onela dakarzki:

Jesus maiteak asko nai digu,
bizirot gaitu erruki,
Galbarioan odolarekin
berak gindezen erosi;
geroztik ere persegituak
bizi gerana badaki...

18/2: ez al ditugu utziko; 18/4: ez al da iñor
jetxiko; 18/5-6: gure artean pekatu eitea — iñor
ez al da atrebituko; 19/2: munduko bizimoduak;
19/5: ez du balio interesa ta; 19/7: anima garbi
au bearko du; 19/8: ez du balioko diruak.

Gañerakoak bere buruz asmatu zituen Aierbe'k.
Onako auek dira:

- 4/ Esplikatzalle ederra dago
gure Aizpuru maitea,
alegiña egin du egun oietan
gure zerura bidên jartzea;
oso pena du gure animak
etsaien mende uztea,
San Pedro zai dago zabalduzko
zeruetako atea,
ara asko du anima garbi
arekin presentatzea.

- 5/ Aita Franzisko ortxen daukagu
bada ona gidaria,
bitartekotzat jartzen degula
Ama Birjiña Maria;
egun oietan aditu degu
bada majiña bat egia,
deskuido gabe jar dezagula
kontzientzia garbia,
danontzat antxen dadukagula
zeruetako gloria.

- 10/ Aingeru guardakoa beti esaten
ari da gure barrenean,
akordatzeko esaten digu
munduan geran artean;
bañan aztuta gelditzen gera
okasioa jartzean,
estazioa tabernan egin
gorputzaren faborean,
baña anima gelditutzen da
lengo enfermedadean.

- 12/ Argaltasunez deskuidatuta egiten badu pekatu, berealati Jaungoikoari barkazioa eskatu; konfesorearen aurrera juanda bereala konfesatu, ematen digun penitentzia umildadean kunplitu, Ama Mariak gure anima madalean dezan artu.
- 13/ Bataio santuan debekatuak daduzkagu iru gauza, aginte ori kunplituaz gu bizi gaiten guziz lasa: mundu, demonio eta aragia oso despreziatuta, ez gaitetzela, ez, deskuidatu gauza oriek aztuta, gero anima gertatu ez dedin betiko kondenatuta.
- 14/ Juramentu ta izketa loiak oso ditu debekatu, Castilla-erritik azi gaizto au onera nola zan sortu; balseo eta blasfemia ere oso ditu debekatu, kuidado aundia ipiñi digu ez gaitezen deskuidatu, inpernuaren ondarreraño ez gaitezen desterratu.
- 15/ Onetan ere agintzen digu kuidado aundia jartzeko, arrasko aundia dadukagula eta ez deskuidatzeko; gorrotorikan baldin badago lagun projimoentzako, propositua firmearekin bertatik barkatutzeko, kuidadu gabe jarri gaitezen zeruko atean sartzeko.

- 16/ Gaiñera berriz agintzen digu
zordanai barkatzeko,
obligazio ori degula
eta ez deskuidatzeko;
Jesusen bere esana degu
justu ori egiteko,
destierroko balle triste au
kuidaduz pasatutzeko,
mantxa duenik ez dala dio
zeruko atean sartuko.
- 17/ Jesus maiteak asko nai digu,
biziro gaitu erruki,
aingeru bana guardiako
bialdu digu zeruti;
pekatu egiteko bildur aundia
izan dezagula beti,
enkargu ori ematen digu
kentzeko okasioti,
zerura zuzen iltzean orrek
eraman gaitzan eskuti.
- 18/ Enkargu aundiak eman dizkigu
ez iñor deskuidatzeko,
artu ditugun proposituai
il arteraño seitzeko;
arrasko edo okasiotik
azkar apartatzeko,
bildur aundia izan dezagun
bai pekatu egiteko,
Ama maitea txit pozez dago
bere besuan artzeko.
- 21/ Geren patroia San Migel degu,
oso gudari abilla,
zeru altuan irabazia
Luziferrek zuan silla;
esaten digu arrotu gabe
izan dedilla umilla,
iltzen geranén etor dedilla
gure animaren billa,
besterik ez det nik deseatzan,
ala gertatu dedilla.

22/ Galbarioko tormentuakin
egon liteke arritzen,
iñor ez al da atrebituko
Pasiorikan berritzen;
gugatik Jesus nola egon zan
bere odola isurtzen,
bere Aitari barkazioa
guziogatik eskatzen,
ori gogoan eduki zugun
deskuidatu ez gaitezen.

24/ Aita Aizpuru'n enkargu oiek
ala ditugu beteko,
berriz bizio gaiztoetara
iñor ez al da jetxiko;
agindu digu proposituak
oso firmeak artzeko,
il arteraño mudatu gabe
oiek zintzo gordetzeko,
zeruetako erreinoan gero
alkarrekin egoteko.

Irakurlea oartuko zanez, bertsoen lumeroak ez daude segiran. Tarteetan, kopiatutako oiek jarri bear dira, ta orden ontan jarri ere: 1, 2, 3, 11, 12, 8, 10, 18, 16 ta 19.

(1915)

BERTSO BERRIAK
AITA SAN INAZIO LOIOLA'KOAREN
BIZITZAREN GAÑEAN
FRANZISKO ITURZAETA'K JARRIAK

Iturzaeta'k, beraren seme-alabak esan didatenez, lagun asko zuan jesuitetan. Mezetan da abar, askotan izaten zan Loiola'n. Baita bazkaritan ere.

Orrenbesterekin esana dago nundik bildu zituan argibide ta esakizun guziak, San Inazioren bizitzari buruz berrogei ta amazazpi bertso auek jartzeko.

Loiola'n bazkaritan zan batean gertatua, askotan kontatzen zuan. Jesuita batek esan omen zuan:

—Jesukristok urarekin ardo egin zuan.

Ta an zan beste batek onela erantzun zion:

—Ala gaizki! Ondorengoak sobre ikasi zioten.

San Inazioren bertso auek, «*Azpeitiyan — Martinez anaiyen moldiztegiyan*»

argitaldu ziran, eta bertso-paper ori Gorostieta'n bertan jaso genduan.

Aia'ko artzai batek bertso oiek Gorostieta'n jaso, bere errira eramane ta Lasarte bertsolariari erakutsi zizkion. Onek ala esan omen zuan irakurritakoan:

—Oiek baño obeak eztago jartzetik!

Doñua, bost puntoko bertsoetan kantatzen dana.

1/ Milla bete ta beratzi eun
amabostgarren urtian,
pasa diranak Jesus jaio ta
oneraño bitartian;
ejenplo on bat publika dediñ
urrian da apartian,
bertso batzuek jartzera nua
Gipuzkoa'ko partian,
gusto duenak kantatu ditzan
euskaldunaren artian.

2/ Inazioren bertso berriyak
sortu ditezen nigandik,
orretarako laguntasuna
espero det beregandik,
nolakua zan are geiago
zabaldu dedin oraindik,
zenbateraño saiatu eta
ura juañ zan emendik,
biar deguna alkantzatzera
Aita Zerukuagandik.

3/ Adoratuba euki dezagun
Inazioren izena,
lagundu dezan ondo argitzen
esaten asi naizena,
mundu onetan nola zan bera
justuba eta zuzena,
Jesukristoren dotriña eder au
zabaltzen ibilli zena,
fede santuba amentatzera
etorritako gizona.

4/ Gizon santu ta gloriosua,
milagruaren jabisia,
oraiñ eta len asko egiña,
aundi kaburik gabia,
desegindu ta zapaldu zuen
munduko libertadia,
indartu eta oso zabaldu
Jesukristoren fedia,
au da Jesusen Konpañiaren
lenengo fundadoria.

5/ Eman biar det Inazioren
asipenaren berriya,
Azpeitiya da ura jaio ta
konserbatu zan erriya;
aita zuala bere fondotik
bertakoxe jatorriya,
gañera berriz ama izanik
Azkoiti'tik etorriya,
oietatikan sortu zitzaigun
gizon estimagarriya.

6/ Milla lareun larogei ta amaika-
garren urtian jayua,
Azpeitiya'ko ponte santuan
artu zuan batayua,
orreatikan izan zediyen (1)
okerren erremeyua,
Jesusek eta biyek egiñik
alkarrekin uniyua,
obra onakin santu egin da
zeruetara iyua.

7/ Inazioren liburu ori
asi naiz irakorritzen,
an ikasiko bagendu ondo
egon litake arritzen;
nola dijoan gelditu gabe
beti urtiak korritzen,
gauza on danak aztutzen dira
ezpaditugu berritzen,
orreatikan ekin diyogu
berari zerbait jarraitzen.

8/ Ditxa aundiko seme justu bat
arkitu zan Azpeiti'ra,
ori dalako erri abetan
grazia aundiyak dira;
imajiña bat jarriya dauka
igual bere tokira,
prozesiyuan egiten digu
jaiotetxetikan jira,
jende guztiya santifikatzen
bera zerutik begira.

(1) Bertso-paperean: *setiyen*.

- 9/ Pentsa dezagun ze oponiyo
aundiya duen gugana,
gogua ala artu dezagun
geuk ere berarengana;
bizi zan arte ejenplo txarra
apenas zigun emana,
edozeñ moduz guri largata
ez da emendik juana,
Loiola'ko obra eder ori
señale utzi zuana.
- 10/ Orren izate milagrosua
bizitzan eta atzenaz,
munduban asko aundiyagorik
egindakorik apenas,
adiyazterik daguanikan (2)
ez deizkiyot esanaz
gaztetasuna pasa zuela
pitin bat lasai izanaz,
biyotz guztia urtu zitzaion
gero negarrez ta penaz.
- 11/ Gizon ona ta leiala degu
ori Euskalerrikua,
gure Jesusen Konpañiyaren
relijiyo berrikua,
pausua pranko egin zuena
modu penagarrikua;
bere ordena ark bete zuen
tokatzen zan neurrikua,
pekatariakgatik beti da
kariño izugarrikua.

(2) Bertso-paperean: *aiyazterik*.

12/ Orren bizitza nolakua zan
iñork nai badu aditu,
ejenplo eta liburu asko
argiratubak baditu;
bere garaia allegatzian
gerrara ziyon segitu,
nun Pamplona'ko gaztelu artan
ura egin zan eritu
geroztikako milagro oiek
ortik ziran ugaritu.

13/ Izeba batek eramana zan
gaztetan bere etxera,
gero andikan erregegana
pajetzia serbitzera;
militarraren esturiyua
saiatu zan ikasitzera,
andik urrena gerrara segi
lagunak defenditzera,
baliak jota nun erortzen dan
iya illaren antzera.

14/ Bertantxe ilko ote zitzaien
egon ziran bildurturik,
artian iñork etzekiyen
arren berri zierturik;
gure Jainkuak aren pausuak
zeduzkan ondo neurturik,
oneratutzen asi zanian,
litera baten arturik,
ekarri eta ipiñi zuten
beraren gelan sarturik.

- 15/ Deskalabruak arrapatzian
asko egin zan penatu,
berna-ezur bat oso puskatu,
bestia ere banatu;
penitentziko asieria
ortikan bereganatu,
Jesusek bere Konpañi ori
orrekin zezan fundatu,
zerubetatik etorri eta
San Pedrok zuen sendatu.
- 16/ Loiola'ko goiko kapillan
erdiko aldarian gela;
gertau zitzaion arrats batian,
oraziyuan zeuala,
Ama Birjiña bertara etorri,
Jesus besuetan zuela;
irurak antxe fundatu zuen
Ordenako erregela;
indartutzera egin zanian
ekin zion beriala.
- 17/ Gau artan an ze pasatu zan
nai nuke adierazi:
Inazioren anima ori
diabruak nai erosi;
bazekiyen puntuban nola
agindu ziyon Jesusi
ots aundi batez arriyak eta
kristelak zizkiyon ausi;
etxe guziya diardatuta
etsaia juan zan igesi.

18/ Lendabiziko erteeria
Arantzazu'ra emendik,
Ama Birjiñak bedeinkatuta
Monserrat'eraño andik;
konfesatuta, komulgatuta,
egin zuan obra onik,
gau bat osua penitentziyan
malko-tantoka egonik,
bere biotza nobleza aundiyan
Jesukristori emanik.

19/ Andik urrengo mogimentuba
Manresa aldera asi zan,
pobretxo bati lena emanda,
bera berriro jantzi zan;
kalabaza ta zaku ta kate
penitentiaren gisan,
orren ordena leku batian
egotekua ez izan
Manresa artara allegatzian
an puxka baten bizi zan.

20/ Alimentuba uda printzipal,
ogiya ere urririk,
anka eriyen zapatatxo bat,
bestia oso gorririk;
bire galantik pasatu zuen
bere oñakin korririk,
aberastasun danak utzi ta
disziplinatzen jarririk,
gizonarentzat pauso oietan
ez al da penagarririk?

- 21/ Manresa ortan jarri danian,
limosna biltzen ekin du;
ospitaleko pobre gaixuak
nai zituzkian mantendu,
triste zeudenak kontsolatuta
garbitu edo apaindu;
aietatik bat egiña zeuen
ustel zorna ta zikindu,
bere mingañez txupatu eta
askotan zuen txukundu.
- 22/ Denborale bat orrela pasa
aldameneko kuebara,
bere karrera nola zijuan
ikusteko pruebara;
Jesukristo ta Ama Birjiña
juaten zitzaizkiyon ara;
aiek aldegin orduko berriz
diabru zarra bertara,
izugarrizko antsi estubak
egiten zizkan etara.
- 23/ Jesukristo ta Ama Birjiñak
sarri zuen bisitatzen,
aiek aldegiñ orduko beti
segi etsaiak tentatzen;
zeramazkiyen tormentubakiñ
etzan errez aguantatzen,
oso estutu eta lurrera
askotan zuen botatzen,
Jesus justuba bezela, bera
etzuelako maitatzen.

24/ Gaitz gogor batek kueban artuta
komentu baten jarri zan,
sendatutzian meza entzuten
Inazio an elizan;
ogi ta ardo, gorputz ta anima,
ostiya eta kalizan,
sazerdotiak konsagratzian
Kristo bizirik jeiki zan,
ikusi zezan misteriyo au
zeña klaru ta garbi zan.

25/ Manresa'tikan Barcelona'tik
martxa ondo eramateko,
Erroma ortara allegatu zan
amabot aldi bateko;
ango elizak bisitatuta
promesak bete arteko,
jaun aundi aiek prestu zeuden
bier zana emateko,
Aita Santubak bendeziyatu
Jerusalen'a juateko.

26/ Erromati'kan Venecia'ra
biaje luzian oñez,
txutik ezin da sarri erori
argaltasunez ta miñez;
«Komeni bada, altza nazazu!»
Jesusena ots egiñez,
ostaturik ez iñork eman nai,
kanpuetan lo egiñez,
zenbateraño penatuba zan
Jainkuak bestek jakiñ ez.

- 27/ Jerusalemen bistatutzian
erregutzen ekinikan,
Jaungoikoari negarrez eta
lastimaz itzeginikan,
bere buruba auspeztu eta
lurrari mun-eginikan,
bi begiyetan iturri bana
malkozkuak eginikan...
ura ala ta geren artian
guk ez al degu minikan?
- 28/ Ondo ikusirik Jerusalem da
Olibet mendi altuba,
bere pausuak ikasitzera
Jesusek inguratuba;
relijua mejoratzeko
nola zan munduratuba,
jakinduriyaz bentzutu zezan
etsaiakiko autuba,
erakutsirik Kalbariyo ta
ill zan Gurutze Santuba.
- 29/ Jerusalem'dik Veneciya'tik
Barcelona'ra etorri,
obra onari akuditubaz
estudiyuan zan jarri;
moja-komentu lasai batian
saiu zan ikaragarri;
zenbat anima konbertituta
Jesusengana ekarri;
bi gizon gaiztok makillatuta
bera egondu zan larri.

30/ Barcelona'tik Alcalá ortara
artu zuen pasariza,
estudiyo ta fediarekin
zerabilen ojadiza;
andik urrena Salamanca'ri
eman diyo errebisa,
relijuan gogor egiñaz
komentu eta eleiza,
Teolojiya ikasitzera
allegatu zan Paris'a.

31/ Paris orretan ikasi zuen
Teolojiko karrera,
ala biar da Jesusek eman
Azpeiti'rako jarrera;
eun da ogei ta amar legua
oñez bere etorrera,
emen jendiak egiñ nai zion
lujo aundiko arrera,
baña Inaziok pobre ta umil
emana zuen sarrera.

32/ Azpeiti'ko Madalena da
erriyaren egalian,
Inazio an pobriarekin
jarri zan ospitalian;
aiantzako limosna biltzen
laster asi zan kalian,
obra ona ta karidadia
ark beti eginalian,
arren etxetik limosna onak
oaiñ ere jeneralian.

- 33/ Misericordi-Ospitel ori
ark fundatuba lenbizi,
eta gañera konserba zediñ
ordenak ipiñi-azi;
bide ederrak jarri zizkigun
nai baditugu ikasi,
erri abetan egiña digu
zenbat mesede ta grazi,
atentziyua edukitzerik
oraiñ ez al du merezi?
- 34/ Senide eta parientiak
gutzizko sentimentuba
Madalena ortan edukitzia
bere alojamentuba;
Jainkua nundik serbituko zan
ark bere mandamentuba,
sinplementian okertu etzedin
bere ordenamentuba,
beiñ jua zan eitiagatik
etxe kuen kontentuba.
- 35/ Belaunikoka erreguturik
zuten eramana-azorik,
gau batian juntatu ziran
pameli dana osorik;
Inazio orrek zeru-platikari
segituban erasorik,
mundu ontako zorakeiari
ez egiteko kasorik,
alkarrekin or egiña zuten
aiñ negar lastimosorik.

36/ Azpeiti ontan eman zituben
misiyo arrigarriyak,
jendez beterik kale guztiyak,
plazak eta erriyak;
bertakua ta elementuak
urrutitik etorriyak,
danak sendatu gaitz-dunak eta
eri edo elbarriyak,
atzenerako egin zituben
milagro izugarriyak.

37/ Predikatutzen asi omen zan
amar mandamentubakiñ,
akordatuta damutu zediñ
nor bere biziyuakiñ;
ezagaturik parte artuba
zeuala zerubarekiñ,
berarengana umildurikan
zuana zuenarekiñ,
millaka askuak negar egiñaz
konbertitubak arekiñ.

38/ Jende danari agur eginda
emendik Valenciya'ra,
eginkizunak kunplitu eta
andikan Italia'ra;
Abenido'tik Bolonia'tik
juan zan Veneziya'ra,
meza santuba an zelebratu,
gero andik Erroma'ra,
bere Ordena konfirmatzeko
persekuziyuetara.

- 39/ Ordena ori konfirmatutzen
etzan entero erreza,
iru Kardenal kontra ertenda
bazan naiko aldrebesa;
estremo ortan Jesusi ofre-
zitu iru milla meza,
bere erara konberti zedin
gizon aien primeza,
au da Inaziok Erroma ortan
kunplitu zuen promesa.
- 40/ Kardenal aiek Jaungoikoaren
milagroak konbertitubak,
jarri ziraden Inaziori
ziaro obedituak;
Ordena ori konfirmatuta
erabakirik autubak,
danen partetik bendeziyua
eman zun Aita Santubak,
orrekiñ ondo ordenatzeko
mundubaren lau puntubak.
- 41/ Orren kontubak aitortzen ditut
jendiak aditu ditzan,
mundu onetan etsai gaiztuak
arroturikan zebiltzan;
ori Jesusek ipiñi zigun
mendian eduki zitzan,
jendia pranko bire onera
sarturik bere bizitzan,
irurogei ta bost urtekua
Erroma orretan il zan.

42/ Zoragarriyak enterratze ta
Erroma'ko eriyotza,
aditzen zala aingerubaren
zeruko musika-otsa;
kantatzen zuten Jainkuaren da
Inazioren alabantza,
izar ederrez estali eta
eduki zuten gorputza,
jaiotetxera ekarri zuten
esku bateko bietza.

43/ Orren milagro asko ta onak
dauzkagu irakorriak,
zeñen birtute aundikua dan
gaude ondo igerriak;
jaiotetxian para izan ditu
zerubetako argiak,
nola diran gu pertsegitutzen
gaitz-klase asko jarriak,
San Inaziok sortutzen ditu
guztiyon sendagarriak.

44/ Ejenplo ederrak jarri zizkigun
guk nai baditugu letu,
obra onetan enpliatzeko
bazuan zenbait talentu;
aren partetik zenbat egin dan
eliza eta konbentu,
bategandikan nola egin leike
argandik aña aumentu?
ura alakua sortu zalako
izan giñezke kontentu.

- 45/ Espirituba eman ziyoten,
ezin liteke duratu,
lengo klasetik penitentzira
egin zanian muratu;
bere bizitza zertarako zan
orduban zan konturatu,
persegitiba izanagatik
iñork etzuen jiratu,
ori nolako gizona degun
obratara begiratu.
- 46/ Señalerikan segurubena
emen danetan obria,
zeiñ nolakua ezagutzeko
zer degu gauza obia?
Agindu arren egite'ez bada
gelditutzen da pobria,
emanagatik gauza askori
itxura edo lonbria,
San Inaziok daukan bezela
eiten duanak ondria.
- 47/ Zein biretatik onena zuen
arturik abertentziya,
guk bezelaxe izanagatik
tentatutzeko etsaya,
Jesusengana oso jarrita
emana ziyon etsiya,
mundu ontako aitzekiyari
oso zeuala utziya,
au dana baño naio zuala
geroko segurantziya.

48/ Tentaziyuak pertsegituba
oso izan zan munduban,
andik zekiyen gero guk ere
nola izango genduban;
relijio au para nai zigun
gu ez galtzeko moduban,
geren etsaiak euki ditzagun
tokatzen zaien graduban,
bestela nundik konserbatu gu
biar degun estaduban?

49/ Parte artubak egon gaitezen
beraren ondasunian,
anparatzalle izan dezagun
geren estuasunian;
lenago ere jarri giñuzen
albait bire zuzenian,
gugatik zenbat enpeñatu zan
emen ibilli zenian,
guk ez al degu saiatu biar
Jainkuaren izenian?

50/ Ejenpluaren liburu ori
jardun naiz erreparatzen,
gugatik nola segiko duen
berak digu deklaritzen;
tentaziuak ibilli arren
guri biriak trabatzen,
San Inaziok bere eskutik
eztakiyela lagatzen,
nere kristauak, saia gaitezen
au biterteko paratzen.

- 51/ Nik pentsatzen det kasi onena
au degula bitarteko,
zuzen da ondo eskau ezkerro
konforme dago jarteko;
bide txarrian baldin bagabiltz
zuzenera ekarteko,
gure Jainkuak esleituta
daduzkan aña urteko, (3)
bera dagan erriñu artara
betiko jua arteko.
- 52/ Orrenganako artu dezagun
guztiyok deboziyua,
ondo kunplitzen lagundu deigun
geren obligaziyua;
egunian bein gutxiyenaz
berari oraziyua,
gure tokiyan Jaunari egin (4)
deion adoraziyua,
komeni bada alkantza dezan
guztiyon salbaziyua.
- 53/ Dudarik gabe betia dago
guretzako amoriyoz,
tentaziyan erori arren
argalak geran meriyoz ;
mesede aundiyak egiten dizku
graziyaeren poderiyoz,
laguntasuna eska deiogun
umiltasun ta seriyoz,
gaitz danetatik libratu gaitzan
beraren erremeriyoz.

(3) Bertso-paperean: *dauzkan*.

(4) Bertso-paperean: *tokiya*.

- 54/ Zeñek juzgatu zenbat mesere egiten digun ark guri? nekatu eta ikasi zuen ainbeste jakinduri; zerubetara sartuba badu orrek jendia ugari, len emen eta oraiñ andikan laguntzen mundukuari, zenbat animak ongi etorri egiten diyoten ari?
- 55/ Jaungoikuari etzaio azten Inazioren pausorik, Berekiñ dauka zerubetako gloriyetara jasorik; relijiyoan zebillen arte ein ziyon obra gozorik, (5) munduban gutxi izandu dira au beziñ milagrosorik, argatik dago jaiotetxia atal da guzi osorik.
- 56/ Nere kristaubak, segi deiogun Inazioren antzian, salbazioko bide oberik ez degu osteuntzian; ikaraturik gelditzen naiz ni ejenplo abek letzian, denbora pasa gaudenian bakoitza bere etxian, (6) liburu bana biar genduke familiya bakoitzian.

(5) Bertso-paperean: *egin*.

(6) Bertso-paperean: *bakoitzak*.

57/ Bertso berriyen errematia
ejenplo santu orretan,
al dan guztiya eginda ere
gelditutzen naiz zorretan;
eskola gabe deskuidatzen
errez da erozerretan,
arrazoiak ondo neurtubaz
begiratu emen bertan,
Iturzaeta'k zuzendu nai du
faltatu badu ezertan.

Jabia badu

(1915)
 FRANZISKO ITURZAETA'K
 AZPEITI'KO MIXIYUARI JARRITAKO
 BERTSO EDO ITZ NEURTU
 BERRIAK (1)

Jaun-goi-ku-ak ja-rr-i-yak a-marr a-gin-ti-
 -ak, be-gi-ra o-te dau-den aĩn on-do be-ti-
 -ak; as-koba-li-yo-ko du on-do ja-ki-ti-ak, e-
 -to-rr-i ez-ti-te-zen ge-ro-ko kal-ti-ak, da-
 -nok ze-ru-ra gai-tzan Jaun-goi-ko mai-ti-ak.
 Onela
 ere
 bai:
 e-to-rr-i ez-ti-te-zen ge-... .. Jaun-
 goi-ko mai-ti-ak.

(1) Doñua, Iturzaeta'ren alaba Justak kantatu ta Donostia'ko Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik paperera itzulia da.

1/ Esplikaziotxo bat
egiñ biet kantuz,
len triste negoana
jarri naiz kontentuz;
nere itz eta obraz
eta pentsamentuz,
Jaungoikuak eman eta
daukantan talentuz,
nik zer esaten dedan
entenditu kontuz.

2/ Espiritu Santuba,
lendabizikotik,
erregututzen dizut
nik zuri gogotik:
esplikazio on bat
neronen aotik
Mixiyuen bitartez
egitia-atik,
nola azaltzen zeran
mundura gugatik.

3/ Milla beratziareun ta
amabostgarrena,
urte orretan Jesus
agertu aurrena;
Seme egiazkua
Jaungoikoarena,
alako kariñua
izanik gerena,
gugatik pasa zuan
ainbeste pena.

4/ Biba Parroko jauna
bere lagunakiñ,
zenbat on egin duan
Jaungoikoak jakiñ;
obra onak egiten
sustanziaz ekiñ,
baliyatu gaitian
gu mixiyuakiñ,
Jainkuak batu gaitzan
guztiok berekiñ.

5/ Biba alkatia ta
autoridadia,
nola forma liteke
justizi obia?
gizon ondrauak eta
leialak badia,
guri erakutsitzen
biar dan legia,
ori da kristaduen
formalidadia.

6/ Gure Aita Aizpuru
eta Laskibbarri
bertso berri batzuek
biaizkiet jarri;
guri erakustera
zaizkigu etorri,
nola bizi biar dan
esan debe sarri,
erakustzalle onak
dira izugarri.

7/ Biba mixionero
erritar maitiak,
poz aundiya eman dit
oiek etortiak;
jakinduriyaz eta
graziyaz betiak,
ez ditu ikaratzen
lana egitiak,
zabaldutziagatik
zeruko atiak.

8/ Garizuma Santuban
mixiyuak asten,
Aizpuru ta Laskibar
guri erakusten;
oien ejenpluakiñ
ez bagera pozten,
gero zer datorkigun
ez degu ikusten,
ez degu saiatu nai
zerua irabazten!

9/ Erreparatzen dute
Ebanjeliyotik,
zer kondiziyo dauden
Jesusen legetik;
bai predikatu ere
gañera gogotik,
ateratzen gaituzte
gu ere dudatik,
zer egiñ biar degun
animiagatik.

10/ Nola saiatu biar degun
geren animakiñ,
esan digube ondo
nai badegu jakiñ;
len ez dakiyenak
segituban ekiñ,
ez dago libratzerik
aitzakiyarekiñ,
oien faltarik ez da
nai dubenak egiñ.

11/ Oiek saiatzen dira
gugatik benetan,
relijiorako
biar dan lanetan;
alperrik egotia
da gero penetan,
konbertitu ez danak
oraingo onetan
badute lanik asko
beren animetan.

12/ Lenbizikotik jarri
zeben fundamena,
zer klasetakua zan
beraren ordena;
ondo esamiñatzia
lenbizi onena,
damu egiazkua
bere kulparena,
au da oien legiak
eskatzen dubena.

13/ Jaungoikuak jarriyak
amar agintiak,
begira daduzkagun (2)
oiñ ondo betiak;
nundik izan ditugun
guk utsegitiak,
asko baliyoko du
ondo jakitiak,
etorri ez ditezen
geroko kaltiak.

14/ Bera serbitutzia
lendabizikua,
para zigun karguba
bizi guzikua;
gu abandonatzera
ura eztijua,
egiten badegu ark
agindutakua,
pagatzalle zuzena
degu Jaungoikua.

15/ Bigarrengo onetan
ondo begiratu,
ia egiñ ote dan
iñoiz juramentu;
premiyarikan gabe (3)
beti da pekatu,
Jaungoikuak argatik
zuban debekatu,
egunen baten zorrotz
artuko du kontu.

(2) Bertso-paperean: *dauzkagun*.

(3) Bertso-paperean: *premiyarekin gabe*.

16/ Errepara dezagun
irugarrenian,
jaia santifikatu
biar degunian;
meza zuzen entzun da
deskantsu onian,
premiyarikan gabe
ez jardun lanian,
Jainkuaren eguna
tokatzen danian.

17/ Ze kondiziyo dauzkan
oraiñ laugarrenak,
errepara dezala
premiya duanak;
errespetatu ditzan
aita eta amak,
ia eman zaizkiyen
ondrak eta famak,
oso zuzen egiñak
ote dauden danak.

18/ Bostgarrenian degu
iñor ez illtzia,
begira moztu degun
geron bizitzia;
obraz edo desioz
iñor ez galtzia,
askoz obeko degu
zuzen ibiltzia,
alkantzatu dezagun
zeruko giltzia.

- 19/ Seigarrengo onetan
egin zangun kaso,
premiyazkuak asko
bagaude akaso;
kulparik ez duanak
ez penarik jaso,
inozentiak gutxi
adbertitu-azo,
gauza peligrosuak
diralako oso.
- 20/ Errepara deiogun
zazpigarrenari,
onek ere badauka
kakua ugari;
tiraka ari gera
gu projimuari,
ezer kendutzerikan
ez genduke nari,
zuzendutzen gaiztua
dago gauza ori.
- 21/ Zortzigarrengo au da
ikaratzekua,
erortzen dan edo ez
kargu artzekua;
zenbait persona bada
mingaiñ beltzekua,
projimuaren fama
oso galtzekua,
inpernuko etsaien
beren antzekua.

- 22/ Beratzigarrena ta
amargarrengua,
bestietan esana
dago emengua;
bekatuaren mantxa
degu lengua,
gu erortzia ere
ez da lenengua,
gaitza geienak degu
nun edo angua.
- 23/ Ondo errepasatu,
bai, mandamentuak,
garbi ateratzeko
onela kontuak;
esamiña ditzagun
geren pekatuak,
gelditu ez gaitezen
etsaiak lotuak,
asko estima gaitzan
Jaungoiko Santuak.
- 24/ Lenbizi esamiña,
gero doloria,
onetan gogotikan
astia obia,
ondo garbitu dediñ
lengo koloria,
Jainkuak eman dezan
bere baloria,
aprobetxa dezagun
zeruko loria.

- 25/ Propositua ona
biar degu artu,
geiago pekaturik
ez dakigun sortu;
Jesusen konpañian
nai badegu sartu,
egindako okerrak
ziaro aitortu,
berak salbauko gaitu
ziertu-ziertu.
- 26/ Orain konfesiya
biar gera jua,
esamiñatu eta
arturik goguan;
ze kostumbre modutan
dabilen munduan,
zein mandamentutatik
utsegiten duan,
danak aitortutzeko
Jaunaren onduan.
- 27/ Ondo goguan artu
aren leziyua,
zuzen pagatutzeko
obligaziya;
Jaungoikuak gurekin
badu juiziya,
berengan artutzen du
gure soziya,
orduban jartzen zaigu
satisfaziya.

- 28/ Gure kontzientziyan
ez utzi zakarrik,
berriz gure biotza
zulatzeko arrik;
errezibitzen dala
Jainkua bakarrik,
gertatu ez dediyen
gurekiñ okerrik,
konfesiyo au izan
ez dediñ alperrik.
- 29/ Orain komulgatuta
eskerrak Jaunari,
ondo begiratubaz
ein digun onari;
iñork berdintzerikan
ez daukagu ori,
erregutu bertatik
gogotik berari,
geiago pekatuan
ez dediñ erori.
- 30/ Ogei ta amar bertsoan
nik errematia,
komeni baldin bada
ondo ematia;
Ama Birjiña degu
geron amantia,
zerubetan dagona (4)
graziyaz betia,
alkanzatu deigula
ara juatia! (5)

(4) Bertso-paperean: *dagon*.

(5) Bertso-papera, "Azpeitia — Imp. Martínez hermanos.", Azpeitia'ko Fidel Uria apaiza zanaren paperetan arkitua.

(1916)

BERTSO BERRIAK
BEREN BURUAK AUNDI EGIN NAI
IZAN DITUZTENARI JARRIAK

Errezil'ko Zubitxo baserriko Marzelino ta Aizarna'ko Aistin baserriko Klaudio, burruka-desapioa egin zioten alkarri, ta eguna ta lekua ere señalatu zituzten. Lekua, Etumeta ondoko Satzeta zelaia zuten.

Bañan, eguna etorri baño len, Aizarna'ko Klaudio ori erronkaz-edo jardun omen zan, ta zer zerabilkiten apaizen eta mikeleteen belarritararño eldu zan. Ta burrukan egitea debekatuta baitzegoan, Klaudio ez bañan mikeleteak-edo azaldu ziran burruka-lekura.

Orregatik esaten du 12'garren bertsoak:

Funtzio ontarako
dute ekarria
guri errespetua
nork ezarria;
ura beraren kasa
ezta etorria...

Orduan, Errezil'ko Marzelinoren sozie-

dadekoak bertsoak jarri bear zirala pentsatu zuten. Iru bertsolariri egin zieten eskabide ori: Azpeitia'ko Benta baserriko Emeterio ta Pedro Alberdi anaiai eta Iturzaeta'ri.

Gero, danen bertsoak irakurri ondoren, Iturzaeta'renak berezi zituzten, obeak zirala iritzita. Ta moldiztegiara eramana ta bertso-paperetan atera zituzten.

Berri aukeratu Iturzaeta'ren seme-alabak esanda jakin ditugu. Etxerian oroitzen lehenengo bertsoaren iru puntuz baizik. Banaia naikoa izan da ori, bertso-papera bereizteko.

Egilearen izenik gabe dago, Errenteria'n Joakin Ganborena Zabala'ren eskuetik jaso genduan, eta bukaeran, firma bezela, «*Marzelino — Francia*» jartzen du.

Errezil'ko Marzelino ori Bidasoa'z beste aldean izaten omen zan. Ta onera etortzen zanean, frantsesa esaten zioten.

Aizarna'ko Klaudio ori oso xelebrea omen zan. Pago-punta batera igo ta bera bakarrik mendi batetik bestera eupaka ta ojuka jardun izan omen zan bein bano geiagotan.

Gaur egunean illak dira bi burrukalaria.

1/ Milla beatzireun da
urte amaseia,
Ilbeltzaren bikua
da notizia,
bertsuak ipintzeko
naizela asia,
Jaunak ematen badit
bietan grazia;
jarri klarezia,
gauza merezia,
askok ikusia
asunto guzia,
arrazoirik gabeko
aguezia.

2/ Bertsuak ipintzera
obligatu naute,
zer motibo dan askok
jakin biaute:
burruka-prueba bat
da meriante,
utsa tajuz probatzen
utzi baligute;
daudenak arlote
keja jarri dute,
temaz baliente,
esanik ez bete;
meriyo izan ez ta
nai alkate.

3/ Errezill'ko semia,
ni naiz Marzelino,
Zubitxo'n bizi izen
naiz oraindano;
Aistin'go mutill orrek
nê kontra enpao,
ez nintzan mintzatuko
bestela alano;
zenbat gaizki eino,
nik orduan miño,
ark asko inkriño,
nik ere trajiño;
erronka jotzen geio
ori ni baño.

4/ Iñor markatzen ez du
kasikan kupira,
talentusu bat balitz
utsa sikira:
«Burrukai gauza dan bat
Zubitxo ortan baira,
probatutzera erten
Satzeta zelaira,
irutatik bira
zein jua azpira.»
Esan zan tokira
nik egin det jira;
oriek jaun da guzti
juntatu dira.

5/ Arrazoiak emango
dizkitzutet kantaz,
etzabiltzelako
biar dan plantaz:
zuek beziñ azkar nauk
buruz edo ankaz,
ez izenagatikan
zabaleko markaz;
or abill erronkaz
arrotuta bokaz,
bestela ez aiz kapaz
burrukeko epokaz,
naiz bota utsian da
naiz mutur jokaz.

6/ Gizon formalak eztik
orlako biarrik,
ez erronkarikan jo
ezpada indarrik;
apenas dadukakan
fuerza gogorrik,
etziak ezegatik
jo-aziko lurrik;
ez aiz nere urrik,
eztaukak adurrik
mingaña bakarrik
ta bera alferrik;
aspaldin eztit euki
ire bildurrik.

7/ Oraindik etzaudete
oso formalduak,
itzetan da obretan
igualduak;
zeron buruak zeok
izanik galduak,
zertako erronka jo
gizon makalduak?
zeñek zapalduak
baituk azalduak;
gorputz zabalduak,
soñuz ugalduek,
billatuko nizkian
nundik elduek.

8/ Gorputzez leen baiño
kasik margalago,
inderrez nai baiño
aiz argalago;
ibiltzen asi ari
piskat formalago,
baita gobernatu're
pitin bat galago;
erronkai lagago,
betik zabal bago
autik zabalago,
zeiñ igualago;
soñua jo ta beti
libre al ago?

9/ Fuerza juntatu dek
besteren da ere,
baldarra aizalarik
nai dek dotore;
oinguan azaldu dek
ainbeste kolore,
eurekin eztadukak
nai ainbat balore;
lagun da abare,
atso ta agure,
beorren fabore
batzuek badaure;
teman asi ezkeru
zaille nauk neu're.

10/ Apaizetan egin du
lenengo pasara,
atsuak erregaloz
juan ziran ara;
nik obeditutzia
biautela bara,
alferrik egin dute
ango bueltara;
zeñek onetara
egitiñ gaitu para?
saiu da setara,
eze'ezin etara;
besterik eztanian
jaun oietara.

11/ Bezperan esatia
zan gauza pijua:
«Burruka orretara
ni ez nijua,
damutu egiñ zetak
soñu asko jua,
alkarri barkaiogun
oraindaiñokua.»
Orra apukua
giza-legekua,
baiñan mutikua
laun billa dijua;
a aben txiki arro
aundi-naikua!

12/ Funtzio ontarako
dute ekarria
guri errespetua
nork ezarria;
ura beraren kasa
ezta etorria,
zuzendutzera orko
jende biurria;
i gizon urria,
soziyo sarria,
ordena berria
al daukak jarria?
gixaixo inozente
parregarria!

13/ Gauza ez izenarren
eori bakarra,
bildurtu nai ukian
Errezilltarra;
obeto erain diok
jentiari farra,
etzaitzaku azaldu
burrukari txarra;
bildurti samarra
eiteko kamarra,
kanpotik indarra
dakark arra-arra;
berriz izango dek ik
oien biarra!

14/ Egiya dan guztia
ez degu esan bêt,
temak artu ez dezan
geiegi inder;
okultuan daudenak
egon bitez eder,
epoka'anian galdu
ez dezagun aber;
ez gaudenak alper
asten gera laster;
geuk libre erozer,
iñontzat ez ezer,
besterik zuzendute
geuk segi oker!

15/ Diferentzia dago
munduan gizonez,
nola kunplitzen degun
eginkizunez;
zeiñ ezkeran ibiltzen
arrasto zuzenez
jendiak ondo daki,
ikusitzen danez;
askok al degunez
iñongandik janez,
borondate onez
naiz iñork eman ez;
gaizto asko jartzen da
onan izenez.

16/ Jentia jarri nai det
zerbait abertentziz,
iñor ikasitzeko
badago antziz;
gauzari begiratu
ondo esperentziz,
kulpante asko gaude
gaur nere iritziz;
geu gere lizentziz
gustatutzen guziz,
besteri ez utziz,
orra diferentziz;
oker asko jazten da
zuzenen jantziz!

17/ Zuzentasun guztiak
dirala gastatu,
au ezin gantzakegu
manifestatu;
geren okerrak gorde
al dana ezkutu,
onaren izenian (1)
nai degu gaiztotu;
besterik estutu,
ordenak justutu,
nundik ze eskatu
memoria askatu;
zuzena nor dan bada
zeñek juzgatu!

18/ Begiratu biar zaio
makiña bat gauzi,
batzuek nai ez arren
temarik ausi;
geiegi eskaitian
eskandaloz josi,
batzuak morroi gaude
ta bestiak nausi;
bajuak nai ezi,
danok biar bizi,
zeiñ dauen itxusi
askok du ikusi;
akordatuak gaude
zer dan merezi.

(1) Bertso-paperean: *izanian*.

19/ Errezetikan gaude
askotxo poztuak,
eziñ izenarekin
gaude moztuak;
orregatik gelditzen
gera menostuak,
bestela intentziaz
ez gaude aztuak;
zenbaiten juzkuak
ez dira justuak,
eindako gastuak
pagatzen aztuak;
eskerrik-askorekin
daude enpazuak.

20/ Oiek azioz da gu
kantuz deskantsatu,
geiegi eztitzagun
geuk ofentsatu;
gaiztuak izan arren
bada nork zentzatu,
azkar samarrak ere
oi dira mantsotu;
nun zer alkantzatu,
buruba kantsatu;
nora balantzatu
aurretik pentsatu,
jakin zagun atzia
nola dantzatu.

21/ Orra bertso berriak
nik errematian,
nere pasadizuen
berri ematian,
inozente daudenak
aberti ditian,
erremeia dezagun
oker egitian;
guztiok pakian
ia litakian,
juizio betian
egunen batian
nekez bada ere danok
sartu gaitian.

Marzelino — Frantzia.

(1916)

BERTSO BERRIAK
FRANZISKO ITURZAETA'K
LOIOLA'KO FUNTZIOEN GAÑIAN
JARRIAK

- 1/ Esplikatzia desiaturik
naguan bertso berriak,
konsagrazio beraren onran
izan ditzadan jarriak; (1)
nola Loiola'n egin diraden
funtzio izugarriak,
oietatikan probetxu onak (2)
ditzagula ekarriak,
biba Jesus ta bera serbitu
nai degun euskal erriak!
- 2/ Milla bete ta beratzireun da
amaseigarren urtia,
gertatu zala Jesus mundura
zerutikan etortia;
gure animak salbatutziak
nola duen inportia,
obia degu gauza ori ondo
konsideratzen jartia,
kristau guztiak euki dezagun
beraren fede puertia.

(1) Bertso-paperean *izan ditzadan graziak* dago; bañan *jarriak* bear duala esan zidaten Iturzaeta'ren seme-alabak.

(2) Bertso paperean: *oittatikan*.

- 3/ Jesus justua, laguntza eske
biotzez nago zugana,
publikatzia komeni bada
desiua daukadana;
zere lege ta dotriñarekin
etorri ziñan gugana,
nola bizi izan erakutsita
atzera zerurontz juana,
dударik gabe salbatuko da
zu maitatzen zaituana.
- 4/ San Inazio Loiola'kua
zeretzat lagun artuba,
dalako zure Konpañiaren
lenengo pundamentuba;
aurten orrena persona askok
egin du juntamentuba,
gauza onari eman dakiyon
indarra ta aumentuba,
serbi dezagun Jesukristo ta
beraren lege santuba.
- 5/ San Inaziok bere etxera
egiña digu deia,
salba-bidian gu zuzentzeko
nola dadukan leia;
aundi ta txiki juntatu gera
jente elementokeia,
jesuita ta kanoniguak
predikatutzen segia,
nai bada ikasi esan digute
fedeko asko egia.

6/ Jesuita ta kanoniguak
ze predikantiak dian,
ikusi gabe ezin sinistu
zeñen benetan ai dian;
oso ziero suturik daude
Jesusenako fedian,
esan dutenez kuidao izan
lujo ta banidadian,
negargarririk gerta ez dedin
geren eternidadian.

7/ Askorentzako probetxugarri
degun konsagraziua,
izandu dedin animarentzat
garbi konserbaziua;
ministro oiek egin digute
beren zelebrazaiua,
kristau fielak Elizarekin
degun kongregaziua,
euki dezagun kunplitutzeko
biar dan prepeziua.

8/ Zoragarrizko funtzio oiek
nola geran ikusiak,
bost altarien bisita aiek
etziraden itxusiak;
obispo eta kanoniguak
berak aurrian asiak,
sazerdote ta jesuitakin
inguru danak josiak,
al daneraño Jauna adoratzen
saiatu ziran guziak.

- 9/ Funtzio oiek aprotxatzia
apenas gure kalte zan,
zar eta gazte, pobre ta aberats,
askua milla jente zan;
eliza eta inguru dana
ere ziero bete zan,
zertarañoko edertasuna
izan zan ezin det esan,
kasi-kasikan pentsatu nuban
zerua bera ote zan.
- 10/ Azpeiti ontan prinzipalena
izanik fundaziua,
gañera albo-errietatik
guztizko juntaziua;
sazerdotiak buru dirala
berek in prozesiua,
ejenplo ona erakusteko
ori da kondiziua,
obispo jaunak guztientzako
bota du bendiziua.
- 11/ Azpeitia'ko semia degu
gure patro i onradua,
fedian fuerte saiatuarren
artu zuena gradua;
nai dunak izan leial da fiña
Jesukriston soldadua,
egin dezagun bera gogotik
serbitutzeko modua,
biba Jesusen Konpañia ta
biba Apostoladua!

- 12/ Apustuladu au serbitutzen
ez gaitiala zabartu,
konpritutzeko intentziua
are ta geiago artu;
eta gañera lagunak ere
al diran guztiak sartu,
sozidadia eta fedia
egin ditzagun indartu,
eternidade guztiko poza
alkantzatzeko ziartu.
- 13/ Gu gurasuak obra onetan
obe gogotik astia,
gerok zabarrak baldin bagera
nola zintzotu gaztia?
okerrarentzat gauza zalla da
zuzena erakustia,
nai dutenak Jesukristori
kaso ein gabe uztia,
egunen baten gaur bezin erraz
erremeituko ezia.
- 14/ Gure Jabiak emen bi bide
jarri zizkigun aukeran,
da animaren salbaziua
geren obran gora-beran;
dudarik gabe azaldu biar
egiñak ditugun eran,
nai bada jakin aditu baez
apenas gelditzen geran,
gu juzgatzera nola datorren
mundubaren akaberan.

- 15/ Kabu bagia berak gugatik
duan miserikordia,
bakoitzarentzat aingeru bana
ipiñi zigun goardia,
gure animak kondenatzia
iritzirik pikardia;
eta oparo eman nai digu
beraren zeru argia,
kristau guztiok maite dezagun
Jesusen Biotz garbia.
- 16/ Nork konparatu gauza onetik
ze balia litakian?
gaurko egunian asko dabilta
beren faltazko nekian,
ondasun danak galdutzen eta
alkar illtzen atakian;
eska deiogun Inaziori,
bizi geranak pakian,
komeni bada gorde gaitzala
beraren bandera-pian.
- 17/ Askotxo gaude orgollotubak
ero grandezaz jantzirik,
Jesusengana eztala artzen
biar dan inportantzirik;
munduba zerbait trastornatu da
fediarri ez eutsirik,
Aita Santua emen daukagu
Kristok bere ordeztutzirik,
bañan eztegu askok egin nai
beraren erakutsirik.

- 18/ Egia garbi aitortutzeko
 nik oserbatzen dedana:
 jakiña dago gu okerrian
 erorikorrak gerana,
 baña badago ausentuari
 kortia zeñek emana;
 arrotasuna ta aundi-naia
 munduban gertatzen dana,
 argatik ezta oberitu nai
 Aita Santuarengana.
- 19/ Arrotasuna mundu onetan
 daukagun gaitzik txarrena,
 altu-ustian dauan askori
 joaiten dio barrena;
 ori dutenak kariño onik
 ezin artu alkarrena,
 gerrate eta desditxa ere
 orretatik datorrena,
 gauza guztien onda-bidia
 jakiña dago orrena.
- 20/ Zeruban bertan orretatikan
 asiak ziran gerratzen,
 Luzifer eta bere lagunak
 argatik daude erretzen;
 gaiztakerien susterra au da,
 emendik dira errotzen,
 nere kristaubak, kuidao izen
 kauza onetan erratzen, (3)
 galdubak gera kostunbre ori
 ezpadegu desterratzen.

(3) Bertso-paperean: *ontan*.

21/ Desio nuen bertso berriak
ara emen errematian,
barka zaizute utsegin badet
deskuiroen batian;
Ama Birjiña artu dezagun
lagun gerekin batian,
Aita San Pedrok barrura gaitzan
zerubetako atian,
Jesukristori kostatakuak
guztiok salba gaitian. (4)

(4) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea,
Iturzaeta'ren seme-alabak emana.

(1917)

FRANZISKO ITURZAETA'K
URRESTILLA'KO MIXIOEN
GAÑIAN JARRIAK

- 1/ Gure Jainkuak nai dun ezkeron
ni itz egiten astia,
al dan guztia saiatu gabe
ezta posible uztia;
Mixio Santu zoragarriak
gertaturik ikustia,
eman dutenak Aita Agirre,
Aita Aizpuru bestia;
kristauak nola bizi biegun
ori da erakustia.

- 2/ Obligatua nagon ezkeron
izketan asi nadilla,
laguntasuna eskatzen dizut,
Jesus justu ta umilla;
argitu eta indartu zazu
nere memori debilla,
bere anima galtzen dubena
ezta irtengo abilla,
kristau guztiok saia gaitezen
salbaziuaren billa.

- 3/ Milla urte ta beratzireun da
au da amazapigarren,
etorreria mundura zala
gure Salbadore orren;
lege zuzena eta dotriña
danontzat berak zekarren,
eta gugatik nola illa zan
pensatu dezagun arren,
mundu ontako gaiztakeriak
zer ondamendi dakarren.
- 4/ Apirillaren oi ta batian
egiñ digute sarkera,
San Inazion seme leialak
urrustiltarren tartera,
Parruki eder azpeitiarren
bazar aldeko partera,
bire gaiztuan gabiltzan asko
zuzenera ekartera,
pekatariak Jaungoikuaren
graziarekiñ jartera.
- 5/ Bejondeiola parroko zuzen
gure Don Joakiñ jaunari,
misiolari prestuak eta
bere apaiz lagunari,
eta alkate onradu eta
justizian daudenari,
zergatik zintzo jarraitzen zaizkan
salbazioko lanari,
esker da grazi kabugabiak
eman diztegun danari.

- 6/ Esan digute kargu andiak
dauzkagula gurasuak
ondo zaitutzen geu eta geren
famiaren pausuak;
gure munduko bizitza abek
dirala peligrasuak,
obra onakiñ eten ditzagun
etsai gaiztuen lazuak,
uste eztala onda ez gaitzen
eriotzako plazuak.
- 7/ Gurasuentzat neke gogorak
famili ondo aztiak,
jaio orduko askok arturik
arrotutzeko ustiak;
oso pozturik banidadiak
lujoz ta modaz jaztiak,
ibilli galdu, erretiro txar,
lagun gaiztuen nastiak,
berri onikan eztu emango
orla dabillen gaztiak.
- 8/ Begirau gabe mundu ontara
zertara dan etorria,
utsetzat dala Jaungoikuaren
agindua ta neurria;
bakoitzak berak para nai degu
gerontzat lege berria,
ume gaiztuak ekarri leiken
aita-amentzat arria,
ura dalako danak kondenau,
ori da penagarria.

- 9/ Askok dauzkagun oitura txarrak
ardura gabe usaiak,
gaztiak baño okerraguak
guraso zabar lasaiak;
nola diraden kaso eiñ gabe
lege eta arrazoiak,
ta diabruak gozatze'itula
elementuzko pozoiak,
zeiñ zer geraden juzgatutzeko
laster ditugu sasoiak.
- 10/ Geren animak salbatutzeko
eztabilkigu ametsik,
emen gabiltza projimuari
ezer sufritu nai-ezik;
iñor altuan ikusitziak
eztigu ematen pozik,
eta publiko jarri nai degu
iñundik badu bajezik;
Jaunak justizi egingo digu
guk projimuai ez-ezik.
- 11/ Geren buruak jeneralian
gerok ditugu kargatzen,
jakiña dago, griña txarrari
ezpadiogu largatzen;
eta diote gorroto-dunik
eztala zeruan sartzen,
erakustalle oiek digute
oso garbiro markatzen,
galdu gerala gerok alkarri
ezpadiogu barkatzen.

- 12/ Gizon justu ta jakintsu oiek
gugan dira inguratu,
burni gogorra ta erdoitua
bâkite nola kuratu;
lendabiziko galda biar du,
au eziñ leike duratu,
gure biotzak fediarekin
ala dizkute berotu,
ura bezela nai dan jitera
gero gaitzaten muratu.
- 13/ Konzientzia nola daukagun
asi ondo esamiña,
pensa dezagun eriotzia
datorkigula samiña;
Kristo gugatik nola josi zan
guztiok degu jakiña,
lenaz gañera pekatuakiñ
eman badiogu miña,
biotzetikan damu gaitian
zauri berriak egiña.
- 14/ Mandamentuak nola dauzkagun
begiratu estrañian,
guztiak zintzo gorde ditzagun
tokatzen zaien añian, (1)
Jaungoikuaren lege santuak
agintzen duan oñian;
zenbait personak izkuntza txarrak
miyan eta ezpañian,
orrela al da Jauna amatzia
gauza guztien gañian?

(1) Bertso-papeñean: *oñian*.

- 15/ Oiek orrela izanik eta
gañera juramentua,
egiz ta premiz egin ezpada
daukagula pekatua;
eta gañera jai-egun ondo
degun santipikatua,
nezesidade gabeko lana
daukagu debekatua;
aita ta ama onratzen ere
zintzo eballi kontua.
- 16/ Begira ondo mandamentua
zertan degun akastua,
saia gaitian akordatzera
len bagendukan aztua;
geu ero besten bizitzarikan
ote daukagun moztua,
itz ta deseo obretan dagon
lujurietan justua,
eta gañera projimuari
ezer diogun ostua.
- 17/ Geientxuetan dakaizkiena
munduko okasiuak,
testimonio falso ta gezur
eta murmuraziuak;
desonestuan garbi guardatu
dauden separaziuak,
desordenako azienda ta
geiegizko desiuak,
erratu degun ortik atera
ondo konparaziuak.

18/ Errepasatu ditzagun bada
orrela mandamentuak,
kunplitutzeko biar bezela
Jaunaren amamentuak;
geren faltakin galdu ez ditzagun
zeruko tokamentuak,
eternidade guztiko penak
anima kondenatuak,
konzienziak nola dauzkagun
oraiñ atera kontuak.

19/ Konzienzia garbitutzeko
nola dan kondiziua,
asmo sendo ta dolore fiña,
damuzko kontriziua;
propositua ona artzeko
degu obligaziua,
oiek eta gañera berriz
zuzena konfesiua,
penitentzia kunplitutzian
degu satisfaziua.

20/ Lotsatu gabe egiñ dezagun
guk konfesio on bana,
pake santuba jarri dakigun
gure artian on dana;
bere ordena zintzo kunplitu
konfesoriak emana,
pekatutikan libratuko da
ori egiten duana,
gure Jabia errukiz dago
barkatutzeko gugana.

21/ Komulgatuta Jaunari eman
graziak eta eskerrak,
sentimentu ta damuarekiñ
iñoiz egiña okerrak;
mundu onetan nola dauzkagun
geren etsaiakiñ gerrak,
benzutu eta zapaldu ditzan
Espirituan indarrak,
eternidadez goza ditzagun
beraren glori ederrak.

22/ Bertso berrien errematia,
Mixio santu abekin
nola diraden despedituak
beratzi-urren arekin;
Ama Birjiña izan dedilla
anparatzalle gurekin,
ta erregutu deiogun beti
debozio onarekin,
beti-betiko bizi-lekura
eraman gaitzan berekin. (2)

(2) Bertso-papera, moldiztegiaren izenik gabea,
Iturzaeta'ren semeak emana.

(1917)

BERTSO BERRIAK
AZPEITI'KO ELIZALDE'K
LARRE-BEIAN GAÑIAN
JARRIAK

Soabill, Aizarna'ko partean dagoan baserri bat da. Ango mutilzar batek, Xerapiok, mendian larre-beiak izaten zituan.

Bañan, bein batez, larre-bei oietako batek izugarrizko komeriak jarri zituan.

Azpeitia'ko Landeta'raño pasa zan. Emen Txintxua izeneko baserri bat zan. Bertako baserritarrari ere Txintxua esaten zioten. Onek sagardi aundia zuan, baita sagardotegia ere. Larre-beia, erbiak bezela, egunez basoan gordeta egoten zan, bañan gauzez sagardian sartu ta kalte aundiak egiten zituan. «Txintxuai on-dau dizko ogei gurdi sagar» esaten du Iturzaeta'k.

Arrapatu nairik asi ziran, bañan etzuten berealakoan atxitu. Komeri oiek guziak, Iturzaeta'k ogei ta bost bertsoan jarri zituan. Baita inprenta-arazi ere.

Bertso-paper orrek eztu moldiztegi-izenik; Guetaria'ko Garro baserrian arkitu genduan.

Bertsoak ondo konprendituko badira, argibide batzuk komeni dira. Oarretan jarriko ditugu. Asko baitira, bertsoen atzetik jarriko ditugu. Iturzaeta'ren seme-alabak emanak dira.

Doña, Iturzaeta'ren seme Tomaxek kantatu ta Donostia'ko Ambrosio Zata-rain jaunak magnetofonotik paperera itzulia da.

A-di-tu e-za-zu-te Fran-tzis-ko-ren de-
 -ya, au-sen-to bat e-sa-ten ar-tu du-ben le-
 -ya i-xi-lik e-go-te-ko de-la gei-e-gi-
 -ya no-lai-bi-lli dan gi-zon e-le-men-to-ke-
 ya a-rra-pa-tu e-zi-ñik So-ra-bi-llen be-ya.

- 1/ Aditu ezazute
Franziskoren deya,
ausento bat esaten
artu duben leya;
ixilik egoteko
dala geiegiya,
nola ibilli dan gizon
elementokeya,
arrapatu eziñik
Soabill'en beya.
- 2/ Ausento ontan b'al da
franko istorio,
danak esan-enian
zuzen digario;
bertsuak ipintzia
ez da misterio,
jende asko ibilli da
larri ta erio,
Soabill'en larre-bei
au dala merio.
- 3/ Bei onek egin du
asko azio txar,
izurratuak ditu
zenbat erribetar;
mantendutzen zan soro,
sagasti ta abar,
askuak jan da bota
mutur eta adar,
Txintxuai ondau dizko
ogei gurdi sagar.

- 4/ Bastante keja ziran
erriberatarrak,
eiten zituelako
sarrera kaskarrak;
zentzu aundikua zan
ta anak azkarrak,
iñor oserbatzian
dantzauaz adarrak,
libratutzen zituan
kamiño-baztarrak.
- 5/ Soo ta sâsti zebillen
ase eta bete,
kalte asko egiñaz
botatze ta jate;
Sorabill'ena dala
noizbait jakin dute,
keja kendu dezala
mediatamente,
orduan arakiñai
saldua diote.
- 6/ Azpeiti'ko arakiñak
asi ziran galaz,
aisa atxitzeko
idian iñolaz;
bestela ezin da gero
tiroz eta balaz,
baña etziran iristen
arentzat eskolaz,
iges egiten zien
brinko eta jolas.

7/ Tentatzen zebiltzala
ein zuten abildu,
aien tiruakatik
etzan ain debildu;
iñork ez du eritu,
ain gutxi il du,
berriz e sagastira
egiten zan bildu,
besterik etzuten egin:
arrapatzen zaildu.

8/ Arakiñak etsita
ziranian jarri,
sâsti-zaliak keja (1)
jabiari sarri,
gogorrago asteko
azienda orri;
txakurrak eta gizon
Lastur'tik ekarri,
berriz saldu diote
ango Ziolarri. (2)

9/ Egin nai zutenentzat
zezenez pestia,
Ziolarrek pentsatu
ori erostia,
bi urte inguruko
larre-bei gaztia,
aumentatu zedien
beraren kastia;
pobrezitu ainbeste
anbat du kostia.

- 10/ Ebaltzen zutenian
arakiñak iyan,
Lasturtarrak etorri
ziran balentiyan,
ori arrapatzeko
enpeño aundiyan;
batian bajuan da
bestian mendiyan,
ala ibilli ziran
jai bat edo biyan.
- 11/ Gabian sagastiyan
ibillita jaten,
bi legua bidian
aldian zan juaten,
lazuak jarrita ere
ziyen antzematen;
nun gordeta egoten zan
obserbatu zuten,
Manteka deitzen zaion
itur ondo baten. (3)
- 12/ Andik atera zuten
txakurrez aurrian,
mendi gañera erten du
trote gogorrian;
andik Odri-iturrira (4)
amilka abarrian,
jateko beta gabe
mokaurik larrian,
txakurrak bestek ezin
segitu urrian.

13/ Aiek kolpe buzten da
kolpe muturrian,
Saberry Munoaundi (5)
ortik zigerrian;
Anatxa'n txaran bera (6)
gutzizko inderrian,
galanki nekatuta
illunabarrian,
Aizarna aldiari gertau (7)
laga biarrian.

14/ Andikan zortziren bat
egun eo zazpira,
berriz e etorri dala
beia sagastira;
Txintxotarrak orrela
kontentu eztira,
erasoko dutela
ziaro gaizkira,
sartu biatuztela
danak jueztira

15/ Astearte perikoz
goizero goizian,
arrapatzalle oiek
bizkor asi zian,
ganadu ori erren-
ditzeko pozian,
txakur eta makilla
biaje luzian,
mangatuko zutela
besterik ezian.

- 16/ Sagasti aldi ortan
lenbiziko mogi,
bildur zan gaizkillia
dan bezela ori;
ustez zerkatu arren
bee eta goi,
sei edo zazpi gizon
edo geiagori
errespetorik artu
etzion iñori.
- 17/ Odria alde ortara
nolabait mordatu, (8)
soo-jabiak an zala
bizkor akordatu;
artorik jan etzeien
nai zuten guardatu,
trankiarekin jota
adarrak dardatu,
alare denbora asko
etzuan tardatu.
- 18/ Ortik gora etzuten
milla diferentzi,
Elormendi gaztiak
eskuak egotzi; (9)
itxumustru gaiztua
zieron erakutsi,
gauza onik etzala
zuanian etsi,
ark ere beriala
egin zion utzi.

- 19/ Antxiturbi-goikora (10)
 ortik arutzian,
 ondoren jende asko
 zan osteuntzian;
 iru Lasturtar ziran
 guztien atzian,
 neuri galdetu ziten
 bestiak nun zian,
 nik esan niyenian
 aguro juan zian. (11)
- 20/ Antxiturbi-goiko'tik
 Markes-txaradira (12)
 txakurrakin buerdan (13)
 al zuben tokira;
 aurretikan kolpe ta
 buztenetik tira,
 balda danak pasata
 Biziu'tik jira, (14)
 laster ziraden Etu-
 meta'ko egira. (15)
- 21/ Andik sekulakorik
 eta azkarrena
 jo du Etumeta'ko
 beko sô barrena;
 jatxera ederra zan
 ganadu arrena,
 bera aurrian eta
 bestiak urrena,
 ai ura desditxa ta
 baska txakurrena!

22/ Baso sakon guztiyak
korritu arian,
Zepari'tikan buelta (16)
nola pasa dian,
Antxiturbi-berriko (17)
atari parian,
Motrikuarrak eldu
orduako tarian,
an errenditu zuten
denbora berian.

23/ Izan dira guztizko
apustu egitiak,
bizirik atxitu ez ta bai
demanda jentiak;
señalaturik noiz izan
orduak betiak,
amarna amabi duro
askotxok botiak,
astinduak dituzte
diru-billeteiak.

24/ Milla beatzireun da
amazazpi urte,
Kristoren jaiotzatik
au zanera tarte;
Motrikoar da Lasturtar
arrapatzen parte,
Elormendi ta Arana,
Ibarguen puerte,
danak saiatu dira
errenditu arte.

25/ Beia baten gañian
 orrenbeste pleito,
 txarrian jarri zaio
 naikua kleito;
 izan ere ark zuan
 ainbeste delito,
 arrapatuta laster
 ein zitzaien ito, (18)
 larrutu ta aragiyak
 eramanda kito.

(1) Bertso-paperean: *sagasti-zaliak keja*.

(2) Ziolar, Lastur'ko baserri bat da.

(3) Manteka-iturria, Arauntza mendiaren ipar-
 aldeko egalean dago.

(4) Odria baserria, eta onen ondoko Odri-itu-
 rria, Arauntza mendiaren egutera aldean daude.

(5) Saberri ta Munoaundi, bata Azpeitia'ko ba-
 serri bat da, ta bestea Errezil'koa; biak ere Etu-
 meta aldean daude.

(6) Anatxa, Aizarna'ko baserri bat da.

(7) Bertso-paperean: *nekau*; bañan, Iturzaeta'-
 ren seme-alabak diotenez, *gertau* bear du.

(8) mordatu: moldatu.

(9) Elormendi, Azpeitia'n Enparan gañean da-
 goan baserri bat da. Ango mutilla izugarri indar-
 tsua omen zan.

(10) Antxiturbi-goikoa, Errezill'en Etumeta al-
 dean dagoan baserri bat da, Txapel bertsolaria za-
 naren jaiotetxea.

(11) Iturzaeta garo ebakitzen ari omen zan, eta
 iru Lasturtar oiek an azaldu zitzaizkion, soka aun-
 di bat bizkarrean zutela.

(12) Markes-txaradia, Arauntza mendiaren ipar-
 aldean dago. Baso aundiak dira. Garai artan da-

na pago ta aritza zan; gaur, berriz, dana pifudia, *Caja de Ahorros*'ena da.

(13) buerdan: derrigorrean, fuertzan.

(14) Bizigu, Aizarna'ko baserri bat da.

(15) Etumeta, antziñako benta zar bat da. Errezil'dik Aizarna aldera joateko, ortik igaro bear zan; baita ere Aia ta Asteasu'tik Azpeitia'ra joateko. Ortik barrena pasa zan San Inazio Paris'tik Azpeitia'ra zetorrela.

(16) Zepari, Errezil'ko baserri bat da, Zepai bertsolariaren etxea.

(17) Antxiturbi-berri, Errezil'ko baserri bat da.

(18) Arrapatu ondoren, ito egin zan larre-beia, ler eginda.

(1920)

BERTSO BERRIAK
ONDO MEREZI DUBEN
TONTO-PIZKOR BATI JARRIAK

Bertso auek, Orio'ko Gregoria Ibargoyen zanak eman zidan kanta-paper batetik ditugu. Moldiztegi-izena onela dago paperean: «*Imp. de S.M.H.*». Ta bertsoen azpian, firma bezela, *Ignacio Labaca* jar-tzen du.

Inazio Labaka ori, bertsoetan esaten dan bezela, Azpeitia'ko Elosiaga ballarakoa zan.

Bertso auei Iturzaeta'ren antza eman genien irakurri bezin laister. Seme-alabai erakutsi genizkien ta baietz esan ziguten, olako bertsoeren batzuk beren aita zanak jarriak bazituala ta auek izango zirala, Inazio Labaka ori Elosiaga'ko Xagu baserrikoa zala ta abar.

Labaka ori Iturzaeta'rengana etorriko zan, bertsoak bear zituala esanaz eta pasadizoa adieraziaz. Ta gero paperak bere izenean aterako zituan. Oitura ala zan garai artan; liburu ontan bertan ere olakorik geiago ikus dezake irakurleak.

Bertsoen gaia, soldaduzkara joan bearraren komeriak dira.

1/ Milla beratzireun da
ogeiko urtian,
notizia berria
gure artian,
Azpeiti'ko barrio
Elosi partian;
alkartasuna dago
gutzez apartian;
kintoko suertian
baju erortian
bengantza fuertian
ai zaizkit tartian;
ara eziñ konpondua
nun letorkian.

2/ Labaka Inazio naiz
platikan asia,
zergatik dadukatan
gogo bizia;
Jesus, eskatzen dizut
biotzez grazia,
ondo esplikatzeke
biar dan guzia;
gure autosia
ezta itxusia;
zer dan malizia
eman klarezia;
merezi dutenentzat
da justizia.

3/ Auzoko kinto ori
da nere etsaia,
kantuan beragatik
biet ensaia;
nola ipiñi digun
motibozko gaia,
publikatu-enian
oraiñ da garaia;
iñor galdu-naia
dabilkiñ galaia,
izketan lasaia,
obraz ere saia;
itxuben tarterako
ai zer artzaia!

4/ Juango ote naizen
emendik igesi,
kuidado aundian
ori da bizi:
espia bat Azpeiti'n
ipiñi lenbizi,
bestia Donostia'n
berriz jarri-azi;
nik ala notizi,
egin det ikisi;
zer duten merezi
nai det adierazi;
kulpik eztetan gauzan
ez neri asi!

5/ Espia bat emen da,
Donosti'n bestia,
—egiteko ederrak
oiek ezta—
emendik pasatzeko
ara albistia,
gertatu izen balitz
ondo iristia;
guk au ikistia,
sasiak piztia,
eukita bistia
nai ez ikustia;
alkar anparatzeko
gauza tristia!

6/ Juan dan urtian kinto
jokatuak gera,
ni katigu ta ori
libre atera;
peligroz egon balitz
utsa alde batera,
neri ezin sufritu
dauketan aukera;
dabillken tankera
bildur dala bera,
orren ibillkera
eginda eikera
zeiñ eskapa dezadan
Amerikera.

7/ Inazio lur ontan
zer ondo dagan,
eleike jarri toki
obiaguan
ur gañian pasata
ainbeste leguan,
allegatzian parte
Amerika'kuan;
bizitza goguan
betiko kanpuan,
alako asmuan
apenas nagan;
errege serbitzera
naio det juan.

8/ Españi'ko lurretik
ez nua moitzera,
pensau eztetan gauzan
zertan ai zera?
Zure oponiua
beti da gaitzera,
zer zeran eman dezu
naikua aitzera;
erregek deitzera
nua abitzera
bera zaitzera
edo serbitzera;
nere burua ez nua
preso ipintzera.

9/ Libretzalle batena
juan nintzan beiñ,
ezer ote zekian
entera nediñ;
aita txikitan illa
nuan beñepeñ;
gauza duna libratzen
etzala atsegiñ;
ark ala itzegiñ,
nik al det utsegiñ?
oiek ori jakiñ,
orretatik ekiñ;
nork dauka kulpa ezer
ezpazan egiñ?

10/ Oiek okasiua
nolanai sortu,
guztiak sufritzeko
gogua nork du?
Donostia aldera
bagiñan agertu,
gutxi bat arren preso
ez gaituzte sartu;
geranak obartu
degu gogor artu;
berak du aitortu
degunian bêturu;
ez du bere bururik
asko edertu.

11/ Faltso testimoniua
orrela jartzia,
kulparik eztutena
aotan artzia,
uste eztala kausan
au da erortzia,
gertatu balitzaio
ondo etortzia;
orren fuertzia
zuzena okertzia,
gaitzak ekartzia
edo ezartzia;
beorrek mêzi luke
preso sartzia.

12/ Egiak esatera
gera abiatu,
gaiztuakiñ beartu
estudiatu;
desertore atxitzeko
zaizkit saiatu,
desio zan bezela
balitz baliatu;
naizenez giatu,
ninduen iyatu,
bera setiatu
ta presiliatu;
asko moduz badabill
gutxi piatu.

13/ Aziyo oiegatik
dizut esker milla,
bengatutzeko zabiltz
eskiña billa;
bistan ipiñi dezu
zer zeran plantilla,
munduan sobre da gaur
orlako jentilla;
ni oso debilla,
izurra nadilla;
ori txit abilla,
eztago umilla;
okerrak zuzentzeko
ai zer mutilla!

14/ Asiko ote naizen
kanpora pausuan,
ekiñ diate juzgu
kuriosuan;
naio det soldau izen
iru urte osuan;
pegatuko zikian
al izen bazuan;
oraingo plazuan
lotu nai lazuan;
beti amenazuan
ai dien kasuan;
ori zer jenero dan
galde auzuan.

15/ Ingurutar askoren
dabill kontrario,
iñor anparatzerik
eztedizkio;
utsa zan motibua
ipiñi banio,
enredadore txarra
noizbait etzan jaio;
zenbat eta geio
izurratu naio;
eztalako pio
Labaka'k au dio:
kristau fiñak eztula
oikiñ balio.

16/ Zenbaitek egiten du
pranko zitelkeri,
oraiñ neri bezela
beste askori;
ustez eduki arren
milla jakinduri,
uste eztala oi da
gizona erori;
zer dabill beori?
bajeza ugari
eman nai besteri;
zer bear dit neri?
bere santu-santakiñ
konpondu beri!

17/ Paperak zabalduko
dizkat erriz erri,
alabantzak merezi
dituben orri;
dollorra nola oi dan
borondatez urri,
nerekiñ bakarrikan
eztabill biurri;
gizon oien berri
askok du igerri;
nik egiak sarri
emen ditut jarri;
iñor kejante bada
nigana etorri.

18/ Orra bertso berriak
Labaka'k aterak,
ipiñi nai baditu
ordañak berak;
itzegiteko daude
guztizko parerak,
gauziari emanaz
ondo parezerak;
gure gora-gerak,
asera-akaberak
eta kontakerak
ikasteko aukerak
amarna zentimuan
emen paperak.

Inazio Labaka

(1921)

BERTSO BERRIYAK
AZPEITI'KO MIXIYUEN GAÑIAN
ELIZALDE'K JARRIAK

Onako bertso auek bi bertso papere-tan arkitu ditugu: batek or goien beze-la dio; besteak, berriz: «Azkoiti'ko Mixi-yuen gañian Elizalde'k jarriak».

Gero, bertsoetan, aldaketa bakarra du-te. Azpeitia'koak onela dio bostgarre-nean: «Agirre ta Laskibar alkarren la-gunak»; ta Azkoitia'koak: «Agirre ta Al-korta alkarren lagunak».

Letra ere berdin-berdiña dute. Guk uste, bi paperak, argitaraldi bakarra di-ra. Urte berean mixio bana izango zu-ten Azpeitia ta Azkoitia'k, eta moldizte-gian erriaren izena ta mixiolari baten izena aldatzea beste lanik etzuten izan.

Bañan zein mixioentzat jarri zituan Iturzaeta'k bertso auek? Bera azpeitia-rra izanik, Azpeitia'koarentzat jarriko zituan, seguru asko.

Azpeitia'ko bertso-papera Getaria'n, Garro baserrian, arkitu nuan; ta Azkoi-tia'koa, Oiartzun'en, Alzibar'ko Portue-ne'n, Inozenzio Urkia'ren etxean. Paper oiek moldiztegi-izenik eztute.

1/ Mixiyo Santubaren
esplikaziyua.
Aita Loiolatarren
opiziyua,
Jesusek nola pasa
zuan Pasiyua,
esan dute zer degun
obligaziyua;
dunak juiziyua
utzi biziyua
ta okasiyua;
au da leziyua
nai dunak alkantzatu
salbaziyua.

2/ Kantuz esplikatzeko
oinbeste istori,
laguntza eskatzen diyot
Jesukristori,
arren indartu nazan
mingaiñ da memori,
danen zuzentzallie
nola degun ori;
odola ugari
zuana ixuri,
graziye ta glori
iristeko guri,
beti erreguz dago
Jainko Aitari.

3/ Apaiz ta maitagarri
Parroku nausiyak,
alkate ondradu e-
ta Justiziyak,
gu mixiyuen premiz
nunbait ikusiyak,
obligaziyoz dute
kunpritu guziyak;
fededun biziyak
ekarri-aziyak,
oien nobleziyak
ondrak mereziyak,
kantuz eman deiztegun
danai graziyak.

4/ Gaizuman mixiyuak
urte orainguan,
emeretzireun da ogei ta
batgarrenguan,
Salbadoria zala
jaiua munduan;
bere lege onakin
zuzendu ginduan;
au egin onduan
zerura zan juan;
sartziâtik gu an
zenbat pasa zuan;
juzgauko gaitu zeñek
ordaintzen duan.

5/ Beratzi-urren ontan
izan ditugunak,
Jesusen Konpañiko
Aita euskaldunak:
Agirre ta Laskibar
alkarren lagunak,
gu gonbertitu arte
jardun zaizkigunak;
gau eta egunak
saiatu ta junak,
gizon jakindunak,
leiel da bigunak;
arren bedinka bitza
Goiko Jaunak!

6/ Jaungoikoaren deitik
ziyoten ekiña,
fedia zer dan degu
ondo jakiña;
beron paltarik ezta
gerok nor bagiña,
egitekorik asko
badute egiña;
oien alegiña
Jesus artzai piña
serbitzeko diña
izateko griña;
irakorri digute
bere dotriña.

7/ Adan da Ebak pekatu
egindako paltia,
zeruba itxiyarekin
zegon kaltia;
Abranen seno artan
zeguan jentia,
zuk iriki ziguzun
danontzat atia;
ai, Jesus maitia,
amorez betia,
zuk borondatia
zeugana juatia...
au da bér aña esker guk
ez ematia!

8/ Zenbat obligaziyo
degun Jesusena,
nai badegu kunpritu
bere esana;
ogei ta amairu urtian
munduan izena,
kriau ta erredimitu
egin giñuzena;
Jainko ta gizona,
justu ta zuzena,
Trinidadez ona
bigarren persona,
gugatik gurutzian
ixiki zena.

9/ Amar mandamentuek
lenengo ezarriyan
Moisesi eskribitu
Jaunak arriyan;
Jesukristok mundure
geroko etorriyan,
berak zuzendu zizki-
gun lege berriyan,
gure jatorriyan
premi igerriyan,
gu zuzengarriyan,
ordena jarriyan,
danok kabi gaitien
bêr dan neurriyan.

10/ Danez aurreko lana
Jainkua amatzen,
juramentu alperra're
du debekatzen;
begira jaie nola
dan santifikatzen,
ta gurasuak ondo
ditugun ondratzen;
ill edo iñor galtzen,
da lujuriyatzen,
ezer arrapatzen
eta murumuratzen,
danak saiatu biar
zintzo guardatzen.

11/ Elizak bost aginte
zizkigula para:
jai danetan meza entzun
ondo al bada;
maiz konpesatutzie
ere txit ona da,
iltzeko peligrue
beti dago bada;
Pazkuaz komurgada,
barauek etada,
amarrenak paga,
premeziye ez laga,
zintzo kunpritu bier
dan errenkada.

12/ Uso arrazoizkora
iritxi geranak,
dotriña ikasitzen
dauzkagu lanak;
onek dauzken lau parte
prezisuek danak,
Kristok gu salbatzeko
jarri zituanak;
jakiteko emanak
fede siñismenak,
oraziyo onak,
obrau bêt diranak,
eta errezibitu
bieitugunak.

13/ Lau parte oien danen
deklaraziyuak,
Kredo-artikulo ta
oraziyuak,
eta sakramentuzko
obligaziyuak,
pekatu kapitalak,
ai zer leziyuak!,
bienaziyuak,
enkarnaziyuak,
ta konpesiyuak
bost kondiziyuak,
guziyez bértzen gaitu
salbaziyuak.

14/ Aurrak gurasuentzat
neke asko dakarte:
jaio ta bataiua
lenengo parte;
laister konprimatzie
jarritzeko puerte,
penitenziya eta
komurgau biaute;
azi, jantzi, jate,
ezi ez ta kalte,
dotriñaz prudente,
kargu danak bete,
beren estaduetan
ipiñi arte.

15/ Aita-amak aurrak ondo
azten badituzte,
au kaltekua danik
nik ez det uste;
engañatzen errezak
daude zenbait gazte,
lagun txarrak noranai
noiznai daramazte;
peligro ainbeste
dago jai ta aste,
oker baijuazte,
korrejitu laste,
bestela istillu txarrak
gutzat datozte.

16/ Ai ajulik gabeko
guraso zabarrak,
ejenplo onik ez degun
gazte ta zarrak;
beronek itxututa
gauden mundutarrak
justubari egiñaz
burlak eta parrak,
zer ondoren txarrak,
subak eta garrak,
antzi diadarrak,
sufritu biarrak,
sekula kastauko ez
diran negarrak.

17/ Gurasuak jardunda
umiak azitzen,
asko neka ta penak
irebazitzen,
zenbait ume erreza
ez ondo ezitzen,
orduz len jarri naia
dute nagusitzen;
ez oberezitzen,
zaill tema ausitzen,
dana ikusitzen,
det aierazitzen,
atzen txarra danak
gaizki bizitzen

18/ Aita-amai ze zor zaien
zeñek konparatu?
begira nork gaituben
geu ontaratu;
jantzi ta alimentuz
ondo erreparatu,
errespetuan kontu
ez deskuidatu,
obraz anparatu,
ondraz mejoratu,
poza gogoratu,
al dana goratu,
alare ezin leike
ondo pagatu.

19/ Jendia dago sobra
okertzen asiya,
Jesukriston legia,
askok ausiya;
karidadien partez
dago maleziya,
eta mendekuentzat
beti bajeziya;
bestei justiziya,
geuk libre guziya,
gorroto biziya,
ezin ikusiya;
anima salbatzeko
zer desgraziya!

20/ Mundu onetan bada
aldi bat persona,
projimuen gorrotuz
beti dagona;
au da Aita gurian
esaten zaiona:
«Barka gure zorrak guk
bezela iñona»;
bestentzat gerona,
geutzat neurri ona,
bere etzaiona,
barka bei geiona,
au da Kristok Aitari
eskau ziyona.

21/ Juiziyoko egunaz
entenditu gera,
nola euzkiya murauko
dan illunpera,
illargiya odoldu ta
izer danak bera,
munduba puskau ta erre
autsen eginkera;
gu Josepet'era
biltzian batera,
Jesukristo bera
sententzi ematera;
zer entzungo dan orain
kontu atera!

22/ Esamiña-enian
kontzientziakiñ,
begira obligaziyo
abek danakiñ;
nor bere estadu ta
enpliuarekiñ,
Jainkua ofenditua
damu aundiyakiñ;
proposituan piñ,
konpesatzen ekiñ,
danen aitorrakiñ,
penitentziya egiñ,
satisfaziyo aundiz
gelditu dediñ.

23/ Onela kunpritubaz
gere egin bêrrak,
komulgatu ta eman
Jaunai eskerrak;
damu aundiyaz iñoiz
egiñak okerrak,
obra onez ordaintzen
ez izan alperrak;
munduko tierrak
dauzkan eze-igerrak,
etsai txarren gerrak
bentzutu inderrak,
iraun deigun Jainkuen
grazi ederrak.

24/ Nere aditzalliak,
dezazute aitu,
neu ere ezin naizela
markan kabituz;
diabruak erozein
tentatutzen gaitu,
saiatzen ez bagera
ezin da garaitu;
bestei kontsejatu,
geu gutxi kejatu,
egiten bekatu,
sobretan segitu,
bañe emen nor beriak
askoko ditu.

25/ Ara bertso berriak
nik errematian,
barkau itzegin badet
iñon kaltian;
Ama Birjiña, lagun
zu izen zaitian,
Jesus dala gurekin
iltzeko instantian,
txit borondatian,
zeruko atian,
barrura juatian,
berekin batian,
betiko gloriyetan
goza gaitian.

Ala izan dedilla,
ai, Jesus umilla,
dizut esker milla;
naizenian illa,
atoz nere billa.

(1922)

BERTSO BERRIAK
(NEKAZARIEN KEZKAK)

Bertso-sail luzea da onako au. 1922'-garren urtean jarri ta urte berean «Zarautz-en / Elustondo ta Martiarena'ren irarkolan» inprentatu zan. Bertso asko baitira, papera ez baña liburutxo edo *folleto* txiki bat egin zuten. Txapel bertsolaria zanak eman zidan.

Ontan ezta esaten bertsoak zeñenak diran; bañan Iturzaeta'ren seme-alabak eta ezagutu zuten guziak, arenak dirala esan didate ao batez.

Liburutxoak *Bertso Berriak* beste izenbururik eztu; *Nekazarien kezakak* guk erantsia da, ori baita Iturzaeta'k emen darabilen gaia.

Lenengo, izendatu gabe bada ere, Sakabi ta Trukuman eta olako petrilliko edo sasi-medikuen alde itzegiten du. Multa edo kastiguren bat jarri omen zieten, titulorik gabe sendatzen jarduten ziralako.

Botazioa ere izana omen zan Azpeitia'n, ta batzuek tranpa egin omen zuten nekazarien kaltetan. Urrena oien kontra mintzatzen da Iturzaeta.

Gero nekazaritza goratzen du, ta, azkenik, nekazariak batu ta alkartasun bat egitea eskatzen du.

Onek jabia badu,
entera zaitezte,
soñutuko duena
komeni ainbeste,
nekazari kuadrilla
zar eta gazte,
irakorri dezaten
sarri jai ta aste;
nekazariyen kaltez
danik ez det uste,
komeni diran gauzak
jakiteko laste,
danak entenitzeko
erri ta erbeste;
Azpeiti'ra galdezka
iñor bazatozte,
desio duenikan
liburuben eske,
txit preziyo merkian
emango giñuzke.

- 1/ Kristo jaio ta emeretzireun da
oi ta bigarren urtian, (1)
esan biar det zer pasatzen dan
Gipuzkua'ko partian;
ikusirikan gauza onikan
nola ezin letorkian,
txit jente asko asaltatu da
baserritarren tartian,
apenas diran sosegatuko
berak gallendu artian.

- 2/ Egiya garbi publikatzeko
artu det pentsamentuba,
Jaun Jesukristo, egiten dizut
biyotzez oroimentuba,
arren nigana iritxi dedin
zure Espiritu Santuba,
indartu dedin nere mingaña
eta entendimentuba,
komeni bada eman zadazun
ontarako talentuba.

- 3/ Zerutar danak nola zeraten
gure anparalariyak,
Aita Jainkua, eskatze'izkitzut
bendiziyo ugariyak,
eta erruki gaitzatzutela
Jesusek eta Mariyak;
seme galduba bezela gaude
gu emen nekazariyak,
geure pabore ez baditugu
erriko agintariyak.

(1) Bertso-paperean: *ogei*.

- 4/ Kejaturikan ikusten ditut
 iñoiz asko baserritar,
 iru edo lau ala-moruzkok
 artu dutelako alkar;
 zenbait personak eskandaluak
 prestatzen dituzte azkar,
 pake santuban zegon jendia
 ipiñi zuten su ta gar,
 oraindik ere itzaldutzeko
 itxura gutxitxo dakar.
- 5/ Sentimenturik aundiyena bat
 lelengo eman zutena,
 nekazariyak aztu gabe
 anbat eukiko dutena;
 sendakiñ ona kentzia zeñek
 artuko ez luke pena?
 baña oraindik diskurdiya au
 ez dago oso etena,
 eunen premiya baño gustua
 bêrrago al da batena?
- 6/ Kausa orretan minberatubak (2)
 bateko eun badira,
 biar dan gaian saiatutzeko
 ez daukatenak kupira;
 kejatutzian juan giñaden
 tokatutzen dan tokira,
 etzirala aiek ezertan sartzen,
 beste tutik ez sikira,
 akaso obe izango zuten
 buru atera balira.

(2) Bertso-paperean: *ortan*.

- 7/ Nai dutenari anparo egin,
 jende langillia saldu,
 guk botatako papeletia (3)
 urrutiraño bialdu;
 guri mesede ein nai digunik
 ez da or iñor azaldu,
 errenta zintzo pagatuba du
 ta puestorik ez galdu,
 maiordomuak prinzipalari
 ze parte eman bai al du?
- 8/ Burubak bere pamili bati
 zer aziyua ein ziyon,
 kejante zanak jaun orri parte
 preziso eman bêr ziyon;
 eta burubak pamiliyari
 zertako eman etziyon?
 okerra etxian zuzendu zeiken (4)
 aitzera eman baziyon,
 eta guztiyak konpon baziran
 printzipalari zer ziyon?
- 9/ Kasi-kasikan esan lezake
 guk aita bat ez degula,
 ero erriyan aginpiria
 berdiña ez daukagula;
 gure gañera karga ta karga
 guk beti jaso zagula,
 erri bateko semiak izan
 eta orrenbeste burla,
 ez du egin da aditu ere
 iñork oraindik sekula.

(3) Bertso-paperean: *gu*.

(4) Bertso-paperean: *oker*.

- 10/ Beren buruben edergarriyak
jardunagatik bistatzen,
oiek esaten dituzten danak
ez ditugu sinistatzen;
birè leunian uste ez dala
jendia da irristatzen,
astia baño ez dute beren
burubak errekiatzen,
zeñen inderrez jarritzen diran
erriyak aministratzen?
- 11/ Zenbait persona zail da kabitzen
ordenan edo neurriyan,
zergatik dauden jende askori
mengatutzeko tirriyan;
gaurko eguneko kontubari ni
nago ezin igerriyan,
bizi izaten ikixi biar
sistema berri-berriyan,
batzubek ez da bestiak libre
erozer gure erriyan.
- 12/ Sentimentuba arrazoiakin
dago baserritarretan,
beso txango ta errena pranko
izango dek baztarretan;
esperentziyak azaltzen dira
iñoiz bein edo berretan,
baña oraindik autua ez da (5)
akabatuko orretan,
libertaria ez bada biar
usa-kostrunbe zarretan.

(5) Bertso-paperean: *autu*.

- 13/ Gure gañera zer datorkigun
daude señale klarubak,
ez baditugu guk libre biar
lengo persona ondradubak;
zertako gera erriko eta
pameliyako burubak?
geren jentia dependitzeko
oiek al dira modubak?
aziyorikan ezin duenak
zertan biaitu gradubak?
- 14/ Zein dira kapaz sendatutzeko
zenbaitsuben eriria?
berak ezin da zertako kendu
besteri eskubiria?
ezagututzen errezago dago
oiek dabilten miria,
danak lotuta lanik ein gabe
kobratutzeko iria,
baña oraindik arilkariyak
ingo du beste jiria.
- 15/ Oñeza asko sufritutzia
ez da iñoren goguan,
sendatzallia onena galdez
ia nun ote dagan;
guria ezin sufritu bañan
berak aietara jua
poz askorikan jartziagatik
osasun obiaguan;
pentsa bakoitzak bere buruba
zenbat estimatzen duban.

- 16/ Diskurdi ori asiya dala
 dira bi urte inguru,
 zein dan meriyo ez det esan nai
 baña dakigu seguru;
 garai aretan alako jaun bat (6)
 erten balitzaigu buru,
 eingo genduben ausentu ori
 konpondutzeko ain moru,
 bañan jendiak itzak ederrak
 ta bera gorde al baru.
- 17/ Ainbeste gizon juntatu giñan
 ain intentziyo piñian,
 gelditu giñan iñok ezertzat
 artu gabeko miñian;
 konpontziyua preparatzeko
 bagiñan orain añian,
 gizon batzubek orain diyote
 dagola iya egiñian,
 garai onian jarri ziekuk
 atsua piko gañian.
- 18/ Batzuk lanian ari ziraren
 bi urtiaz aurretikan
 baliyatzeko zuzenetikan
 ez bazan okerretikan;
 bestiak dabiltz zentrotik eta
 gu gabiltz bazterretikan,
 aiudantiak dauzkate oso
 paraje ederretikan,
 alkar ederki artutzen dute
 besteren bizkarretikan.

(6) Bertso-paperean: *artan*.

- 19/ Iru lau partek alkar artuta
guri kargia azitzen,
biarragatik ekin diyogu
mintzatzen edo gazitzen;
alderdi onen itxura aundirik
ez det emen ikusitzen,
ondradugiyek geran meriyo (7)
ez degu gaizki nozitzen,
iltzeko ez dago gogorik baña
ez dago giro bizitzen.
- 20/ Uste ez degun alderditikan
sartu zaizkigu nausiyak,
eta dienak alde batera
autubak eta auziyak;
oien manejo onak zer diran
daduzkagu ikusiyak,
bi urte ontan doble ta geio (8)
pagamentubak aziyak,
arreglorikan ere batere ez
eskatutzeko guziyak. (9)
- 21/ Jakiña dago postura ontan
ezin leikiela bizi:
geure inderrakin aintzen jarri ta (10)
geu biertzien igesi;
ezertan ere laguntasunik
nunbait ez degu merezi,
zer oponiyo guretzat dagon
ez degu gaizki ikusi,
denborarekin agiriko da
zein erteten dan nagusi.

(7) Bertso-paperean: *ondragiyek*.

(8) Bertso-paperean: *doble eta geiago*.

(9) Bertso-paperean: *eskatuteko*.

(10) Bertso-paperean: *agintzen jarri eta*.

- 22/ Arrai aundiya ai dan bezela
mendeko txikiya jaten,
artu zazute pazientziya,
zaudete pitin baten:
inder-aldia daguanian
bestei arrika ematen,
ordaingarriyak ere etorri
leizke alakoen baten,
ia orduan bein betirako
eskarmentatzen zeraten.
- 23/ Gebiltzarian atera nairik
zerbaiten prepeziyua,
gize-taldiak juntatu eta
nonbratu komisiyua,
urrutiko jaun aundiyetara
artu zan direziyua;
buelta eginda inderrick gabe
gelditu da soziyua,
bestei emanda geuretzat palta
guk degun opiziyua.
- 24/ Danen partetik bi baserritar
komisiyoko jarriyak,
oiek ostera egin dituzte
ibilli izugarriyak;
printzipalenak pasa dituzte
probintziyako erriyak
inguratzeko pentsamentuban
zarrak edo berriyak;
juan ziran baño asko alaiago
etzaizkigu etorriyak.

- 25/ Komisiyoko oietan batek
 aztertu ditu bazterrak
 atera nairik elementozko
 pulumentozko susterrak;
 geroztik izan badira ere
 gure tartean okerrak,
 garai aretan zerabizkiyen (11)
 oso itxura ederrak,
 ondo portatu zaigun meriyoz
 eman dizkogun eskerrak.
- 26/ Altzatu nairik ekin giniyon
 geundenak oinperatubak,
 utskeriyakin apenas geran
 estadu sinpleratubak;
 deskontentubak berakin ditu
 nai dana ezin eratubak,
 gauza abetan danak gustora
 ez gera ain geratubak,
 ostian ere badaude berriz
 zerekin minberatubak.
- 27/ Puestuak ondo pagatu-azi
 preziyo erabakiyan,
 gero kosetxa kobratzen segi
 ordena desegokiyan,
 errukirikan batere gabe
 erariyan ta jakiyan,
 bestetan ola pagatzen danik
 iñork apenas dakiyan,
 erozer gauza nebozlariyak
 agintzen duten tokiyan.

(11) Bertso-paperean: *artan*.

28/ Ikusi arren sopri egin bear
guri gertatzen zaiguna,
agintzen dunak ez erregutzen,
ori askok dakiguna;
gaurko egunian gutxitxo dago
iñoren errukiuna,
oserbatutzen baditu jende
onkiya edo biguna,
kendutzen laister asiko zaizku
aora dâmakiguna.

29/ Oiek orla ta gañera sortu
zaizkigu botaziyuak,
orduan ere izan ditugu
gutzizko okasiyuak,
galdu nai-ezik erentzi edo
nor bere tokaziyuak;
egin baño len atzen orduko
botuen jokaziyuak,
manipestatu dira ederki
gizonen bokaziyuak.

30/ Komisiyoko suster-zaliak
juan bati ziyon izkuntza,
iñoiz beorrek bezela orri
egiten ez baziyon laguntza;
kontatzen zigun esan ziyola
nola joko ziyon lutxa,
anbat etziyon txikiya eman
bildurra edo zaputza,
igualtsubak izango ziran
orren lutxia eta utsa.

- 31/ Botaziyoko atzen ordura
iya-iya juanian,
lengo jaun ori azaldu zaio
estu-estura danian;
kalpar-illiak arrotu eta
artu du iya janian,
suster-zalia errenditu da
ala artu duanian,
gixaixua ez dala ibilli
alper gaiztuan lanian.
- 32/ Baña gizonak okasiyuan
gerala ezagututzen,
bariakorrek asko gerala
geranian estututzen;
danen aurrian berak ibilli
sasi guztiyak sututzen,
eta gañera zein gizonekin
tratatu ere aututzen,
estuazunak urreratzian
nun zaioten damututzen.
- 33/ Geren burubak mingañarekin
nai izan arren edertu,
emen ez dago erremediorik,
obretan biar agertu;
ainbesteraño egiñak gaude
estutu edo biertu,
geren burubak guardatzeko
nai ez badegu indertu,
oraindik ere gu txupatutzen
ez da jendia aspertu.

- 34/ Zenbaitek ez du pentsatzen onek
zer lezakian ekarri,
desuertia gertatutzian
nola litekian jarri;
zertan ez degu aitortu biar
ikusten deguna sarri?
jaso al baño karga geiago
zaiotelako ezarri,
gizaldiyan ondatzen dira
erriyen ogei basarri.
- 35/ Alde danetik tiraka dago
badago nundik emanik,
ez det pentsatzen jentiak ontan
aguantatuko duanik;
jente guztiya kalera dator,
ez mendirako apanik,
manejatutzen ez bada, lurrak
ez du emango zer janik,
gure txamarrak gastatzen berriz
ez da luzaroko lanik.
- 36/ Pamilya sasoiratzian
kintua eta pestia,
disparatezko soldatakua
arren tokira bestia;
alde danetik nola dagueen
kabugabeko eskia,
geienaz ere eingo deguna (12)
lengo oñian eustia;
basarriyak postura ontan
mejoratuko ezitia.

(12) Bertso-paperean: *deuna*.

37/ Pobre jan eta pobre jaztia
du nekazariyen lanak,
beste askoren doble orduban
neketan ari geranak;
geuretzat gauza gutxi gordiak,
besteri asko emanak,
nekazariyak galantzi badu
ondo dira beste danak,
premiyo aundiyak merezi ditu
lurra meyorau duanak.

38/ Jendia zerbait mejoratzera
saia arren alegiña,
beste gauza bat ikusitzen det
emen oso desberdiña:
zer pentsatuba badadukagu
listuak baldin bagiña,
nekazariya aterako da
ziero buru-ariña,
zortzi ordukin kentzen baigute
geuk amalauban egiña.

39/ Adan eta Eba mundutarretan
lenbiziko gurasuak,
etsai gaiztuak engañatu ta
pekatu egin-azuak;
lur onetara destinatuak
galduta paradisuak,
neke-izardiz mantendutzeko
trabajatzen erasuak,
sententzi ori eman zioten
Jaungoiko poderosuak.

40/ Jainko altsuba nola dan bera
gauza danen egillia,
Adan moldatu lendabiziko
gizetasunen mallia;
nola igaro agindu ziyon
destierroko ballia,
gizonak lurra trabajatuta
izan zedin emallia,
argatikan da nekazariya
guztien mantentzallia.

41/ Pentsa dezagun lendabiziko
nundik daguen aziya,
gure Jainkuak eman ziyona
ugaritzeko graziya;
egonagatik baserritarra
ontzat ezin ikusiya,
orrek ez badu lanik egiten
galduba dago guziya,
nekazariyen eskuen dago
beste guztiyen biziya.

42/ Bere ordena bete-enian
Adan da Eba jatorriyak,
gera Jainkua serbitutzera
gu mundura etorriyak;
eta guztiyen mantentzalle gu
aren poderez jarriyak,
itzaldutzeko geren gorputzen
gose eta egarriyak,
udetik eta lurretik dira
guztiyen sostengarriyak.

- 43/ Nekazariya sortuba bazan
 mundu onetan lenena,
 geroztikako aseria da
 beste enplio danena;
 ez izen arren aberasteko
 opiziyorik onena,
 dalako asko azi-klase ta
 ugaritasun duena,
 bestiak orren erruak dira,
 ori da printzipalena.
- 44/ Guk geren aita Jainkuā degu,
 ta Adan zarra lurretik,
 ta irurogei gizaldira
 lenbiziko muturretik;
 Aitak Semia biraldu zigun
 bere errañu ederretik,
 gu nola bizi erakustera
 ezkabiltzan okerretik,
 nai bada jakin, ikasbidia
 ipiñi zigun aurretik.
- 45/ Lendabiziko zimendukuak
 gera lurraren jabiak,
 zintzo ta zorrotz gorde ditzagun
 komeni diran legiak;
 projimuen da Jesusenakin
 erramenikan gabiak, (13)
 leku askotan orain zabaltzen
 diranak baño obiak,
 altza ditzagun elizak eta
 geren tarteko probiak.

(13) erratu edo faltatu gabe.

- 46/ Nekazariya bera guztiyen
pondo edo zimendua,
besterik asko aberastuba,
bera probe egondua,
akordatutzen ekin diyona
dalarikan berandua,
partidurikan indartsuena
balitz alkar lagundua;
ori ziero bajatzen bada
galduba dago mundua.
- 47/ Uda ta lurra sostentzalliak,
jentiak ortik jaten du,
munduban diran naziyo danak
oiekin dira mantendu;
ta langilliak bere izardiya
ortarako ematen du,
bakoitzak daukan aginpiria
zertako zaiote kendu?
ez gere indarra geretzat ondo
gordeko baldin bagendu.
- 48/ Bere gañera datozen kargak
nai baditu arindu,
nekazariyak keja-enian
bere garaia orain du;
len asi duen mogimentuban
lana ederki egin du,
are obeto preparatzera
biar degu alegindu,
gure inderrakin beste partiruk
zer daukate zer agindu?

49/ Zer zukurutza emana degun
nork esan leike aguaz?
urrematerik uste etzana
larogei eun leguaz;
minberatubak geundelako
makillakin sarri juaz,
jarri gaituzte alkarrengana
unitutzeko goguaz,
oraindik kontu emango degu
onetan baldin baguaz.

50/ Nekazariyak danan zimendu
gerok geraden ezkerro,
iñorengandik zer alderdi (14)
izan gentzake espero?
eskarmentatu-orduba ere
badaukagu onuzkero,
alperrikan da denbora juanda
damu izatia gero,
oponiyua beste ematen
kuidaro izan entero!

51/ Gizonak bere borondatia
nola bai duen beria,
eta askotan dabilkiyena
munduko gora-beria,
ain dala gauza inportantia
nik nere parezeria,
ondo juzgatu ekarri leiken
kalte edo meseria,
ori dalako gauza askoren
sustraiia eta aseria.

(14) Bertso-paperean: *iñogandik*.

52/ Geure almena geure galgarri
kuidado dedin jauna,
ez al da asiko bururik edo
sentimenturik duana;
orrela nola senda liteke
len oñezaz daguana?
istimatuko degu geuk ere
geu amätzen gaituana,
bakoitzak daukan indarrarekin
betor jentia geugana.

53/ Gure indarra bire txarrian
ez al da kanporatuko?
len ere ondo kontu bagiñon
ez giñan ontaratuko;
batasunak zer balio duen
nork luke konparatuko?
kuadrilla aundiya bildubarekin
ez gera enparatuko,
legez ta arrazoiz al ditugunak
ditugu anparatuko.

54/ Ez da komeni derrigorrian
tiraka erasotzia,
naiago badu gure kontrako
jendiakin gozatzia;
lagun-premiya dadukanian
nondik nai du osatzia?
gertatzen bada oker aundirik
deskuiroz pasatzia,
bere bostien konpon dedilla
nai ez badu jasotzia.

- 55/ Arrazoiari bere biriak
enpeñatu ematera,
zer komeni dan esamiñatu
nor bere borondatera;
txaputxeruak datozelako
bestek egiñak jatera,
gure odolak oso ziero
egin baño len atera,
geren burubak dependitzeko
bildu gaitian batera.
- 56/ Batzubek nundik ibiltzen diran
bizi-moru mardulian,
oinbeste gauza igartzen degu
guk ere geren aulian:
pagatzalliak baserriyan da
kobratzalliak kalian;
aurrera ere alaxen nai
batzubek iñola-alian,
konpromirarez guztiyak berdin
obe da igualian.
- 57/ Konpromirarez berdin pagatu
tokatutzen dan petxia,
kobratzen ere igualmente
degunian deretxia;
zer komeni dan juzgatu ondo
bakoitzak bere etxia,
projimuentzat lege zuzena
berak bezelakotxia,
postura ontan egin dezagun
batasunaren kutxia.

- 58/ Onetarako señaletuta
legia ta parajia,
batasun onak dudarik gabe
dualako bentajia;
debil samarrak izatia guk
askok daukagun ajia;
gure soziyo ero inderrak
izan ez dezan bajaia,
guztiyak alkar sostenitzeko
jarri dezagun kajia.
- 59/ Nekazariyak beti ez gauden
atzeneko mallian,
iya bizkortzen ote geraren
gaudenak iya illian;
biartasunak atxi ez gaitzan
ain estadu debillian,
lendabizitik ez naiz asiko
entero gauza zallian,
pezetatxo bat zein nekazarik
botako ez du illian?
- 60/ Nekazariyen iria au da
lendikan diperentia,
sozidade bat moldatu dedin
biar bezela betia;
illian bein printzipalenak
egiñaz juntaketia,
ballera bakoitzatikan launa
komixinadu jentia,
tesorero ta sekretariyo,
gañera presidentia,

- 61/ Esango degu soziyo ontan
 nola biar dan obratu,
 lau komixinau mendi bakoitzan
 tokamentua nonbratu;
 bi urterekin txandan aldatu
 iñor ez dedin sobratu,
 aiek diruba kajerubari
 entregatu ta kobratu,
 komeni diran alderdi asko
 nai baditugu logratu.
- 62/ Kajero eta komixinaduk (15)
 diru ori zuzen-zuzen
 segitutikan irebaziyan
 sartu *Caja-Aborros*'en;
 al dan alderdi guztietatik
 joka seguru goazen,
 junta danen baimena gabe
 eleike atera izen,
 uste eztanen bat gertatu eta
 danok onda ez gaitezen.
- 63/ Kontzejal eta komixinatu
 illeko juntan etorri,
 bi aldetako kontu guztiyak
 an irekorri alkarri;
 komixinaubak auzo-jendia
 ikusten dutela sarri,
 ze premi dan da zer pasatzen dan
 guztiya jakinda jarri,
 soziedare au izan ez dedin
 nekazariyen galgarri.

(15) Bertso-paperean: *komixinadu*.

64/ Urte betian abonurikan
ez da kajatik izengo,
jendez ta diruz soziedaria
jarri bitartean sendo;
jartzen danian kargari zerbait
erantzuteko ain pondo,
baserritarren premi aundiyak
paltatu gabe egundo,
komixinaubak juzkatu eta
pagatuko dira ondo.

65/ Baserriyetan datorrenian
estuesuneko trantzie,
auzotarrakin izaten degu
anparo-esperantzie;
zenbateraño estimatzen dan
alakuan laguntzie,
ain dala gauza baliyosue
alako konfiantzie,
indartsubago jarri dezagun
ez da komeni kentzie.

66/ Alkarrekiko laguntasunak
gure tartian zor dia,
egin dezagun batasuneko
txintxosta edo kordia;
auzotar ori komixinatu
nai ez dutenak nor dia?
injuriien bat norbaitek badu
bere barrenan gordia,
aurten agintzen ura badezu
urrenguen zeu ordia.

- 67/ Nere denboran sarri aitubek
 lengo esaera zarrak:
 «arta-jaliak eta lotiyek
 tontuek baserritarrak»;
 biarrarekin esnatu gera
 izenagatik mantzarrak,
 alkarrengana inguratuta
 egin ditzagun batzarrak,
 geuk nai degunak izan ditzagun (16)
 geu giyatzeko antzarrak.
- 68/ Tontakeriyan ari gerala
 ala naiz notiziyatzen,
 gu alkarrekin gabiltzalako
 orain zerbait leziyatzen;
 beste partiru guztiyak ere
 ari dira soziyatzen,
 galduak gera gu ere ontan
 ez bagerade sayatzen,
 gure gauzakin zertan dabilta
 bestiak negoziyatzen?
- 69/ Gugatik asko itzegiten da
 ez geralako zertzenak,
 bai balirake bezela berak
 gizonikan apartenak;
 batasunaren partez askotan
 zabalmena dakartenak,
 esaten dute: Señale dira
 nundikan diran ertenak,
 soro-juntetan zertan dabilte
 baserritar kertenak?

(16) Bertso-paperean: *geu*.

- 70/ Askotxo daude gu alkartzetik
 etzaiotenak gustatzen,
 jornal gabeko morroneruak
 ai diralako gastatzen;
 arrazoia degun ero ez (17)
 badute ondo juzgatzen,
 gure tartian beste gauzarik
 inork ez degu eskatzen,
 lendabiziko soziatubak
 asi'itezela askatzen.
- 71/ Bajeza asko botatzen zaigu
 merituak merezirik,
 argatik nago egiyak ondo
 publikatutzen asirik;
 alde danetik nola gauden
 pertsekuziyoz josirik,
 errukitzen naiz neu ta lagunak
 miserable ikusirik,
 nekazariyak maiteko ditut
 naizen artian bizirik.
- 72/ Emen gertatzen dana
 langillearekin,
 alkar artatu beren
 partidubarekin,
 diru asko desio
 neke gutxirekin,
 nai anbat kobratu
 bakarkakuakin;

(17) Bertso-paperean: *deun*.

beste jende guztiyak
 batasunak egin,
 atzenengo billera
 nekazariyak;in;
 indarretan probatzen
 al diyogu ekin?
 zein geiena geraden
 nai al degu jakin?
 asitzen bagerare
 intentziyuan pin,
 guk ere emango degu
 gustorik ainbat min;
 beti zitalkeriyan
 ez dago atsegin;
 konpondutzia obe
 danok alkarrekin;
 entenditu lezake
 onenbesterekin,
 erregelamentu ta
 liburubarekin,
 Artzubi'ko tabernan (18)
 jarri denarekin;
 despatzatzera nua
 istori abekin,
 iruroge ta amabi
 bertso berrirekin. (19)

(18) Artzubi'ko taberna Azpeitia'n da; an jarri zuten beren alkartasuna baserritarrak.

(19) Moldiztegi-izenik gabeko bertso-paper batean —zeñi jaso nion ez nuan apuntatu— bertso au dator lenengo:

Milla ta bederatzireun da
 ogei eta bost urtian
 Jesus maitia jaio zanetik
 oneraño bitartian;
 bertso berriyak jarri nai ditut
 ez iflorentzat kaltian,
 nekazariyen bizitza zer dan
 esaten asi gaitian,
 pasadizo au zabaldu nai det
 nere lagunen artian.

Urrena, Iturzaeta'ren liburutxoan datozen amar bertso jartzen ditu, 47, 41, 43, 35, 36, 37, 45, 46, 67 ta 44'garrena, orden ortan. Aldaketak: 35/1: Alde danetik tiraka daude; 35/3: ez det nik uste modu onetan; 35/4: aguantatuko degunik; 35/5: neska ta mutill kalera datoz; 35/7: lurrian jartzen ez baldin bada; 35/9: lengo apurrak aitzen berriz; 36/2: kintuaren astia; 36/3: aren ordezt soldata aundiyan; 36/4: morroia dator bestia; 36/7: geienaz ere egingo degu; 36/9: baserriyak modu onetan; 36/10: asko onduko ezitia; 37/1: Jende guziya mantendutzen du; 37/2: nekazariyaren lanak; 37/3: gu gera ordu askuan geren; 37/4: lanian ari geranak; 37/5: guretzat; 37/7: nekazariyak galanki badu; 37/10: lurra ondutzen duanak; 41/7: onek egiten ez badu lanik; 41/8: galduba degu guziya; 43/3: geroztikako asiera da; 43/4: beste lanterri darena; 43/5: irabazteko ez izan arren; 43/7: dalako azi klase asko ta; 43/9: onen; 43/10: au degu prinzipalena; 45/9: urte askuan lagun deigula; 45/10: Jesusen Ama Mariak; 46/9: au gaizki jartzen bazaigu; 47/7: bere garaian ipiñi eta; 47/8: al dana lurrari kendu; 47/9: obe genduke nekazariya; 47/10: ondo jarriko bagendu; 67/9: orrekin kalterikan ez degu; 67/10: ta utzi gorroto txarrak.

Ta, amabigarren, onako bertso au:

Nekazariyen pasadizua
 zerbait det adierazi,
 guregandikan grazi aundiyak
 oiek dituzte merezi;

lurrak ematen duenarekin
danok bear degu bizi;
bertso berriyak papera ontatik
nai badituzte ikasi,
amar zentimo baliyo dute
nai ditubenak erosi.

Beste bertso-paper bat ere badegu, moldiztegi-
-izenik gabea ta Azkoitia'ko Patxi Estra'ren (Fran-
zisko Lete) eskutik jaso genduana; ontan aurreko
beste bertso-paper orretan datozen lenengo bedera-
tzi bertsoak daude, aldaketa bakar batekin: 1/2:
ogei eta beatzi urtian.

Ta beste bertso-paper bat ere badegu, "Eluston-
do — Zarauz" moldiztegian inprentatua ta aurreko
paper orren bederatzi bertsoak dauzkana. Onek ere
aldaketa bakarra du: 1/2: ogei ta amaika urtian.

(1928)

LOIOLATXO'N

1928 urteko Ilbeltzan, Azpeitia'ko Loiola ondoan, dotriña emateko ta festa-aldiren batzuk egiteko etxe bat bedeinkatu zan. *Loiolatxo* jarri zioten izena.

Estrañatzeko egunean festa polit bat egin zan. Iturzaeta'k onako bertso aukeratu zituan, bañan etzituan berak kantatu, txandaka onako lagun aukeratu baizik: lenengo kantatu zuana Jose Mari, Iturbide baserrikoa; bigarrena, Azautza'koa; irugarrena, Egibar'koa; laugarrena, Bixente, Errementeri'koa; ta bostgarrena, Agerre baserrikoa; berriro Iturbide'koak asi ta segi bestek...

Bertsoak eta jarri ditugun argi bideak, Azpeitia'ko Fidel Uria apaiz jaunaren kuaderno batean arkitu ditugu.

Mi-lla gai-ñe-ra be-ratzi-reun da o-gei e-
-ta zor-tzi ur-te Je-sus mun-du-ra e-to-rra z-z-la
on-txe ez-di-ra a-par-te do-tri-ña e-ta eus-

 -ke-ran al-de itz e-gin za-gun pu-er-te le-ku
 #
 o-ne-tan i-raun de-za-ten mun-du-a mun-du
 #
 dan ar-te.

1/ Milla gañera beratzireun da
 ogei eta zortzi urte, (1)
 Jesus mundura etorri zala
 ôntxe ez dira aparte;
 dotriña eta euskeran alde
 itz egin zagun puerte,
 leku onetan iraun dezaten
 mundua mundu dan arte.

2/ Loiola'ko albuan degu
 etxe polit bat egiña,
 bere ondoko ballera biak (2)
 saiatuta alegiña;
 konbentukua geiena bera
 jende leial eta piña,
 erakustiagatikan ondo
 Jesu-Kristoren dotriña.

(1) Kuadernoan: *ta*

(2) Loiola ta Izarraitz.

3/ Aita Biantxi erretoi jaunak
emanik asieria,
eta aurrera jarraituzeko
ere bazuan idia;
uste baño len gerta zitzaion
urrutirako tiria,
Aita Ibero'k gero ondoren
eman diyo segiria.

4/ San Inazio Jesusek berak
kargua eman ziona,
Konpañia au geroztik beti
ala jarraitzen diona;
eta oraingo obra au ere
berari dagokiona,
Jesu-Kristoren dotriñ-etxia
beti esango zaiona.

5/ Txit borondate aundiarekin
nola egiña dagan,
Jesusen fede eta sinismen
eziñ da obiaguan,
juizioko eguna arte
beti izan dediñ goguan,
etxe eder au zergatik eta
zeñek moldatua duan.

6/ Aita Ibero ta Aita Biantxi'k
eman zituzten baimenak,
etxian bertan zeuden iñun dan
langillerikan onenak;
Zeberio ta Etxarri eta
Reparaz'en almenak,
iru Anaia oiek dirade
etxe au egin dutenak.

7/ Zuzentzallia biar zutela
au da gauza segurua,
Aita Ministro jaunak badu
orretarako modua;
ezertarako faltarik gabe
inguratu du dirua,
beste irurak lana egiñ baña
au da obraren burua.

8/ Ez dan bezela iñori famik
gu ez guaz ematera,
Konpañi ontan ainbat jakintsu
beste klasetan ote da?
Arbola-erro bat beziñbat danak
konparazio batera,
nolako lanak ein litzateken
ortik kontuak atera.

- 9/ Munduan oraiñ gaiztua pranko,
len ere ala izanak,
beste batzuek aiek ontzeko
justuak eta zuzenak;
San Inaziok ta beste askok
egin zituzten gauz onak,
oraindik ere badira emen
aien antzeko gizonak.
- 10/ Dotriña beziñ prezisorikan
nola ikusten eztetan,
orren biarra kristauak badu
zazpitatikan bostetan;
ori ondo ta oitura onak
gogoz baditu gaztetan,
danak aztuta ez dira illko
ez emen ta ez bestetan.
- 11/ Gazte jendia izan ez dediñ
relijiuan penoso,
gure Aita Goikoetxea
dabil guztiz baleroso,
zeru-bidea jarri nairikan
aldapa gabe eroso,
beragatikan jarri nai degu
gazte guztien guraso.

12/ Jente zabala jatorritikan
gera Adan da Ebaren,
pentsatze'al degu zein tokitan da
nola gertatu geraden?
Etsaia danen persegitzalle,
gu oraiñ eta aiek len,
baña guztien ondutzalliak
ere baditugu emen.

13/ Ez al da egia gertau generala
neurri gabeko suertian,
oker guztien zuzentzalle ta
reljioso tartian?
Zenbat tokitan onlako gauzak
izugarri apartian,
abere-gisan bizitzen dira
arik eta ill artian.

14/ Toki onetan ondo dakite
estu daudenak lasaitzen;
ume koskorak ama galtzian
egun bat zail du pasatzen,
sortu al danak emanda ere
nai lukena ez osatzen;
aurtxuak amarekin bezela
gu emen gera gozatzen.

- 15/ Leku onian gu geralako
gertatu edo eratu,
Jesukristori ordaindu gabe
biar al degu geratu?
Gure dotriña eta euskera
ez ditezela beratu,
zenbateraño balio duten
guk eziñ konsideratu.
- 16/ Leku onian gaudelako
ia zer egiten degun,
gauza on gabez mundu onetan
galtzen da aldi bat lagun;
oiekgatikan erregutzia
obe da gau eta egun,
bai al dakigu Jesukristori
zertaraño zor diogun?
- 17/ Orazio ta limosna egiñ
dezagun geren bizitzan,
misiolari maitagarriak
etsaiak onda ez ditzan;
Jesukristori kostatakuak
aien paltan zenbat ill zan,
da oraiñ ere bai al dakigu
ze premietan dabilzan?

18/ Guk ez dakigun parte askotan
munduko lau eskiñetan
eta askotan aitzen ditugun
Amerika edo Txinetan,
Euskalerriko gure lagunak
ain intentzio piñetan,
ez al diegu lagundu biar
beren eziñ-egiñetan?

19/ Ez det esaten dadukagula (3)
guk emen karga ariña,
askorentzako sortu eziñ da
jaso eziñ duten aiña;
baña begira ote daukagun
konpromidade berdiña,
geu zertarako ote giñaden
an jaio izan bagiña?

20/ Zer mirariak ekin zituan
Irutasunak gugatik,
dotriña ondo ikasten bada
ertengo degu dudatik;
nola diraden esandako itzak
Jesusek bere aotik,
eztakienai erakustera
saia gaitean gogotik.

(3) Kuadernoan: *daukagula*.

21/ Mundu onetan izan zanian
gure Jaun eta Jabiak,
orregatikan jarri zituzten
kristauarentzat legiak;
mingaiñ garbia eta dotriña
baño, zer dira obiak?
geren izkuntza gorde dezagun,
euskaldun pare-gabiak.

22/ Askok uste du ez dadukala
euskerak edertasunik,
entenditutzen ez duanentzat
ezer al dago gauz onik?
Ama euskera lengo zarra da
oso txukuna izanik,
besterik al da bera dan beziñ
garbirik eta zuzenik?

23/ Geren buruen kaltegarriak
baditu alditxo bat itz,
sobre sarritan aitzen diranak
zenbat tokitan badabiltz;
beste izkuntzak txarrak dirala
ez degu esan nai agitz,
baña batere ez maldiziorik
euskera bakarrik balitz.

24/ Jaunak zertako ematen digun
memoriako argia,
nola enpleatu eztakiena
munduan bada erdia?
Izkuntza txarrak eragiten du
bajiña bat pikardia,
gora Jesusen dotriña eta
gora euskera garbia!

25/ Arbola ona zimendu onetik
jeneralian nun-nari,
milla eskerrak Aita Erretore
Ibero erritar jaunari; (4)
bai eta ere Aita Biantxi
eta beren lagunari,
gure partetik, Jainkuak lagun,
bejondeiela danari.

* * *

Iturbide'ko Jose Mari orren semea dan
Patxi Arregi'k beste bertso bat ere baza-
la esan digu, onako au:

(4) Aita Ibero erritarra, azpeitiarra alegia, zuten.

Bost bertsolari juntatu gera
aitona zar eta gazte:
bi Jose Mari ta Diburtzio,
Bautista eta Bixente;
San Inaziyon seme auekin
izan dezagula parte,
guztiok ondo bizi bitez ta
agur, ba, beste bat arte!

(1931)

BERTSO BERRIYAK JABIER SARASOLA'K JARRIYAK

Iturzaeta'ren seme-alabak esan didate-
nez, Jabier Sarasola ori Errezil'ko Azke-
ta baserrikoa zan. Egun batez, txerri-tra-
tua egin zuan, izengoitiz *Ontza* esaten zio-
ten tratante batekin. Onek, txerriak ka-
mioraño ateratzeko eskatu zion.

Ala, Sarasola'k atera zituan bere txerri
oiek bear zan tokiraño esandako egun
eta orduan, bañan *Ontza* tratante ori
etzan azaldu.

Orduan, tratante jende guzia eskar-
mentuan sartzearren, Iturzaeta'ri ber-
tsoak jarri-arazi zizkion. Bañan aren ize-
narekin argitaratu ziran.

Iturzaeta'ren seme-alabak sei bertso
eman zizkidaten; besterik etzekiten. Ja-
rri-aldi osoa *Argia*'n publikatu zan, 1933'-
garren urteko Azaroaren 26'an. Oni ko-
piatu diogu.

Bertso-paperetan ere argitaratu omen
ziran bertso auek. Bañan *Ontza* tratante
orrek bertso-saltzallearengana joan da
zituan paper guziak erosi zizkion, ta oso
prezio garestian erosi ere, bertsoak za-

baldu ta bere izena galdu etzedin. Ta bakarra billatzen zuanean, bina duro pagatzen zuan, ta gero erre egiten zuan.

Ala, guk beintzat eztegu paper oieta-ko bakar bat ere eskuratu al izan, ta *Argia* izan ezpazan galduak izango ziran bertso auk.

Doñua, Iturzaeta'ren seme Tomaxek kantatu ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik paperera itzulia da.

Ez-ta-ki-te-nak ja-kin de-za-ten no-ti-zi-
 -a bat ne-ri-a, ber-tso ba-tzu-ek a-te-ra-
 -tze-ko o-raiñ ar-tu det i-di-a; on-do dau-
 -de-nak gaiz-ki i-pin-tzen batzuek i-bil-tzen di-
 -a; txe-rrri=tra-tu-ba e-gin-da au da gi-zo-nen
 bu-ruz-bi-di-a.

- 1/ Ez dakitenak jakin dezaten
notiziya bat neria,
bertso batzuek ateratzeko
orain artu det idia; (1)
ondo daudenak gaizki ipintzen
batzuek ibiltzen dia,
txarri-tratuba eginda au da
gizonen buruzbidia!
- 2/ Kristo jaio zan denboratikan
eta oraindañokuan,
milla urte ta bederatzireun da
ogei ta amaika jua;
gertatzen diran kontu oriyek
edukitzeko goguan,
eta tratubak egin ditzagun
fineza obiaguan.
- 3/ Zer da nola dan itzegiteko
zertako egon lotsakin?
gabaz kanpua ibiltzen dira
izugarritzko otsakin;
geu're anbat geratuko ez giñan
orren alderdi motzakin,
ondo pentsatu izan bagendu
zer pasako zan *ontzakin*.

(1) *Argia'k, orain det idia*; zerbait falta du be-
raz; Iturzaeta'ren seme Tomaxek osatu du, *orain*
artu det idia esanaz.

- 4/ Amaika txarri gaztetatikan
zortzi aukeran erosi,
ta kamiyora lagundutzeko
mutil bat agindu-azi;
txarri-mutilla birian laga, (2)
bera aurrera igesi,
itza kunplitzen erakustia
ez ote luke merezi?
- 5/ Joan zan San Martin bigarrenian
txarri oiek eroatera,
amalau duro ta erdiña tratu,
igo zan orrenbestera;
birez erdiyan txori-tropen bat
oserbatu du ostera,
momentu baten eskapatu du
erri batetik bestera.
- 6/ Zarra kamiyoz Erkizi'ra ta (3)
txarri-tratuan gaztia,
etorkizunak bildurtu nunbait,
pentsatu iges astia;
automobillan sartu ta eraman (4)
senide batek bestia,
ori egiten duten klasiak
jenero fiñak eztia.

(2) *Argia'k*, txarri mutil dio.

(3) Erkizia, Errezil'ko baserri baten izena da.

(4) *Argia'k*, sartu eraman dio; Iturzaeta'ren seme Tomaxek, sartu ta eraman. Era au, osoagoa da, ta onela jarri degu.

7/ Zenbait egazti gaiztuak dira
kuadrillak alkar artuta,
ta *ontzak* berriz motel samarrak
geienetan bakartuta;
bildurtu erraza da olakoa (5)
tratu gaiztoak artuta,
bere burua defenditzen du
arbol-zuluan sartuta.

8/ Bere buruban zer pensamentu
ote zeduzkan jarriak,
ikaratuta utzitzeraño
zeamazkien txarriyak?
Deskonfiantzak berekin ditu
estuasun da larriyak,
ontzarentzako alare ez dira
milagro izugarriyak.

9/ Baña ez dakit ote dabillen
arrazoi-bide onian,
estreñengua etzun izango
ori egin duanian;
pentsa lezake non eta nola
ibilliko dan lanian,
txoriak esna topatuko'itu (6)
berriz etortzen danian.

(5) *Argia'k, da olako* dio.

(6) *Argia'k, topatuko ditu* dio.

- 10/ Txarriak ondo eramateko
lagunai ziyon agindu,
eta mutillak zintzo ta leial
orren esana egin du;
ta kamiyora juañ danian
aldegin dula jakin du;
sentimenturik duan persona
nola ez liteke mindu?
- 11/ Baserritarra zertara juañ
okasiyo ematera?
gure lurretik ark kendu zitun,
ez asi itzik jatera;
esate'omen du ez giñuzela
bear dan garaian atera,
eramatia baño etzeuzkan
berak berekin batera.
- 12/ Mundu ontara jaiuak bera
nunbait asko ikusteko,
guk ez al degu arrazoirikan
zerbait esaten asteko?
Kuidadorikan etzan egongo
tratuba orla uzteko,
epoka ona barrunda balu
galanki irabazteko.

13/ Tratu merkian artu nai eta txarri bikañak gustatzen, gauza on-zale geienak gera baña bildurra gastatzen; alako amaika ume ta ama ez dira gutxi kostatzen, orrek ainbeste nork eman bada, geiegi ez nion eskatzen.

14/ Burla egitiak pena eman dit, ez det galdu interesan, preziyo oiek nork ordaindubak baditut, egiya esan; gertatu dana aitortutzeko zertako egon perezan? gure moduban beste lekutan iñor engaña ez dezan

15/ Telefonora deitu nion iru edo lau alditan, gizonik eztubela etxian andriak itzein dit bitan; (7) urrutitikan igertzen nion etzebiltzala egitan, beti geroko luzepenian orra nola utzi ditan.

(7) *Argia'k, itzegin* dio.

16/ Tolosa'n alkar billatu degu
amargarren egunian,
eman nai nizkion ze kosta ziran
gizonak juzga-enian;
lagunak esan: «Obe dezute
bertan konpondu onian»,
atziaz laister jiratu zaigu
ori entzun duenian.

17/ Zenbait gizonek minutu baten
itzari ezin eutsita,
berak nai duna eitia libre
besteri eragotzita;
tratuban ere eskarmentubak
oi du erakutsita,
tratantiakin gutxi fiyatu
siñale gabe utzita.

18/ Non eta nola eroriko dan
persona ezin markatu,
baña orlako tratanterikan
egundo etzat gertatu;
esker aundiyak merezi'ituzu, (8)
etzera gaizki portatu,
zuk egiñaren ordañak dira,
gaizki esanak barkatu. (9)

(8) *Argia'k, merezi dituzu* dio.

(9) Len esan bezela, auetako sei bertso zekizki-
ten Iturzaeta'ren seme-alabak, 1, 5, 13, 6, 3 ta
7'garrena, jarritako orden ortan. Ona emen aldake-

tak, bertsoak memorian uste gabe nola aldatzen diran erakusteko: 3/1: Zer da nola dan publikatzeko; 6/3: etorkizunak ikerau nunbait; 7/3: ta ontza berriz motel samarra; 13/1: Tratu merkian erosi nai ta; 13/7: orrek ainbeste nork eman badet; 13/8: geio ez nion eskatzen.

Bizkaí'raño ere zabaldu ziran bertso auek. Gernika'ko Julio Bareño zanak bialdu zizkidan, Aulesia'ko Alejandro Onaindia'ri jasota. Onek bertso-pa-per batetik ikasiak zituan. Ona emen aldaketak: 2/5: gertatu diran kontu oriek; 3/1: Zer eta nola itzegiteko; 3/5: geuregan ezkiñan geldituko; 5/1: Joan San Martin bigarrenian; 9/1: Baña ez dakit dabillenikan; 12/3: guk ez degu errazoirikan; 15/3: gizonik etzutela etxian; 15/4: andriak itz egin bitan; 15/6: ez ebillela egitan; 16/3: esaten nion zer kostá ziran.

GOSATEA

Probatu zutenak, beintzat, ondo go-goan edukiko dute emengo gerra ondo-ren eta kanpoko gerra bitartean izandu-zan eskasiya. Ta probatu etzutenak, ber-ritz, ola obe dute. Gosete orretzaz itze-giten du Iturzaeta'k bertso auetan.

Bertsoak iru tokitatik ditugu: Iturzae-ta'ren seme-alabengandik, Errezil'ko ba-serri batetik eta Aiako Olaberri'n jaio ta gaur Errenteria'ko Zelaitxo'n bizi dan Agustin Lertxundi'rengandik.

Zer esanik eztago, era batetik beste-ra aldaketarik badagoala noski. Era ba-koitzetik egokiena artuta, laugarren era egin degu, emen jarri deguna alegia. Ta gero, bertsoen atzean, era bakoitzak emen jarri degunarekin dauzkan aldake-tak ipiñi ditugu.

Doñua, berriz, Iturzaeta'ren seme To-maxek kantatu ta Anbrosio Zatarain jau-nak magnetofonotik paperera itzulia da.

Dau-kat iz-ke-ta-ko gai-a, ba-ña me-mo-ri
 ma-gi-a: o-rain txene-re e-san-gon u-ke al-di bat
 e-gi-a. Da-go as-ko pa-me-li-a go-se-ak
 gal-du-an i-a: Ze-ru-ko A-i-ta e-man zai-gu-zu
 ja-te-ko o-gi-a.

- 1/ Daukat izketako gaya,
 baña memori nagiya,
 alaxen ere somauko nuke
 aldi bat egiya:
 dago asko familiya
 gosiak galduan iya;
 Zeruko Aita, eman zaiguzu
 jateko ogiya.

- 2/ Askok nai degu nagusi,
besterik ezin ikusi,
orreatikan sortutzen zaigu
aldi bat desgrazi;
pakia juañ zan igesi,
ekartzen ezin ikasi,
mundu onetan eztakit nola
biarko dan bizi.
- 3/ Orain daukagun klasia:
eten gabeko gosia,
jan da edateko amorratzen da
urruti gauzia;
lepua eztago ezia,
galtza-ipurdia lasia,
mami gutxi ta kolore txarra,
sudurra luzia.
- 4/ Plakiak gaitu atxita,
ez koipe ta ez txitxi ta,
jendia larri alimenturik
ezin iritxita;
artua dago gutxi ta
merkera ezin jetxita;
eta, gariyak eltzian, berriz,
errotak itxita.

5/ Daukagun kondiziyuan
gabiltza penaziyuan,
aragi, urdai eta oliyo
mixeriz partiziyuan;
artua paltaziyuan,
ogiya erreziyuan,
naikua jaten etziok errez
gaurko preziyuan.

6/ Len bakallua jaten zan,
nunai merke ematen zan,
uraxen ere zaliarentzat (1)
gauza txarra etzan;
geroztikako murantzan
eztakit nora juan zan,
orain jan gabe egon bearra
geroko esperantzan.

7/ Litro ardua duruan,
oso edo inguruan,
toki danetan alare ona
apenas daguan;
balitz itxura moduan,
zerbait orren anparuan,
lan merkietan ai danak pentsa
nola erango duan

(1) Bera ere oso bakallau-zalea omen zan.

8/ Txit gauza gutxi plazâtu,
juaten dana tasatu,
lenago estu giñanak asko
ez gaituk lasatu;
gauza kanpora pasatu,
ekartzia atrasatu,
bertan palta ta kendu ezkerro
gu nola osatu?

9/ Andria kara asarrez,
gizona bajan indarrez,
lan askorekin ezer gutxi ta
gobiernu txarrez;
umiak eske negarrez,
ta emateko ezerrez;
mundu onetan ondo bizitzen
ezta oso errez.

10/ Nolatan gera biziko?
majo gaituzte eziko,
jende erdia debillidarez
jartzen da tisiko;
lege au nork du ausiko?
ondo zein da ikusiko?
makiñatxo bat ondatu dira
gizaldi guziko.

11/ Zaletsu gaude jateko,
nundikan geran beteko,
daukanak ere zenbaitek eztu
gogoik emateko;
gaizki ola egoteko,
itxurarik ez juateko,
gose gaizto au sartu al zaigu
aldiren bateko!

12/ Nolabait e nai mantendu,
al dunak pixkat jaten du,
iraungo bada biziak zerbait
biar izaten du;
goikuak ezin konpondu,
beti bajua jipondu,
ez daukanari eman ez baña
daukanari kendu.

13/ Langille asko nekian,
ari da jornal merkian,
gauza galesti pentsatu nola
paga leitekian;
ezin zuzendu golpian,
emen gaude gerra-pian,
ogi zuririk ezta izango
au dagon artian. (2)

(2) Era bakoitzaren aldaketak:

Iturzaeta'ren seme-alabena: sei bertso: 1, 4, 5, 6,
7 ta 8'garrena. Aldaketak: 1/1: Det izketako gaia;
1/3: oraintxen ere esango nuke; 4/1: Gosiak gaitu

atxita; 4/2: ez mami ta ez txitxita; 4/3: biar dan
aña alimenturik; 4/5: ogia dago gutxi ta; 5/3: aragi
ta urdai eta oliyo; 5/5: ogiya erreziyuan; 5/6:
artua paltaziyuan; 5/8: oingo prezियuan; 7/6: zer-
bait anparuan; 8/1: Ain gauza gutxi plazātu.

Agustin Lertxundi'rena: 1/1: Det izketako gaia;
1/5: dago zenbait familiya; 2/7: orain aurrera ez-
takit nola; 3/1: Orain dagoen klasia; 3/5: galtza
ipurdiya lasia; 3/6: lepua eztago ezia; 5/3: aragi
ta urdai eta oliyo; 5/7: nai dana jaten eztek erre-
za; 5/8: oingo prezियuan; 9/8: etziok errez; 10/1:
Nor gera ondo biziko?; 10/7: ondaturikan makiña
bat bai; 11/1: Goatsu gaude jateko; 11/7: gose
gaiztu au sartuba zaigu.

Errezil'ko baserriko era: 1/3: oraindik ere so-
mauko nuke; 1/5: dago zenbat pamilia; 2/1: Da-
nok nai degu nagusi; 2/2: bestiak eziñ ikusi; 4/5:
ogia dago gutxi ta; 4/7: gero gariak eltzen dira ta;
5/3: aragi, urdai eta olioz; 5/4: mixeri partiziu-
an; 5/7: naikua jaten eztago errez; 6/2: oso merke iza-
ten zan; 6/3: zaliarentzat uraxen ere; 7/3: leku
danetan alere ona; 7/7: jornal merketan ai danak
pensau; 8/4: ez gera lasatu; 9/2: gizona baja in-
darrez; 9/7: modu onetan bizi izaten; 10/4: sartzen
da tixiko; 10/5: ondo zein da ikusiko?; 10/6: lege
au nork du ausiko?; 11/3: daukanak ere gogoikan
eztu; 11/4: askok emateko; 12/1: Nolabait bear
mantendu; ta 13'garrena falta du.

MEZA SANTUAREN BERTSOAK
FRANZISKO ITURZAETA'K
JARRIAK

Mezari buruz berrogei ta bat bertso auek jarri zituan Iturzaeta'k. Gorostie-ta'n jaso genduan kuaderno batetik di-tugu.

Danok dakiguna, garai artan latinez izaten zan meza. Ezertxo ere ezin ente-niturik, olako gogoetan igaroko zuan denbora Iturzaeta'k, baita bertso auek bere artean kantari ere.

Ixillean bada ere, orain baño len asiak dira, beraz, bertsolariak elizan bertso-tan.

Beraren seme-alabak esan didatenez, azkeneko urteetan jarri zituan bertso auek.

Doña, Iturzaeta'ren seme Tomaxek kantatu ta Donostia'ko Anbrosio Zata-rain jaunak magnetofonotik paperera itzulia da.

Be-artu-ri-kan gau-den ez-ke-ro gu-re mun-
 -du-ko bi-zi-tzak, zer la-ne-ta-ra e-to-rrri
 gi-ñan pen-tsa de-za-gun ba-koit-zak; Je-su-kris-
 -to-ri es-ke ñi'iz-ka-gun kan-tu-ak e-ta o-toi-
 -tzak, er-re-pa-sa-tu diz-ka-gun sa-rrri Me-za
 san-tu-a-ren i-tzak.

- 1/ Bearturikan gauden ezkerogure munduko bizitzak,
 zer lanetara etorri giñan
 pentsa dezagun bakoitzak;
 Jesukristori eskeñi'zkagun
 kantuak eta otoitzak,
 errepasatu dizkagun sarri
 meza santuaren itzak.

2/ Jesusengana oroi gaitzen
nor bere salba-bidiaz,
meza santua ondo entzuteko
moduaz edo idiaz,
konsiderauaz itz bakoitzian
emate'igun aitzeriaz,
meza aurreko oraziotik
asmo onak ateriaz.

3/ Biotz guztitik eskeintzen dizut,
nere Jainko guziz ona,
sazerdotiarekin batian (1)
meza entzutera nuana,
izandu dedin zure onra ta
gloriarik aundiena,
zerutar guztiakin batian
alaba zaitzagun, Jauna.

4/ Ni ta guraso, senide, lagun
guzioi on egiteko,
purgatorioko anima oiek
ere parte izateko,
ala komeni zaigun bezela
guziai erantzuteko,
zuk nai eta nik biar dedan
bezelaxe entzuteko.

(1) Kuadernoan: *sazerdotiakin*.

- 5/ Sakristiatik aldarerako
apaizaren abantzara,
Jesus maitia nola joan zan
Jetsemani'ko bâtzara;
zeñen umil ta pozik dijoan
begira semejantzara,
ori beraren Pasioaren
iduri edo antzara.
- 6/ Meza asitzean nola asi zan
Jesus Pasio samiñaz,
pekatarien Salbadoria
bere intentzio piñaz;
au pentsatzen da konsideratzen
enpeñatu alegiñaz,
iru ordu nola pasa zituan
ark orazio egiñaz.
- 7/ *Confiteor Deo'n* begira Jesus
nola auspeztu zan beraño,
umiltasun ta tristetasunez
ez jakin zenbateraño,
pasioaren larritasunez
geiago esan al baño,
inguru danak izerdiz eta
odolez bustitzeraño.

8/ Begira ondo sazerdotia
iyotzen dan aldarera,
Jaun Jesukristo nola irten zan
bere etsaien bidera,
eta Judasen laztan falsua
dijua errezibitzera;
kontu, kristaua, pekatuakin
guk egin degun au bera.

9/ *Introito*'an begira Jesus
nola etsaiakin jarri'an:
gaizkille aundi bat bazan bezela
artu zuten gogorrian,
lotuta preso Jerusalem'a
azkar jua biarran;
zeñen ixil da umil egon zan
ura Anas'en aurrian.

10/ *Krieleison*'ean Kaifasen artan
ain zan modu penosuan,
Pedrok Maixua iru alditan
orduan ukatu zuan,
jakin dezagun jartzia zer dan
okasioko kasuan;
Malko gaiztuak gure Jabia
masallan antxe jo zuan.

- 11/ *Dominus eta vobiscum*'ian
Kristo, errukiz betia,
gertatu zana begiraune bat
Pedrorengana eitia,
miserikordiz edukirikan
arentzat borondatia;
gurekin ere erruki zaitez
alaxe, Jesus maitia.
- 12/ Iya pensatu dezagun ondo
guziok *Oremus*'ian
gaizki egiña ezagututa
Pedro nola ikusi'an:
Kaifas'enetik kanpora irten da
negarrez ezin asian,
gaiñera asko egiña zuan
bere denbora guzian.
- 13/ Atenziyua euki dezagun
epistolako partian,
Pilatosena nola êman zuten
ain modu apartian,
oso pozturik Nazarenu
ala mendean jartian,
diar da ixkanbil eta zarata
arturik beren artian.

- 14/ Ebanjelioz konsideratu
zer Erodesen etxian,
zeruetako jakinduria
an danak burlatutzian,
lotsatu nairik artua zuten
zoratuaren antzian;
kontu lotsatu obra onetan
geuk iñor murmuratzian.
- 15/ Kreduan Jesus Pilatos orrek
zuan ezautu izandu,
inozente ta justua dala
ain ondo sinistutzen du;
alare iltzera berak kondenau,
eman penazko estadu;
zer balio du siniste utsak
obra onik eiten ez badu?
- 16/ Guri Jesusek zenbat nai digun
ofertorion bertatik,
bere gorputza opa izan zigun
gurutze santu artatik,
gu libratzeko geren etsaien
mendetik edo kargatik;
pensa, kristaua, guk amorioz
zer egin degun argatik.

- 17/ Sazerdotiak estalitzian
kaliza paliarekin,
burua nola jarri zioten
arantzaz koruarekin,
izan leikean oñaza edo
miñik aundienarekin;
kabu gabeko martiriua
eman zioten arekin.
- 18/ *Lavabo* edo biatz ta eskuak
Pilatos onek garbitu,
Jesus iltzera kondenatuta
egin zanian arkitu;
berak etzula artzaz parterik
nai adiazita libratu,
baña Jainkua ta diabrua
batera ezin serbitu.
- 19/ *Orate fratres* Pilatos orren
lena eta berrizkua,
balkoi batetik erakusten du
Kristo errukarrizkua,
koroï ta azote bistan duala
zauritza ikusgarrizkua,
esanaz: «Onez biguntze'ez dana
izango da arrizkua!»

- 20/ *Prefacio* edo *Sanctus*'ian
aingeruaren kantua,
zerutik ala batutzen zuten:
«Ara santua, santua,
Jaungoikuaren Seme lurrian
dutela desondratua,
Barrabas gizon-iltzalle baño
geio despreziatua!»
- 21/ *Memento* ontan nola izan zan
Jesusen juaneria,
gurutzia artu bizkarrian da
Galbario'ko mendiâ;
bein erori ta bein jaiki
nekez pasarik biria,
zer negar penak an topatzian
beraren Ama Maria!
- 22/ Kargo deiogun beon gañian
ostia ta kalizari,
egiten diran gurutze edo
kristau señaleari,
biotzetikan amoriua
izan deiogun guk ari;
eta begira zaiozu Jesus
gurutzian josiari.

23/ Jakin dezagun zer esan nai dun
ostia goratuak,
Kristo berari josi ta altxatu
zuten gurutze santuak;
kristau guztiok izan gaitezen
ondo konsideratuak,
Jesusi zenbat kosta izandu
zaizkan gure pekatuak.

24/ Oroitu ondo kaliza gora
altxatzen dan instantian,
sakrifizio Jesusenakin
aprobetxatu gaitian;
atoz, kristaua, ointxe ondora
odolez busti zaitian,
bere bost zauri aundietatik
darizkion bitartian.

25/ Kaliza beratu ondorenean
pensa dezagun onela:
Birjiña Ama naigabetua
gurutze onduan dauela,
bere Semea azken arnasa
ta agonian duela,
biotz guztia aren penakin
erdibitzen diotela.

26/ *Nobis quoque* eta gairera
*pecatu mundis'*etikan (*sic*)
Jesusek guri zenbat nai digun
pensa dezagun ortikan;
kristau guztiok salba gaitzen
erregutzen du gogotikan,
batezaz ere gu pekatari
gairu tristiagatikan.

27/ Bere izketak nola ditugun
ara *Pater noster'*ian;
ikusirikan gu pekatari
errukarriak lurrian,
gurutzetikan ari ziztaigun
txit platika ederrian,
zazpi itz aiek esan zizkigun
ain estadu pozgarrian.

28/ Zer aditzera ematen digun
ostia orren puskatuz,
onetan ere utsegin gabe
atendi dezagun kontuz:
bi partetara partitzen dala
bere anima ta gorputz,
nola alkargandik apartatzian
ilda gelditzen dan Jesus.

29/ Ostia orren zatitxu ori
botatzian kalizara,
onekin adierazten du nola
jetxi zan linboetara,
anima justu aiek atera
ta gloriáz betetzera;
egun artan ain poztu animak
eta Jesukristo bera.

30/ Ia pensatu dezagun ondo
Agnus orretan dauena:
txit gizon asko Galbario'tik
joan ziran Jerusalem'a
beren petxuak golpeatuaz,
ai aien pena ta pena!,
Jaungoikuaren Semia zala
gurutzian il zutena.

31/ Komunioa aldaratzean
gaitean ondo kontura
bere aurreko oraziotik,
zintzo bear dan modura;
ikusi saiets Jesusi lantzaz
iriki zioten ura,
andikan nola irten zitzaizkan
bada odola ta ura.

32/ Sazerdotian komulgatze edo
Jauna errezibitzean,
bi partetara apartatua
Jesus nola gelditu dan,
obiratzeko estadu artan
gertatu zan bezela an,
konsideratu gorputza nola
sartu zuten sepulturan.

33/ Dijoanean kaliz artara
ardoa botatzera,
Madalena ta andre piadosak
ematen digu aditzera,
nola Jesusen gorputz on ura
usai onez betetzera,
ukendu gozoz eta balsamoz
joan ziran igurtzitzera.

34/ Allegatzian momenturaño
kaliza estalitzeko,
bi partetara apartatuak
berriz ere unitzeko,
gorputz ta anima gloriosuak
alkarregana biltzeko,
nola piztu zan sekulan ere
ez geiagotan iltzeko.

- 35/ Adierazten du bigarreneko
Dominus vobiscum'ekin
zer ixuri dan il da piztuta
mundura azaltzearekin;
presentatu zan Ama Santa ta
apostolu santuakin,
eta esan zien: «Pakea, ara,
izan dedilla zuekin!»
- 36/ Bigarreneko *Oremus*'ian
jartzen digu begietan,
erakusten du zer ixuri dan
garbiro ta egietan,
apostoluai nola irten zien
Jesus asko aldietan,
il da zerura igo zaneko
berrogei egun aietan,
- 37/ Allegatzian onetarako
garai edo denboria,
Oremus eta *Ite missa est*
ekarri ditzagun ia,
zeruetara nola igo zan
gure Erredentoria;
pensa dezagun zer izango dan
ondo beraren gloria.

38/ Bendizio au Espiritua
zerutik zien bialdu,
suzko mingaiñen iduri artan
egin zitzaien azaldu,
apostoluak graziz, birtutez
eta indarrez ugaldtu,
Jesukristoren fede santua
egin zezaten zabaldu.

39/ Ebanjelio azkenengoan
euki dezagun jakiña
Jesusek zenbat sakrifizio
gugatik zuan egiña,
apostoluak predikatutzen
nola zioten ekiña,
mundu guzian zabaldu zedin
Jesukristoren dotriña.

40/ Bendizioa eska berari,
oroitu Birjiña Amaz
eta gaiñera santu zerorrek
debozio diozunaz,
eta elizan bertan ikusi
diran misterio onaz;
erten kanpora au pensatutzen
zaudela aitzera emanaz.

41/ Berrogei ta bat bertso berriak.
bere eskeintza ta Mezan,
guri Jesusek jarri zizkigun
anima salba genezan;
Iturzaeta'k al daneraño
zuzendu, letu ta esan,
probetxu asko onetatikan
jendiak atera dezan.

KONDARRAK

Itzaurrean esan degunez, Iturzaeta'k ba omen zituan beste bertso-sail batzuk, iñork apuntatu-ezean betiko galduak diranak.

Oietako bat, adibidez, Jesusen Jaiotza-rena, puntu luzean jarria.

Ala ere, sail oietako bertso bakar batzuk gorde izan dira, berak kantatu ta entzuten zeudenak buruz artu zituztelako. Ona emen salbatutako bertso oiek, bertso-sail-kondarrak alegia:

Asierako auek, Iturzaeta'ren alaba Justak emanak dira:

Jaunak zertako egin giñuzen
memoria ondo askatu,
aingerubak e gauzia berdin
danak etzuten juzkatu;
Jesukristoren alde egitia
batzuei asko gustatu,
aiek zeruban gelditu ziran,
etzuten gaizki asmatu.

.....

zeruan bertan sortu zanian
 aingeruakin gerria,
 Luziper eta bere lagunai
 inpernurako tirria.

* * *

Beste au Ama Birjiñagatik kantatua da. Agustin Lertxundi'ri zor diogu doñu ta guzi. Au besterik ez omen zion aldi artan entzun. Biak mendian bakarrik omen ziran. Doñua, A. Zatarain jaunak itzuli du paperera.

Ze-ru-ta-rra zan bein-go ba-ti-an mun-du-
 -ra-tu zan lo-ri-a e-men-go-ta-tik di-fe-ren-
 -ti-a ze-du-kan be-re-ko-lo-ri-a e-ta
 gai-ne-ra ka-li-da-di-a gra-zi-yaz-ko ba-

-lo-ri-a o-rre-gan-di-kan sor-tu zi-
-tzai-gun gu-re-tzat Sal-ba-do-ri-a

Zerutarra zan beingo batian
munduratu zan loria,
emengotatik diferentia
zeukan bere koloria;
eta gañera kabuik gabia
graziyazko baloria,
orrengandikan sortu zitzaigun
guretzat Salbadoria.

* * *

Onako au bere seme Tomaxek kantatu
digu. Doñua, beti bezela Zatarain jau-
nak itzuli du paperera.

Ai kon-tu gu-ra-su-ak u-mi-ak a-zi-
-tzen zer a-di-tu tai-ku-si du-tei-ka-si-
-tzen; gaz-te-tan e-rres-pe-toz ez-pa-da e-zi-



Ai kontu, gurasuak,
umiak azitzen,
zer aditu ta ikusi
dute ikasitzen;
gaztetan errespetoz
ezpada ezitzen,
naiko lan izango du
garbiro bizitzen.

* * *

Au ere Iturzaeta'ren seme-alabak eman didate. Bertso asko omen ziran. Testamentuko liburutik artzen omen zituan olako gaiak:

Adan zarran semiak
Abel eta Kain,
alkarren amiguak
etzirenak ain;
Kain zarrak Abeli
bizitza galain,
gaiztua bazan ona
ondatzeko lain.

* * *

Iru bertso auengatik onela esan zidan Agustin Lertxundi'k:

«Gazume-mendi'n artzai nebillela, izan-

du nintzan egun batzutan bildots bat galduta. Bañan billatu nuan, da ura artu ta banetorren. Prantxisko zana, garoa eba-kitzen aritu ta gosaltzen ari zala topatu nuan.

—Etorri onera! —esan zidan.

Ta asi zitzaidan bertsoan, ardi galdu kontu ontatik; urrena, Adan da Ebarekin, da andik aurrera segi ta segi ta segi; gero gizonaren bizitza, eriotza ta dana. Sail ikaragarria!

Oietako bertso bat au zan:

Nola ez gauden orain
sasoiko gaztiak,
bildurra ematen dit
izketan astiak;
baña baliyo dula
baditut ustiak
gero zer datorkigun
zerbait ikustiak,
zuzen bizi gaitezen
neu eta bestiak.

Adan da Ebarengatik:

Lenengo gurasuak
nork zituan egin,
Adan da Eba Jainkuak
munduan jarri bein,

lenetatik berriya
ere sortu zedin,
.....
.....
obra onen meriyoz
zeruratu dedin.

Gero, segiran-segiran ari zala, gizona-
ren bizitzan ari zala, beste bat artu nion
maldizioaren gañean:

Itzikan txarrenakin
Dios ta Hostia,
ori da gurutzian
berriro jostia;
bere animan kontra (1)
gizona poztia,
bera Jesukristori
oinbeste kostia!
ez al luke merezi
mingaña moztia?

* * *

Beste bertso au Iturzaeta'ren alaba Jus-
tari jaso degu:

(1) Iturzaeta'ren seme Tomaxen ustez emen *be-
re buruban kontra* bear du.

Argia eta sua
beren urrenian,
argi egin dezaten
txanda debenian,
ta bera deskansatu
zazpigarrenian.


Dударик габe, бертсо onek puska falta
du.

ITURZAETA'REN BERTSO-IKASLEAK

ALABA JUSTA

BILLOBA SABINO

AIA'KO AGUSTIN LERTXUNDI



Bertsolariak bertso-giroa sortzen du bere inguruan; bertso-zale biurtu oi dira geienetan arekin bizi diranak. Ta bertso-zalea, noizean bein bada ere, bertso-gille izatea, ezta arritzekoa. Ala berean gertatu da Iturzaeta'rekin.

Onengandik bertso-zaletasuna ez-ezik, bertso-gintza ere ikasia dutenak, iru dira:

Aurrena, alaba Justa, gaur Azpeitia'n bizi dana.

Bigarren, billoba bat, Sabino, Gorostieta'n bertan jaioa ta aren seme Bixenteren semea.

Ta, irugarren, artzai izandako bat, Agustin Lertxundi. Agustin au Aia'ko Olaberri baserriko semea da. Gaztetan gazume mendian ibilli zan ardi zai. Ta Iturzaeta'k larre batzuk baitzitan mendi orretan, alkarrekin artu-eman aundia izan oi zuten. Arengandik ikasi zuan bertso-tan. Agustin Lertxundi, gaur Erretereria'ko Zelaitxo baserrian bizi da.

Iru auen bertsoak urrengo orri-aldeetan arkituko ditu irakurleak.

ALABAREN BERTSOAK

AITA ZANARI

- 1/ Milla beteta beatzireun da
iruroi ta beatzi urte
Jesus mundura etorri zala
aurten bete biar dute;
Jesusentzako animak bitzen
saiatu gaitezen puerte,
bere Eleizak iraun dezala
mundua mundu dan arte.

- 2/ Gure aita zana nun jaiua zan
esatera naiz beartu:
Eleizalde baserrian zan
mundu ontara agertu;
Azpeitia'ko ponte santuan
zuan bataioa artu,
erretoi zanak mantxa kendu ta
ark egin zuan edertu.

3/ Geientsuena nekazaritzan,
beste batzutan basuan,
alperra etzan da lana egiteko
gogo galanta baitzuan;
biretan oñez zebillenian
kantatzen da errezuan,
gure aita zanak bere bizitza
era ortan pasa zuan.

4/ Mundu onetan bizi izan giñan,
aita, alkarren urrian;
garbi-tokiyan bazaude ere
laguntzaren biarrian,
zuregatikan eskatzen degu
etxeko danok lurrian,
Jesus maitiak artu zaitzala
bere zeru ederrian.

5/ Garbi-tokiyan, aita neria,
baldin bazaude oraindik,
zeruratzeko laguntasuna
izango dezu gugandik;
otoitz beruak îngo dizkagu
Jesus onari emendik,
zeru ederra eman deizula
Aita Zerukuagandik.

6/ Nik banituan anai ta aizpa,
baita ere gurasuak,
oraindik ere goguan dauzkat
aien lurreko pausuak;
Jesus onari eiten dizkagu
otoitz bero ta gozuak
zeru ederra izan dezala
gure pameli osuak.

7/ Maria Joxepa gure ama zan,
aita zanan emaztia,
guretzat onak izan ziranak
bata bezela bestia;
kaso ein gabe guri lagata
emendik junak ezia,
zeru ederrian izan bezate
betikotasun guztia.

8/ Eriotzaren oso urrian,
aita, esan zirazuna:
geren animak salbatutzia
gendula eginkizuna,
Jesus onari beti izateko
egizko maitetasuna,
izugarrizko gauzia zala
gero betikotasuna.

9/ Oi ta bat urte dirare, aita,
zu izan ziñala illa,
gorputza utzi ta juan ziñala
zeru ederraren billa;
zere oñetan egin genduen
otoitza ixill-ixilla,
esan genduen: «Onen anima
zeruan gerta dedilla!»

10/ Jesus maitia, erruki aundiz
begira zazu gūgana,
ondo dakizu erorikorrak
eta argalak gerana;
bizi geranok nai genduke ba
lana egiteko almena,
garbi-tokiyan dauden animai
emaiezu atsedena.

11/ Irurogei ta amabost urte
aitak lurrian pasiak,
urte oietan iraun zuan
zure lurreko biziak;
amaika aldiz egin ziñuzen
otoitz bero ta luziak,
Jaungoikuaren gloriarako
izango ziran guziak.

ARANTZAZU'KO AMARI (1)

Es-kau es-kein-tzak e-gin nai diz-kat Aran-tza-
 -zu-ko A-ma-ri, zer-ga-tik be-ra no-la da-guan
 Gi-puz-ko-a-ko Zain-da-ri; be-dein-ka-tu-ba
 i-zan de-di-lla zu-re gar-bi-ta-sun o-ri, e-
 -ri-yo-tzi-an gal-duez-gai-te-zen la-gun zai-
 -gu-zu da-no-ri.

(1) Doñua, Justak berak kantatu ta Antonio Zatarain jaunak magnetofonotik paperera itzulia da.

1/ Eskau-eskeintzak egin nai dizkat
Arantzazu'ko Amari,
zergatik bera nola dagan
Gipuzkoa'ko Zaindari;
bedeinkatuba izan dedilla
zure garbitasun ori,
eriyotzian galdu ez gaitezen
lagun zaiguzu danori.

2/ Arantzazu'ko eleiz berriyan
dagan Ama Birjiña,
zeruko lore usaitsua da,
guziz garbiya ta fiña;
besterik eztan bezelakua
o Jaungoikuak egiña!
orregatikan deitutzen zaio
zeru-lurren Erregiña.

3/ Urrutitikan Arantzazu'ra
asko egiten da etorri,
biyotzetikan eskatutzero
danak Ama laztan orri;
pozez beteta bialtzen ditu
makiña bat errukarri,
zenbat mesede egiten duen
Jainkuak lezake neurri.

BILLOBAREN BERTSOAK

AITONA ZANARI

- 1/ Ara, aitona biotzekua,
astera nua kantuan,
bertso bat edo bi kantau nairik
epoka etorritakuan;
bere illobak aitortutzen du
orain zer pena duan:
nik ezagutu baño lenago
aitona mundutik juan.

- 2/ Orain zerura nola dijuen
illobaren esperantza,
nik beragatik espero det ba
bertsuetako laguntza;
nik egunero egiten diyot
errezua ta otoitza,
gu bizi geran baserri ontan
eman zun bere bizitza.

3/ Ara, aitona, kantari ai naiz
zeuri ondo esanez,
zuk bertsua kantauko zendun
illoban aldian errez;
orain laguntza eskatzen dizut,
aiton maitia, meserez,
zu ill ezkeru gu geroztikan
bizi gerade negarrez .

4/ Aiton maitia, bertso kantatzen
egingo dizut alegin,
bai eta ere kantauko'izkizut
borondate ederrakin;
amaika bide eta luberri
aitonak omen zun egin,
eta gero ill omen zan
iruoit' amabost urtekin.

5/ Kantuan ai dan illoba onek
ditu emezortzi urte,
bera il zala Maietzian
oe ta bat dirade bete,
negonek ere ez dakit baña
gurasuak esaten dute;
bitartean ondo izanda
alkar ezagutu arte!

6/ Asi ezkerro esan nai dizkat
gezurrik gabe egizak,
gure aitonak bertso auek
ditu ondo mereziyak;
orain mundutik bialtzen dizkat
eskerrak eta grazizak,
orain ere ez daude asko
alako bertsolariyak.

7/ Baserritarra omen zan eta
bertsua omen zun sarri,
bere illobak bertso batzuak
oraintxe dizkio jarri,
Euskalerrriyan gusto duenak
egin ditzan irakurri,
baldin inork jakin nai balu
gure aitonaren berri.

8/ Zer esaten dun arretaz entzun
illoban azken agurak
nere begizak betetzen dizkit
malkuak eta negarrak;
luzaro ere iraun dezala
gure euskera zarrak,
gure aitona zan bertsolariya,
gu gera ondorengo adarrak.

**AGUSTIN LERTXUNDI'REN
BERTSOAK**

PRANTXISKO ZANARI

1/ Prantxisko zanak bereak zitun
kasik biak eta goyak,
Jainkuagandik irixten zitun
meritu izugarriyak;
bertsoz d'errezoz bete zituan
baserri eta mendiyak,
gero're zintzo jarrai dezaten
nekazari ta artzayak.

2/ Bere denboran maitiak zitun
baserri eta mendiya,
baña askozaz geio maite zun
danen gañeko argiya;
nunai bertsoan da errezatzen,
beti euskaldun gargiya,
oraindik ere bizirik dago
ark utzi zuan graziya.

3/ Bere denboran saiatua zan
ejenplo onak zabaltzen,
ark esandako itzak on batzuk
beñ ere etzaizkit aztutzen:
mundu onetan ez baldin bada
maitasunikan indartzen,
lanteri zallak izango'irala
zerurikan alkantzatzen.

4/ Bajin bat aldiz esan izan zun
Kriston dotriña ikasteko,
nai ta ez dala bearrezkua
anima salbatutzeko;
kupirarikan etzun beñere
lan ein da errezatzeko,
aren antzera jokutzen danak
eztu zerurik galduko.

«ORAINTXEN PENTZATZEN DET...» (1)

O-rain-txe pen-tsa-tzen det kan-tu-ban
 as-ti-a ne-o-nek pres-ta-tzen det on-ta-ko
 bi-ri-a pen-tsa-tzen ja-rr-i-ta're
 au da u-mo-ri-a poz-tu ta a-lai-ttu
 za-gun eus-kal-dun jen-di-a

Urrengo bertso batean onela:

(3) (4) (13) (14)
 bi-yo-tzi-nan pe-na eus-kea gal-du-ko o-
 (14) (15)
 -te dan

(1) Doña, Agustin Lertxundi'k berak kantatu ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik paperera itzulia.

1/ Oraintxen pentsatzen det
kantuban astia,
neonek prestatzen det
ontako biria;
pentsatzen jarrita're
au da umoria,
poztu ta alaitu zagun
euskaldun jendia.

2/ Erderak indar dauka,
baju euskalduna,
orretzek ematen dit
biyotzian pena;
naiz euskaldunak izan
beren aita ta ama,
zenbat seme-alaba dô
bate eztakiyena!

3/ Maite izanagatik
jaiotako lurra,
zenbatek egin dute
mundutik agurra;
erdera izkuntzak aurrên
dabilki muturra,
euskera galduko ote dan
nik daukat bildurra.

4/ Gure euskera oso
egin zaigu nastu,
gauza orrekiñ ez naiz
ni batere poztu;
batzuk ikasi ez ta
bestiari aztu,
euskera iltzen bada
gero nola piztu?

5/ Dakizute erderak
gaur indar daukala,
erdaldun biurtu da
euskaldun odola,
relijiyua ere
bajutzen ai dala;
fedia galtzen ai da
euskera bezela.

6/ Sei bertso dira abek,
batekiñ agurra,
kontentu geunden baño
denbora laburra;
euskaldunak daukagu
burua makurra,
baño alare beti
biotza xamurra.

«EUSKERANGATIK...»

- 1/ Euskerangatik pentsatutzen det
kantu-lanian astia,
ezin bizirik nola dabillen
gure euskera tristia;
gure aurreko aiton-amonak
aztutzekuak ezta,
pixkat goratzen asi nai nuke
aien izkuntza maitia.

- 2/ Euskera askoz lasaiago zan
aien denbora batian,
oraindik ere aien kutsuba
badabil gure artian;
aditzera bat eman bear det
euskaldunoren tartian,
ezin bizirik dagon gaixoa
nundik indartu leikian.

- 3/ Nik persona asko somatu izan det
euskalduna dala esaten,
baño neonek sarri ikusten
ditut erderaz itzeiten;
euskaldun danok alkar artuta
gogoz ezipagera asten,
gure esukerak zaill izango du
bere birian juaten.

4/ Guk euskaldunak aitortu zugun
ez gabiltzala oso piñ,
zergatik daukan gure euskerak
ainbat naigabe ta samiñ;
garbi ikusten da zer gertatzen dan
gaurko euskaldun askokiñ:
«Gora Euzkari!» esan bai baño
berak erderaz itzegiñ.

5/ Gauza orrekin sartu izan zat
naigabe bat biyotzera,
nai nituzke gaur nere barrungo
sentimentuak atera;
gu euskaldunok len baño piñô
jokatutzen ezipagera,
erdera dago nagusi eta
laister euskera lur-pera.

6/ Erdera oso indartu zaigu
Euskalerra ederrean,
gu emen gaude gertatzen dana
aitortzeko bildurrean;
gure euskera bizitzezkero
bera jaio zan lurrean,
danok dakigu arkitzen dala
laguntzaren bearrean.

7/ Iru edo lau izkuntza-klase
badauzka gaur Kantabriyak,
da euskalduna besteik ez dute
entzun nere belarriyak;
negar geiegi egiñ eztezan
gure izkuntza garbiyak,
euskaldun danok alkar artuta
gora itzaun euskal erriyak.

«BETIZUAK ALDEGIN...» (1)

«Bein batean, Errenderi'n festetarako ekarri zuten zezenak edo betizuak iges egin omen zien, da San Marko-mendi'n gora joan omen zan. Ta or danai galdezka ibilli omen ziran nora joan zan, da, billatu zutenean, tiroz bota, ekarri ta gero or jan omen zuten erriko etxean-edo danen artean. Ta nik bertso auek jarri nituan:

Be-ti-tzu-bak al-dee-gin du Er-ren-te-ri-
-tik go-ar-di ta gu-zi-yak di-jo-az a-tze-tik; mi-
-lla me-tro'n ben-ta-ja ar-tu du au-rre-tik San
Mar-ko: men-din go-ra an-kak ja-so-tze-tik

(1) Doña, Agustin Lertxundi'k berak kantatu ta Ambrosio Zatarain jaunak magnetofonotik paperera itzulia.

Bigarren bertsoan: onela:

(6) (7)
lau sal-to-tan pasa du San Mar-ko men-di-yo

goar-di-yak uz par-tou-ra da ko-rr-i-ka-ri-ya

Irugarrenean onela: (6)

az-ke-ni-an be-ren-tzat

(7) Bukatzeko

1-zan-go ba-zu-ten

er-du-an bu-ka

rall a tempo

-tu zan be-ti-tzu-en pes - ta

- 1/ Betizuak aldegiñ
du Errenderi'tik,
goardi ta guziyak
dijoaz atzetik;
milla metron bentaja
artu du aurretik,
San Marko-mendi'n gora
anka jaso zetik.

2/ Adar zuriyak ditu,
kolore gorriya,
anka bizkorrak eta
begi-bista argiya;
lau saltotan pasa du
San Marko-mendiya,
goardiak ez baño ura
da korrikariya.

3/ Arrastuan atzetik
segitzen zioten,
aber nora juana zan
galdetutzen zuten;
azkenian berentzat
izango bazuten,
San Marko-mendi atzên
tiroz bota zuten.

4/ Ondoren naiz ibilli
oso aspertuta,
kuadrillan jan zuten
danak alkartuta;
lasai gelditu ziran
ederki beteta,
orduan bukatu zan
betizuen pesta.» (2)

(2) Agustin Lertxundi.

«EUSKALDUN JAIO NINTZAN...» (1)

Eus-kal-dun ja-yo nin-tzan da ieus-kal-
 -dun a-zi eus-kal-dun e-zi nin-tzan da
 ieus-kal-dun bi-zi kas-ti-lla-noz as-ko-rik
 nik ez-tet i-ka-si ei-tten de-dan pix-
 -ka're bal-dar da i-txu-si
 (26) (27) (36) (37)
 Beste bertsoetan onela: nik bal-

- 1/ Euskaldun jaio nintzan
 ta euskaldun azi,
 euskaldun ezi nitzan
 da euskaldun bizi;
 kastillanoz askorik
 nik eztet ikasi,
 eiten dedan pixka're
 baldar da itxusi.

(1) Doñua, Agustin Lertxundi'k kantatua.

2/ Gaztia zarran aldên
berez da gordiña,
len da oraiñ eztago
izkuntza berdiña;
indartzen ai zaizkigu
lujua ta griña,
eztezagula aztu
Kristoren dotriña.

3/ Ikusi-ezagatik
Jesus jaio ta iltzen,
komeni da astia
gauz oiek berritzen;
ikasi zagun danok
munduan bizitzen,
gero anima egon
eztedin sufritzen.

4/ Espirituen obraz
mundura jaio zan,
Maria Birjiñagandik
bera sortua zan;
oi ta amairu urte artên
emen ibilli zan,
gu salbatziagatik
gurutzian il zan.

- 5/ Gugatik eman zuan
bere eriyotza,
pekatuk barkatzeko
jarri zun aitortza;
anima salbatzeko
utzi zun laguntza:
guretzako janari
beraren gorputza.
- 6/ Eriyotza badator
gabiltzan tokira,
oaiñ ildakuak gero
zutituko gera;
Josepetan bi bire
ezker da eskubira,
mundu ontako obrak
an azalduko'ira.
- 7/ Kontuba eman bear
Jaungoiko Aitari,
Jesus bera izango da
gure juzkalari;
Espiritu Santua
danen giyalari,
sariya emateko
merezi dunari.

8/ Nai ta ez dago gauzak
azaldu biarra,
an ixtimatuko da
animako indarra;
eskubi aldekoak
pozezko irriparra,
ezkerrekuarentzat
suba eta garra.

9/ Izango da sententzi
ikaragarriya,
zorionekuentzat
zeruan gloriya;
mantxa danak kentzeko
da garbi-tokiya,
kondenatuentzako
inpernu gorriya.


10/ Obe degu okerrak
munduan zuzendu,
bear da premiyetan
alkarri lagundu;
Zeruko Ama maitea,
errukiz bigundu,
eriyotzako orduan
ez gaitezen galdu.

11/ Bizi gaitezen zuzen
xamur eta bigun,
ezên okerrik bada
zuzendu dezagun;
Jesus ta Ama Birjiña
arturikan lagun,
betiko zoriona
iritxi dezagun.

ORAINDAÑOKO LIBURUAK

1. R. Artola: Sagardoaren Graziya (*Aitua*).
2. M. Soroa: Gabon, au ostatubal, Anton Kaiku. (*Aitua*).
3. F. Apalategi: Euskal mutillak armetan, I.
4. Pepe Artola: Ustez laguna detan.
5. P. M. Urruzuno: Euskalerritik zerura. (*Aitua*).
6. T. Alzaga: Ramuntxo. (*Aitua*).
7. R. Azkarate: Galtzaundi. (*Aitua*).
8. A. Apaolaza: Patxiko Txerren. (*Aitua*).
9. B. Iraola: Oroitzak.
10. Errege eguneko bertso sayoa (1962). (*Aitua*).
11. P. Larzabal: Bordaxuri. (*Aitua*).
12. Bilintx: Bertso ta lan guziak. (*Aitua*).
13. M. Izeta: Dirua galgarri. (*Aitua*).
14. P. Larzabal: Iru ziren.
15. Ezkontza galdutako bertsoak, I.
16. A. M.^a Zabala: Gabon gau bat.
17. A. M.^a Labayen: Malentxo alargun!
- 18-19. A. Zavala: Txirrita. (*Aitua*).
20. F. Goñi: Lurdesko gertaerak. (*Aitua*).
21. P. Larzabal: Herriko bozak.
22. Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962).
23. Aizkolariak.
24. F. Imaz: Bertso guziak.
25. A. P. Iturriaga: Jolasak.
26. A. M.^a Zabala, A. Larraitz, Mir: Periyaren zalapartak.
27. Azpeitiko Premiyoaren bertsoak.
28. B. A. Mogel: Ipui onak.
29. T. Alzaga: Burruntziya.
30. G. Anduaga: Egunsentiko txoria.
31. M. Soroa: Baratzan.
32. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotaren bizitza.
33. M. Elicegui, A. Zavala: Pello Errotak jarritako bertsoak.
34. P. Larzabal: Senpere-n gertatua.
- 35-36. J. V. de Echagaray: Festara.
37. A. Cardaberaz: Euskeraren berri onak.
38. S. Salaverría: Neronek tirako nizkin.
39. Amar urteko bertso-paperak.

- 40-41. *J. R. Zubillaga*: Lardasketa.
 42. *Uztapide*: Noizbait.
 43. Bertsolari-txapelketa (1-I-1965).
 44. *P. Larzabal*: Hilla esposatu.
 45-46. *J. M. Satrústegui*: Bordel bertsularia.
 47. *P. M. Urruzuno*: Iru ziri. (*Aitua*).
 48. *P. Barrutia, Sor Luisa, X. Munibe*: Teatro zaarra.
 49-50. *A. Zavala*: Pello Errotaren itzala.
 51. *P. M. Urruzuno*: Ur-zale baten ipuiak.
 52-53. *G. Anduaga*: Bertso-bilduma.
 54. *A. Zavala*: Fernando Amezketarra bertsularia.
 55. *Basarri*: Laugarren txinparta.
 56. *A. Zavala*: Udarregi bertsularia.
 57-58. *C. Beobide*: Asis'ko Lorea.
 59. *A. Zavala*: Axentxio Txanka bertsularia.
 60. *A. Zavala*: Errikotxia, Itxaspe ta beste zenbait bertsolari.
 61. *A. Zavala*: Gaztelu bertsularia.
 62. *A. Zavala*: Zarautz'ko Zaldubi bertsularia.
 63-64. *A. Zavala*: Juan eta Pello Zabaleta bertsolariak.
 65. *J. M. Satrústegui*: Luzaide'ko kantiak.
 66. *A. Zavala*: Iru bertsolari.
 67. Bertsolari-txapelketa (11-VI-1967).
 68-69-70. *A. Zavala*: Alzo'ko Imaz bertsularia.
 71-72. *A. Iturriaga*: Ipuiak.
 73. *A. Zavala*: Iru anai bertsolari.
 74-75. *A. Zavala*: Errenteria'ko bertsolari zaarrak.
 76. *A. Zavala*: Alza'ko bertsolari zaarrak.
 77-78. *A. Zavala*: Paulo Yanzi ta bere laguneren bertsoak.
 79-80-81. *A. Zavala*: Lexo bertsularia.
 82. *A. Zavala*: Juan Maria Zubizarreta bertsularia.
 83. *A. Zavala*: Motza, Zulaika ta Ugalde bertsolariak.
 84. *M. Matxain*: Uste gabeen.
 85. *Xalbador*: Ezin bertzean.
 86-87. *A. Zavala*: F. Iturzaeta bertsularia.



AUSPOA
LIBURUTEGIA

IMPRESO EN ESPAÑA